

Zu hemen zaude.

goiena

GAZTE- GAZTERIK DANTZAREN GORENEAN

Julen Murgiondok eta Saioa Galarragak irabazi dute Euskal Herriko Dantza Txapelketa, eta Bergarako eskola berriz jarri dute puntaren puntan / 40

Julen Murgiondo eta Saioa Galarraga, Moises Azpiazu dantza taldearen entsegu-aretoan, eskuetan sari nagusia dutela.

XABIER URZELAI

Eusko Alkartasuneko ildo bakoitzeko debagoiendar banak aztertu du alderdiaren krisi egoera / 2


Bergarako Txapa irratiak biharko 'txupinazoarekin' hasiko ditu ospakizunak / 24

SINADURAK

 HARITZ GALLASTEGI / 6	 MIKEL IRIZAR / 48	 AMAI A ETXABE ETA ONNITZA LEGORBURU / 8
--	--	--

ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko hiruretan, ordu biak izango dira.



Arrasate-Oñati lasterketa domekan, "kirol proba hutsa baino askoz ere gehiago" izan guran / 38

puntuak

Hormak Apurtzen: ohiko lagun taldetik harago

Iratxe Esnaola, Telesforo Monzon Laborategiari buruz

Hemen GARBIKETAK

ZURE KONFIANTZAKO GARBIKETA ENPRESA

ESKORIATZA • T. 943 71 48 45
www.hemen-garbiketak.com
hemen@hemen-garbiketak.com





Eba Blanco, Eusko Jaurlaritzan. EUSKO ALKARTASUNA



Maiorga Ramirez, Carlos Garaikoetxea eta Esther Larrañaga, Donostian. ARABA PRESS

Barne gatazkak konpondu guran

Gaurko deituak zituzten hauteskunde primarioak Eusko Alkartasunan; hauteskunde batzordeak, halere, baliogabe utzi du Maiorga Ramirezen hautagaitza; hori dela eta, ezustekorik ezean, astelehenean Eba Blanco izendatuko dute EAko idazkari nagusi

Eneko Azurmendi ARRASATE

Hamar urtez EAko idazkari nagusi izan zen Pello Urizar arrasatearrak ekainean dimititu ostean, alderdiak hauteskunde primarioetarako prozesua mar txan jarri zuen berehala; eztabaidak eta gatazkak ekarri dituen prozesua, hain zuzen.

Agerikoak dira bi sektoreen arteko diferentziak, eta horren erakusle da sektore kritikoa pasa den zapatuan Donostian eginiko agerraldia. Esther Larrañaga arrasatearrak, sektore kritikoko ordezkariak, dio ez dela benetako prozesua izan. "Gure postura argitu gura izan genuen Donostian, modu partekatuan. Izan ere, jendetza batuzen, gure aldarrikapenekin bat egiteko. Guk aldarrikatzen duguna da primarioetako prozesua benetakoa izan dadila. Modu horretan, aukera izango genuke

proiektuaren inguruan eztabaidatzeko eta proiektuen artean aukeratzeko. Guztion bozken bidez idazkari nagusia aukeratzeko, hori da nahi duguna".

Maidor Otamendi eskoriatzar- rakk, sektore ofizialeko ordezkariak, erantzun du esanez hautagaitza batek ez dituela bete barne araudiak markatzen dituen hainbat irizpide. "Primarioak egiteko araudian jasota datorren moduan, 50 abal aurkeztu behar dira orotara, eta herrialde bakoitzetik gutxienez bost abal. Azken hori ez dutenez bete, hautagaitza baliogabeta geratu da. Zailtasunak eta oztopoak egon direla diote, baina hori aitzakia hutsa da, araudia garbia da", azaldu du.

Abalen gatazka

Larrañagak azpimarratu gura izan du estatutuak "bihurritu"

egin direla, primarioetako prozesua bertan behera uzteko asmoarekin, eta batutako abal kopurua ez dela aintzat hartu. "Planteatzen dugu eztabaida garden bat izatea, eta aukera berekin. Ezin dena da guztia bihurritu eta bertan behera utzi. Onartezina da aitzakia horrekin, prozesuaren forma akats baten ondorioz, hain zuzen, afiliarioari erabakitzeko eskubide hori ukatzea. Agerian geratu da primarioetako prozesu hau ez dela benetakoa izan, eta ez dakit zergatik, baina ez da benetakoa izatea gura izan".

Batutako abal kopuruan egon den diferentziari dagokionez, Otamendik gaineratu du "ton-takeria" bat dela. "Araudiak dio gutxienez 50 abal aurkeztu behar direla. Ebak, gura izanez gero, 500 ere lortu zitzakeen, baina ez zegoen beharrik. Badaezpada,

60 aurkeztu zituen, bakarren bat baliogabeta ziezaioketelako, arrazoi ezberdinengatik. Horrelako esanda, badirudi hautagaitza batek askoz ere babes handiagoa duela besteak baino, eta hori ez da hala".

EH Bildun izan beharreko rolaz

Bi aldeen arteko diferentzia nagusiaren eragile nagusia da alderdiak EH Bilduren barruan jokatu beharreko rola, nahiz eta bi sektoreak koalizioan jarraitzearen aldekoak diren. Sektore ofizialak orain arte moduan jarraitu gura du. "EH Bildu Eusko Alkartasuna ere bada. Bilduren sorreran EA zegoen eta gaur egun ere EH Bilduren parte da EA. Hasieran, apustu bat egin zen, koalizio forma baten aldekoa. Hori eboluzionatzen joan da, eta EH Bildu osatzen dugun alderdi eta norbanakook ere eboluzionatu dugu. Finean, koalizioa gorpuztu eta egituratu egin dugu guztion artean, eta guk ikusten dugu EAko koalizio barruan orain arte jokatu duen paper hori mantendu egin behar litzatekeela aurrerantzean ere", dio Otamendik.

Ildo kritikoa, berriz, uste du alderdiaren ahotsa gehiago hartu behar litzatekeela kontuan, argudiatuz EA "urtzen" ari dela EH Bilduren baitan. "Aniztasuna defendatzen dugu. Gaur egun, EAren ahotsa urtu egin da koalizioaren barruan eta gehiago urtzeko arriskua ikusten dugu. Aniztasunak mesede egiten dio

EH Bilduri, eta uste dugu koalizioaren esparrua zabaltzeko egin behar dela, baina Eusko Alkartasunaren eta sozialdemokraziaren ahotsa ezinbestekoa izanik. Koalizioa indartuko da EA indartzen den eta gure ahotsa kontuan hartzen den heinean. Beraz, uste dugu gure ahotsa indartu egin behar dela EH Bilduren baitan", dio Larrañagak.

Eba Blanco, idazkari nagusi

Gaur, egubakoitza, ziren egitekoak hauteskunde primarioak, baina azkenean ez dituzte egingo, hauteskunde batzordeak baliogabe utzi duelako Maiorga Ramirezen hautagaitza. Hori hala izanik, Eba Blanco da idazkari nagusi izateko hautagai bakarra, eta araudian jasota dagoenez, hautagaitza bakarra egongo balitz, hautagai hori izendatuko lukete idazkari nagusi epeak amaitzerakoan -urriaren 28an bukatzen da-.

Ramirezek errekurtsioa aurkeztu du asteon, baina hori ere ukatu egin diote. Izan ere, ebazpenak garbi dio hautagai bakarra dagoela. Beraz, ezustekorik ezean, Blanco izango da EAko idazkari nagusi berria. "Atzeko atetik hartuko du kargua eta, gainera, oraindik ez dakigu zein den bere proiektua ere. Egoera honetan pertsona batek ardura hori hartzea ez da logikoa", dio Larrañagak. "Ez dut ulertzen pertsona bat idazkari nagusi izateko aurkeztu behar bada, ez ezagutzea herrialde bakoitzean

babesa azalduko dioten bost pertsona gutxienez", gaineratu du Otamendik.

Akordio batera iristea helburu

Adostasunak bilatzerako orduan, borondatea behar dela dio eskoriatzarrak. "Eba Blanco oso ondo ezagutzen dut, harreman sendoa daukagu. Beti izan da elkarrizketaren aldekoa, zubiak eraikitzearen aldekoa, eta oraingoan ere dauden aukera guztiak baliatuko ditu adostasun batera heltzeko. Ziurtatu dezaket Ebaren partetik borondate guztia egongo dela, baina adostasuna lortzeko beste aldearen borondatea ere behar da".

Larrañagak ere uste du adostasun batera heltzea beharrezkoa dela. "Guretzako oso tristea da bizi dugun egoera, baina ziur naiz guztion artean gai izango garela egoera honi konponbide bat emateko. Alderdi berekoak izanda ez badugu adostasun batera heltzeko borondaterik izaten, jai dugu. Eser gaitezen, eta eztabaidatu dezagun", nabarmendu du.

"Indarra galduz" doan alderdia

Mikel Irizar analista politikoak dionez, EAren krisia "luzea" da. "Zatiketak egon dira aurretik, eta orain ikusten da beste zatiketa baterako arriskua. Eusko Alkartasunaren sorrera oso esanguratsua izan zen, eta faktore garrantzitsu batzuk izan ziren alderdiaren sorrera eragin zutenak: esaterako, EAJren krisi handi hura, lurralde historikoen eta Arzalluzen eta Garaiakoetxearen lidergoen baitan. Gerora, EH Bilduren eta polo soberanistaren baitan, ekarpen garrantzitsuak egin zuen Pello Urizarren gidaritzapean, hain zuzen ere, ezker abertzaleak bazituelako berezko muga batzuk

"GUK EZ DUGU OZTOPORIK JARRI; ARAUDIA GARBIA DA"

"EBAK 500 ABAL ERE LORTU ZITZAKEEN GURA IZANEZ GERO"

"EH BILDU GORPUZTU ETA EGITURATU DUGU GUZTION ARTEAN"

MAIDER OTAMENDI, SEKTORE OFIZIALA

esparru naturaletik harago iristeko. Rol hori inportantea izan da, baina egun ez dakit zehazki EAren funtzioa zein den".

EH Bildun jokatu beharreko rolean beti egon da eztabaida, Irizarren esanetan. Hamaikabat sortu zenean ere eman zen eztabaida hori, ezker abertzalera gehiegi hurbiltzen ari zirela argudiatuz. Gero, Hamaikabat gehiegi hurbildu zen EAJra, eta hor urtu zen. Orain niri sortzen zaidan galdera da: ez da urtu behar Eusko Alkartasuna? Zein da gaur egun egin dezakeen ekarpen espezifikoa eta berak bakarrik egin dezakeena? Horrendako erantzunik ez daukat. Alderdi baten desagerpena gogorra egiten da, baina EAk galdera hori planteatu beharko luke. Badauka zentzurik guk segitzeak? Hala uste badute, zilegi da, eta jarraitu dezatela. Baina espazio politikoa kontuan hartuta, ez diot proiektu propiorik ikusten", gaineratu du.

Xabier Letona kazetari arrasatearrak ere, hein batean, hala uste du. Geroz eta zalantza handiagokoa da hor EAk ze funtzio betetzen duen EH Bildun. Ikusten da barruan ere oraindik eztabaidatu behar dutela alderdiaren misioa zein den koalizioan. Ez da erraza alderdiaren etorkizuna zein izango den jakitea".

Halaber, uste du EA indarra galduz doala. "Sorreran indar handia eduki bazuen ere, etengabe indarra galtzen joan dela esango nuke, nahiz eta lehenengo hamarkadan eutsi zion txukun. Azken hamarkadetan indarra galtzen doa apurka-apurka, eta argi dago batzuek alderdi moduan berpiztea gura dutela. EAk ikuspegi sozialdemokrata ordezkatu gura du, eta gaur egun sozialdemokrazia hainbat alderditan banatu daiteke Euskal Herrian".

"ESTATUTUAK EZIN DIRA BIHURRITU, ONARTEZINA DA"

"ATZEKO ATETIK HARTUKO DU KARGUA EBA BLANCOK"

"EA-REN AHOTSA INDARTU EGIN BEHAR DA EH BILDUN"

ESTHER LARRAÑAGA, SEKTORE KRITIKOA

Euskal preso adinduen egoera salatzekeo martxa

Debabarrena eta Debagoiena batuko dituen bizikleta martxa deitu du Sarek etziko, Elgoibarren hasi eta Oñatin bukatuko dena, euskal preso adinduek bizi duten egoera salatzekeo; Joseba Arregi oñatiarra da egoera horretan dagoenetako bat, 73 urterekin

Eneko Azurmendi OÑATI

Pasa den astean egin zuten ekimenaren aurkezpena, Oñatin. Sarek azaldu duenez, eskualde bakoitzean 70 urte baino gehiago dituen preso bana dago espetxean: 76 urte dituen Sebas Etxaniz elgoibartarra eta 73 urte dituen eta Alacanten preso dagoen Joseba Arregi oñatiarra. Aurreikusitako zigorrak betez gero, biak ere 81 urterekin irtingo dira kartzelatik.

Sarek salatzen du biak oraindik espetxean egotea legediak dioenaren kontra joatea dela. "Bi presoek, 70 urte baino gehiago izanik, kalean beharko lukete, hala zehazten baitu legediak. Baina agerian geratzen da politika hau mendekuan soilik oinarritzen dela eta egun bizi dugun egoeratik urrun dagoela", azaldu du Sareko kide Aitor Arantzabalek.

Sareko ordezkariak gaineratu dute euskal presoek zati handi batek dituen zigorren handitasuna dela eta, adinduak diren

presoek kopuruak gora egingo duela, batez ere salbuespen neurriek indarrean jarraitzen badute. Era berean, adinak presoek senideei ere eragiten diela nabarmendu gura izan dute. "Adinean gora egiten duten senideek espetxean ehunka kilometrora familiartekoa ikusteko aukera galdu dezakete, adinak dakartzan zailtasunengatik, distantzia luzeak egiteko eragozpen fisikoak direla eta. Egoera honek senideak zigortzen ditu, bereziki", dio.

Herriguneetan barrena

Domekarako antolatu duten bizikleta martxari dagokionez, Elgoibarren hasiko da, 10:00etan, eta Oñatin bukatuko da, ekitaldi batekin. "Elgoibarko plazan

SAREK OHARTARAZI DU GAUR BUKATUKO DELA IZENA EMATEKO EPEA, ANTOLAKUNTZA ARAZOAK EKIDITEKO

batuko gara. Ondoren, Maltzagatik, Sorraluze eta Osintxu zeharkatuko ditugu, herrigunetik. Gero, Bergaran, hamaiketako txiki bat egingo dugu. Zubillagatik ere pasatuko gara, eta azkenik, Oñatira helduko gara", azaldu du Arantzabalek.

Martxa 13:00 aldera bukatzea aurreikusten dute, eta bukatzean, Oñatiko plazan ekitaldia egingo dute. Ekitaldi horretan parte hartuko du, besteak beste, Sareko eledun Joseba Azkarragak. Antolatzaileek zehaztu dute martxan parte hartzeko zerrendetan izena emateko aukera dagoela oraindik ere, ohiko tokietan, eta parte-hartzaileek kaskoa eta petoa eroan beharko dute. "Izen-ematea martxa onean doa, eta aurreikusten dugu 100 bat pertsonak egingo dutela Elgoibartik Oñatirako bidea. Oraindik ere izena eman nahi duenari eskertuko genioke gaur, egubakoitza, egin dezala, berandueenez. Hala, gauzak antolatzekeo errazagoa izango da guretzat".



Pasa den astean aurkeztu zuten ekimena, Oñatiko plazan. TXOMIN MADINA



Domekan Aretxabaletako saihebidetan istripua izan zuten bi autoak, talka egin ostean. GOIENA

Istripu larrian zauritutako laurek "hobera" egin dute

Domeka arratsaldean Aretxabaletako saihebidetan bi autoak izandako istripuan, 64 urteko Azkoitiko gizonezko bat hil zen. Lau pertsona ere zauritu ziren; guztiek jarraitzen dute ospitalean, baina datozen orduetan horietako bik ospitalea utziko dute

Maialen Santos DEBAGOIENA

Pasa den domeka arratsaldean, 19:00 aldera jazo zen ezbehar larria, Gi-627 errepidean, Aretxabaletako saihebidetan, Arrasaterako noranzkoan eta Eskoriatzarako noranzkoan zihoazen bi autoak –Seat Cordoba bat eta Ford Transit bat, hurrenez hurren– aurrez aurre elkar jota. Lehenengo autoaren gidaria autoan harrapatuta geratu zen, eta kanpora atera zutenean hilda zegoela baieztatu zuen medikuak, oraindik argitu gabeko arrazoiengatik.

Ezbeharrean, hartaz gain, lau pertsona ere zauritu ziren: larritasun-maila ezberdineko zauriekin eraman zituzten laurak inguruko ospitaleetara.

Kalte pertsonalak ez ezik, materialak ere ugari izan ziren bi autoetan.

Ospitalean oraindik

Hildako gizonezko azkoitiarra gidatzen zihoan istripua gertatu zenean, eta haren ondoan zihoan bere bikotekidea. Emakumea Txagorritxuko ospitalera eraman zuten istripuaren ostean, eta

oraindik bertan jarraitzen du, zaurietatik erreperatzen, GOIENAK jakin duenez.

Istripuan izandako beste autoan, Leintz Gatzagako hiru bizilagun zihoazen, familia bereko hiru kide; 14 urteko alaba eta haren gurasoak, hain zuzen ere. Gizonezkoa zihoan gidari, bikotekidea alboan zuela. Alaba, berriz, autoaren atzeko aldean zegoen eserita. Hirurak zauritu ziren eta anbulantzian eraman zituzten Gasteizko erietxe ezberdinetara, larritasun-maila ezberdineko zauriengatik: ama

eta alaba, Txagorritxura eroan zituzten; eta aita, berriz, Santiagoko ospitalera.

Familiaren gertukoek adierazi dutenez, hirurek jarraitzen dute ospitalean, baina emakumeak izan zituen zauririk larrienak. Are gehiago, zaintza bereziak jasotzen ari da oraindik, eta hiru ebakuntza egin dizkio dagoeneko. Horietako bi domekan eta astelehenean egin zizkioten –hesteetan izandako zauriengatik– eta azkena atzo, eguena, apurtuta zuen femurraren eraginez.

Alabak eta aitak, biek ala biek ere izan zituzten hezurretako hausturak istripuaren eraginez: gazteak tibia apurtu zuen eta aitak, aldiz, peronea. Hala ere, amak ez bezala, aita-alabek ez dute zaintza berezien beharrik izan azken egunetan.

Edozelan ere, zaurietatik erreperatzen ari dira oraindik, baina familiaren gertukoek GOIENARI adierazi diotenez, datozen orduetan ospitalea uztea espero dute, egonkorrago dauden heinean, erreperazioarekin etxean jarraitu ahal dezaten.

Ikerketa, abian

Domekan jazotako ezbeharrean inguruko ikerketa abian du Ertzaintzak, eta lekuko bila dabil orain; inork istripuaren inguruko informaziorik izanez gero telefono honetara dei egin dezala eskatu dute: 943 53 91 25.

Istripu larri gehiago

Domekakoa ez da izan Gi-627 errepidean, Aretxabaletako saihebidetan, istripu bat gertatu den lehen aldia. Azken urteetan hainbat izan dira puntu horretan gertatutako ezbeharrik, eta horietako asko larriak izan

dira –hildakoak eta larri zauritutakoak utzi baitituzte–.

Duela zortzi urte, 2011ko uztailean izandako istripuan bi gizonezko hil ziren, gidatzen zihoazen autoek aurrez aurre elkar jota. Eskoriatzako eta Arrasateko bizilagunak ziren.

2016ko urtarrilaren 6an, noranzko ezberdinetan zihoazen bi autoak aurrez aurre egin zuten talka. Bi autoetako gidariak harrapatuta geratu ziren, eta horietako bat larri zaurituta eraman zuten erietxera.

Bestalde, duela bi urte, 2017ko azaroaren 12an beste istripu bat gertatu zen errepide berean, baina kilometro bateko tartean. Aretxabaletako hegoaldeko sarreran bi autoak talka egin zuten, eta auto baten barruan harrapatuta geratu zen lagun bat.

2018ko urtarrilaren 4an, Aretxabaletako saihebidetan sarreko noranzkoan, Arrasateko autobus batek aurrez aurre talka egin zuten orduan, eta motorraren eta autobusaren gidariak, biak, hil egin ziren istripu larriaren ondorioz.

Azkenik, urte bereko, 2018ko, abuztuan ere motor gidari bat hil zen errepide berean. Eskoriatzatik Aretxabaletara sartzera zihoan auto bat, eta Arrasatekin zetozen motorrarekin talka egin zuen. Motor gidaria larri eraman zuten Donostiako ospitalera, helikopteroz, baina, azkenean, hil egin zen.

FAMILIA BEREKO HIRU KIDE ETA HILDAKO GIZONAREN ALBOAN ZIHOAN EMAKUMEA DIRA ZAURITUAK

Mondragon Unibertsitatean objektu tradizionalak ikusgai

'Hau' Euskal Herriko objektu tradizionalen diseinu lehiaketa irabazi dute unibertsitateko hiru ikasleak

Maialen Santos ARRASATE

Euskal kulturaren objektu tradizional baten diseinua eguneratzea izan da lehiaketaren helburua. Edizio bakoitzean euskal kulturaren objektu tradizional bat aukeratzen da, eta aurten,

zizeilu bat berraztertzea izan dute zeregin. Hirugarrenez egin dute lehiaketa, eta Goi Eskola Politeknikoko Industria Diseinuko eta Produktu Garapeneko Ingeniaritza Graduako ikasleek irabazi dute: Uxue Ariztimuñok,

Amaia Baztarrikak eta Olatz Mandiolak aurkeztutako *Zura* proiektua izan da onena.

Alde batetik, ikerketa sustatzea du helburu lehiaketak, eta bestetik, objektu tradizionalak egokitu, berritu eta berrinterpretatzea, betiere diseinu garaikidearen begiradatik.

Hau 2019 diseinu lehiaketaren hirugarren edizioeko lanak ikusgai egongo dira Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko lehen eraikinean, azaroaren 22ra bitartean.



Hau 2019 diseinu lehiaketako irabazleak. GOIENA

Hamasei astera arteko aitatasun-baimena

Hamasei astera arte luzatu ahal izango da datorren azaroaren 1etik aurrera. Hala, egun indarrean dagoen zortzi asteko aitatasun-baimenari beste zortzi aste gehitzeko aukera izango dute seme-alabak oraindik jaiotzeko dituztenek

Maialen Santos DEBAGOIENA

Astebete barru, azaroaren 1arekin batera sartuko da indarrean aitatasun-baimenari dagokion neurri berria. Egun, zortzi asteko baimenaz gozatzeko aukera dute seme-alabaren bat izan dutenek, baina azarotik aurrera jaiotzen diren haurren aitek denbora bikoitza izango dute iritsi berriaren zaintzari eskaintzeko –hala nahi izanez gero–. Gizarte Segurantzak ordaintzen dizkie zortzi aste horiek aitei, eta beraz, neurri berria indarrean sartzean Eusko Jaurlaritzak bere gain hartuko du aitaren soldataren ordainketa; luzapeneke zortzi asteetan soldataren %100 ordainduko zaio.

Neurri berriari esker, guraso biek, amak eta aitak, baimen bera izango dute denborari dagokionez; hamasei aste bakoitzak. Hala eta guztiz ere, neurri berriarekin ez da derrigorrezkoa izango baimena zortzi astez luzatzea, gutxiago eskatzea ere posible izango delako.

Gurasoek, bestalde, ezin izango dute biek batera baimenaz gozatu; lanera joan behar ez duenak jaioberriaren zaintzak bere gain hartuko dituela ziurtatzeko neurria da hau.

Bestalde, denbora tarte ezberdinetan, tartekatuta, hartu ahal izango da baimena, ez baita derrigorrezkoa izango zortzi asteak jarraian eskatzea. Edonola ere, seme edo alabak urtebete egin arteko tartean agortu ahal izango dira eskatutako asteak; ez, ordea, haurrak urtebete egin eta gerora.

Euskal Autonomia Erkidegoa izango da neurria aldatzen lehena; Madrilen, esaterako, aitek gehienez 12 aste hartu ahal izango dituzte urtariletik aurrera.

Eusko Jaurlaritzak urtebete darama familiak laguntzeko asmoarekin neurri berria gartzan, eta asteon onartu du, azkenean, aitatasun-baimenaren



liño Mendia eta Amaia Txintxurreta, Gari semearekin. MIREN IBABE

AMAK ETA AITAK, BAKOITZAK HAMASEI ASTE HARTU AHAL IZANGO DITU; BIEK BATERA EZ, ORDEA

luzapena. Neurri hau posible egiteko, 25 milioi euro bideratu ditu Eusko Jaurlaritzak.

Bete beharrekoak

Aitatasun-baimena gehienez ere hamasei astera arte luzatzeko baldintza zehatz batzuk bete beharko dira. Esaterako, haurra haurtzaindegira eramaten dutenek ezin izango dute aitatasun-baimena luzatu. Horretaz gain, bikotekidearen lan jardunak ere izango du zeresanik. Izan ere, bikotekidea jardun erdira lanean dutenek ere ezin izango dute baimena luzatu. Autonomoki lan egiten dutenen kasuak ere berezitasunak izango ditu; autonomoak baimena hartu dezan, beste pertsona bat kontratatu behar izango du bere lana betetzeko, berak haurraren zaintzaz arduratzeko baimena hartu dezan. Azkenik, etxeko langilea

duten familiek posible izango dute hamasei asteko baimena hartzea: ez da oztopo izango etxerako lanetarako norbait kontratatua izatea. Halere, funtzionarioek ez dituzte aipatutako baldintzak bete beharko, irailaren 1az geroztik ari baitira baimen osoaz gozaten. Nagore Ojanguren elgetarraren aburuz, baldintzak zeintzuk diren ezagutzea "garrantzitsua" da; izan ere, haren ustez, ez da "hain erraza" guztiak betetzea. Edonola ere, berak eta bikotekideak baimena eskatzea erabaki dute: "Neurri berria ondo datorkigu. Haurra ez dugu haurtzaindegira eramango; beraz, ni lanean hastean aitak zaindu beharko du semea". Gaineratu duenez, neurriak "abantaila asko" ekarriko dizkie zenbaiti.

Nola eskatu

Azaroaren 1etik aurrera jaioko diren aitek eskatu ahal izango dute hamasei asteko baimena, egun horretatik aurrera. Informazioa zein laguntzak *Zuzenean* bulegoetan eskatu ahal izango dira –Donostiako Andia kalean–, edota www.euskadi.eus/familia webgunean.



Beatriz Artolazabal eta Bixente Atxa emaitzak aurkezten. MONDRAGON UNIBERTSITATEA

Mondragon Unibertsitateak okupazio-tasa "altuak" ditu

Unibertsitatean duela lau urte titulaturako ikasleen okupazio-tasa %97koa da; azken urteetako altuena

M.S. DEBAGOIENA

Eusko Jaurlaritzaren Euskal Enplegu Zerbitzuak (Lanbide) 2015ean Mondragon Unibertsitatearen sustapenari buruz egin-dako azken laneratze-inkestaren arabera, 2015eko promozio-ko tituludunen %90ek lan egiten dute, eta %7k prestakuntza jasotzen jarraitzen dute. Promozio horretako kideen %3 bakarrik daude langabezian. Enplegu-tasa, gainera, handiagoa da emakumeetan (%93,5). Inkesta berak ondorioztatu duenez, gazteen %88k euren unibertsitate-prestakuntzarekin bat datorren enplegua dute egun.

Lan-munduan sartzeko inkesta 2018an egin zuen Lanbidek, duela lau urte titulaturako 700 ikasleren artean. Emaitzak, hala ere, asteon aurkeztu dituzte. Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak adiera-

zi duenez, prestakuntza, hizkuntza, espezializazioa, talde-lana eta halako "gaitasunen sustapena" funtsezkoak dira enplegu gehiago eta "kalitate handiagokoak" lortzeko. Bixente Atxa Mondragon Unibertsitateko errektoreak azaldu duenez, azken urteetako "emaitzarik altuenak" dira, eta enplegu-tasa oso altua erakusten dute: "Enpresen eta erakundeen benetako premiei eta prestakuntza praktikoari zuzendutako azterlan batzuen emaitza da". Gaineratu duenez, ikasleak enprekin elkarlanean aritzeak enplegua lortzeko bidea "errazten" die, gainera.

%84, Euskadin lanean

Tituludunen %84 Euskal Autonomia Erkidegoan ari dira lanean –%13k soilik egiten dute lan EAetik kanpo–. Lanaldi osoan ari diren batez besteko soldata garbia 1.625 eurokoa da.

Urriaren 26an izango da Debagoieneko Erle Eguna, Bergaran

Bergarako San Martin Agirre plazan eramango dituzte aurrera egunerako antolatu dituzten ekintzak. Erlearen munduaren inguruko azoka jarriko dute bertan, eta eztiarekin egindako produktuak izango dira nagusi. Eta erlategira bisita gidatuak egingo dituzte; bertara joan nahi duenak aurrez izena eman beharko du turismo@debagoiena.eus

helbide elektronikoan edota 943 79 64 63 telefonora deituta. Eguerdian, gainera, bi tailer egiteko aukera izango da: bata haurrei zuzendutakoa izango da, eta txapak eta kandelak egingo dituzte bertan; eta bestea, aldiz, barratxo energetikoak egiten ikasteko baliagarria izango da.

Egitarauari amaiera emateko, Mikela Untsain erlezainak hitzaldia emango du erreginen ekoizpenari buruz. Laboratoriu-men izango da hori, arratsaldeko lauretan.



ZABALIK

HARITZ GALLASTEGI

Erantzun gabe

Bizitzaren legea da. Duela urte batzuk, ikasketak, neskak eta jaiak ziren lagunaren artean gehien jorratzen genituen gaiak. Politikaz berba egitea gehiago kostatzen zitzaigun.

Egun, seme-alaben gaineko kontuek dute pisu handia. Lehentasuna da. Pentsa, sarri askotan, kirol tertuliari aurre hartzen dion gaia da. Eta hori asko da.

Bada, gureak baino haur nagusiagoak dituen lagun batekin kafea hartu izan dudanean behin baino gehiagotan entzundakoaren haritik tira egingo dut oraingoan. "Nagusi batekin berba egiteko premia daukat!", esaten zidan, semearekin ordu luzez egotea egokitu eta elkartzeko ginen bakoitzean. Irribarre txiki bat botatzeaz gain, egoera ez *puzteko* esaten nion nik. Gurasoen artean gauzak esajeratzeko joera oso

"ZERGATIK DIRA BERDE KOLOREKOAK ETXEAN JATEN DITUGUN BARAZKI GEHIENAK?"

zabalduta baitago gaztetxoek kontuak tartean direnean. Aspaldi ez dut laguna ikusi, baina, hurrengo elkartzeko garenean, arrazoia emango diot. Haur bat etorriarekin

dagoenean, ederra bezain gaitza izan daitekeelako bere jakin-mina asetzeari.

Ni, behintzat, nahi eta ezin aritu naiz behin baino gehiagotan. Gazteak nagusiari: "Zergatik ez dira animaliak zebra-bidetik pasatzen?"


Handik denbora gutxira, beste zalantza hau: "Zergatik dira berde kolorekoak etxean jaten ditugun barazki gehienak?"; "Eta zergatik ez dute sokamuturrean harea botatzen?"; "Aizu, zergatik ez daki Yerayk euskaraz"... Ni, mutu. Galdera batzuen erantzuna ez dakidalako eta beste batzuk ganoraz azaltzeko kapaz ez naizelako.

Hasieran, ezintasuna sentitzen nuen. Gerora, egoera behin eta berriz errepikatzen zela konturatu nintzenez, hasi nintzen ulertzen lagunak adierazi gura zidana. Ez da berriz gertatuko. Aurrerantzean ez dut bere esana zalantzan jarriko. Gainera, zigor gisa, nik ordainduko dut hurrengo kafea.

Halaber, gaztetxoek jarrai dezatela nagusiak estu hartzen. Interesa izatea da bidea.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Oinutsik

PILAR KALTZADA

'TTAP'-EN ARGITARATUA

Denetarik dago munduko plazan eta, ulertzekoa denez, badira ugaritasun horretan asko harritzen gaituzten pertsonak, eta batere harritzen ez gaituztenak ere.

Erabat sorginduta, liluratuta, naukatenak beti prest eta beti egoki dauden jende-molde horiek dira.

Nola egiten dute?

Urte sasoi honetan maizago ikusten ditut eta erraz bereizten dira jendarte arruntaren erdian: eguraldia alditua bada ere, beti zuzen eta egoki jantzita joaten dira, zer gerta ere. [...]

Arauk eta arauaren arabera jokatzeko duten pertsonak atsegin ditugu, bizitzak barne-ordena bat duela iradokitzen dutelako. Edertasuna zer den ez badakigu ere, pertsona ederrak, egoera ederrak, amets ederrak edo helburu ederrak bilatzen ditugu, noizbait erdiestera iritsiko garela pentsatzen dugu, ezinezkoa dela jakin arren. Bilatze hutsak *normalak* egiten gaitu, normaren arabera.

Arauari aurre egiten diotenak, berriz, susmagarriak zaizkigu. Desberdinak dira eta begien aurrean jartzen dizkigute geure kontraesanak.

Greta Thunberg arauaren kontra doa: gaztea da boterea kudeatzen duten helduen erdira eraman du bere ahotsa. Emakumea da eta boterea kudeatzen duten gizonen erdian altxatu da. Aspeger sindromea du eta gizarteratzeko zailtasunak ezkatatu eta ukatzera kondenatzen gaituen balizko normaltasunaren erdian argi-fokua bereganatu du.

Arauen kontrakoa da eta Planeta akabatzen ari garela salatzen joan da gure bizitzeko modu jasanezin hau jasagarria izan daitekeela sinestarazi nahi dugu sistemaren erdi-erdira. Putzu erraldoiaren erdian sartu da oinutsik. Bejondeiola.

goiena[™]
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Mireia Larrañaga,
Amala Mundiñano,
Ziortza Martin.
Administrazioa
Ane Bereizbar,
Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooparatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria Aitor Izagirre.

Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendaria komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Arantzazuri balioa ematea garrantzitsua da guretako"

ANGEL REKALDE NABARRALDE FUNDAZIOKO ZUZENDARIA

Aitziber Aranburuzabala OÑATI Arantzazuren garrantzi historikoa nabarmentzen duen *Arantzazu, herriz harri* izeneko dokumentala egin du Nabarralde Fundazioak, Oñatiko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Laboral Kutxak lagunduta. Kultura etxean dagoen zinema aretoan aurkeztuko dute urriaren 29an, martitzena, 19:30ean.

Zerk bultzatuta erabaki zenuten dokumentala egitea?

Memoria-guneen inguruko jardunaldi bat egin genuen iaz Oñatin; memoria-guneak historiaren agertokiak dira eta horietan kontatzen da errelatoa. Euskal Herrian hainbat daude; ezagunenak, akaso, Gernika eta Amaiur, baina Arantzazuk ere pisu handia du, eta ospatzen ari garen urteurrenak dira horren erakusle: batetik, orain dela 50 urte jarri ziren basilikan Oteizak egin eta urteetan bide ertzean botata izan ziren apostoluak, eta bestetik, Euskaltzaindiak



Angel Rekalde, Nabarralderen Iruñeko bulegoan. MIREN MINDEGIA

Arantzazun euskara batua antolatzeke lehen bilkura egin zuela iaz bete ziren 50 urte. **Ze balio du, zuretzat, Arantzazuk?** Asko ditu; nabarmenenak, euskararekin eta artearen iraultzarekin lotutakoak.

Diktadura garaian, Arantzazu, euskal kulturaren babesleku izan zen; baina bestelako esanahi eta balio garrantzitsu asko ere baditu: paisaia, mendizaleen elkargunea, artzaintza, musika...

Aitortzen zaio garrantzi hori?

Hori da daukagun erronka; globalizazioak denak berdintzeko eta ezaugarri partikularrak ezabatzeke joera dauka, eta garrantzia landu egin behar da, eta horretarako, aurretik ezagutu egin behar da.

Zer jasotzen du lanak?

Bereziki, euskararen eta artearen gaietan zentratu gara. Oteiza sakona eta abstraktua da, dokumentala sinpleagoa da, horren guztiorren narrazioa da, hurrengo belaunaldiek izan dezaten horren berri. Hainbat elkarrizketa-pasarte daude: Altzuzako Oteiza Fundazioa Museoko Elena Martinek arte ezaugarriak azaldu ditu, Peio Zabala frantziskotarrak fraideen bizipenak kontatu ditu eta santutegiko zaindaria Juan Ignacio Larreak gaur egungo egoeran kokatu. Adituendako baino gehiago, publiko zabalarendako pentsatuta egindakoa da. **Aurkezpenetan ez ezik, non eskura daiteke dokumentala?** Gure helburua ahalik eta gehien zabaltzea da; hortaz, formatu merkean, USB formatuan, atera dugu; 10 eurotan eros daiteke. *Nabarralde.eus* atarian dituzue gure jardunaren berri eta harremanetarako moduak.

HAU BE BADOGU!

Estilu larriak eta hildakoak Txilen



Herritarren eta poliziaren eta armadaren arteko liskarrek gora egin dute:

@ideiazabald: "Txiletik heltzen diren albisteak gero eta kezagarriagoak dira, armada herritarrek tirokatzen ari da kaleetan, hildakoak gero eta gehiago dira. Hau da neoliberalismo basatiaren benetako aurpegia".

@amets4: "Nola esan dezake Piñerak umiltasunez jasotzen duela txiletarren mezu 15 hildako eta 5.400 atxiloturen arrastoa utzi ondoren? #Txile".

Sare sozialak, Kataluniara begira

Asteon ere, Katalunia izan da berbagai nagusia sare sozialetan, eta **#SpainSitAndTalk** traola **trending topic** mundu mailan: **@xmeabe:** "Dantzatzten duen herria ez da sekula hilko. Katalunia, gatazkaren erdian dantzan".

@matalaz: "Katalunia gaur ikustea Euskal Herria orain dala hamarkadak ikustea legez da".

@IBastarrika: **#SpainSitAndTalk** aurrera Katalunia!

'#Altsasu', traola erabiliena

Azken hilabeteen, txiolari euskaldunen artean, traolari erabiliena izan da. Zapatuan, preso dauden gazteen aldeko bizikleta martxa egingo dute, gainera, Altsasutik Iruñera.

@altsasugurasoak: "Urriaren 26an "Duintasunaren martxa" burutuko dugu. Altsasutik Iruñera txirringulaz egingo dugu bidea, bazkaria Berriozarren eta 17:00etan elkarretaratzean bukatu".

@contadoraltsasu: "Altsasuko gazteek 1.073 egun daramatzate kartzelan".

ITURRI ONETIK

Zarzuela, gossela, trikitia eta popa Amaia antzokian

Arrasateko Udalak gertu dauka abendura arteko kultura gida. Musikari dagokionez, besteak beste, izango dira: azaroaren 8an, Mundukideren 20. urteurreneko kontzertu solidarioa, Taano gospel talde ugandarrarekin; azaroaren 23an, 24an, 29an eta 30ean, *El duo de la africana* zarzuela; abenduaren 17rako, gala liriko antolatuko du Ozenkik; AMAK trikitilariak izango dira abenduaren 23an; eta urtarrilaren 25erako, Nogen iragarri dute. Guztiak, Amaia antzokian.

ALBISTE IZAN ZEN

2009-10-14

'Teknopolis' saioak, Europa mailako saria

Elhuyar Fundazioak ETBrako ekoizten duen *Teknopolis* saioak zientzia-dibulgazioaren Europako telebista-programa onenaren saria jaso zuen, European Science Foundation-ek antolatutako European Media Awards 2009 sariketean. Zuzendaria eta aurkezlea Mainer Egues mondragoetarra zen, eta Beñardo Kortabarría antzuolarra erredaktorea. Itziar Nogueiras fundazioko zuzendari nagusiarekin batera jaso zuten saria, Hannoverren (Alemania).





DEBAGOIENA ERALDATZEN

AMAIA ETXABE ETA ONINTZA LEGORBURU TXATXILIPURDI ETA EMUN

Entzutetik eraldaketarako gakoak ezagutzen

Xabier Madariaga kazetariak gidatzen duen *Ur Handitan* saioa izan genuen beste aste batez ETB1en astearte gauean. Aste honetako programa Aralarko artzain gazteei –edo geratzen diren artzainei– eskainia izan zen. Besteak beste, hiru artzain gazteren bizipen eta bizimodua jaso zituen programak. Artzainen lana, erreleboa, emakume artzainen papera, lasaitasuna, lan baldintzak, bakardadea, pistak –nola ez... gaitzat hartuz. Artzain gazte horien artean, programak bereziki fokua bati jarri zion: 19 urteko neska gazte ataundarrari, Aiorari. Neska argia. Hizketan ere, mingainpekorik gabe egiten zuena. Aiorak Jeronimo artzain nagusiagoaren alboan izan du beti artzain-txabola, eta gaztearen hitzetan, odol berdinek ez izan arren, familiakoak lirerateki bi artzainak. Programak aurrera egin ahala, Xabier Madariagak Aiora nolakoa zen galdegin zion Jeronimori. Honek, hiruzpalau adjektibo aipatu ostean, ondoko esaldia botatu zuen: "Aitzen dakina! Ta hori garrantzitsue da".

Aralarko mendietan, beraz, eta Jeronimo artzainaren arabera, "aitzen" jakitea ezinbestekoa da. Eta guretzat? Informazioaren eta hiperkomunikazioaren aroan bizi garenontzat? Jeronimok baino *whatsapp*, *telegram mezu*, *e-mail*, *tuit* eta *instaistory* gehiago jaso eta bidaltzen ditugunontzat, zenbaterainoko garrantzitsua da entzutea?

Guk oraindik ere beti konektatuta eta komunikatuta gauden garai honetan, sinesten dugu entzutearen indarrean. Eta esanenezake horretan gabiltzala Debagoiena 2030 egitasmoaren baitan.

Entzun, eraldatzeko

Debagoiena 2030 eskualdearen eraldaketa helburu duen sarea

da. Hainbat eragilek, enpresak, elkartek, administrazio publikok eta norbanakok osatzen dugu. Eraldaketarako gakoak ezagutzeko, eta aldaketarako palanka izan litezkeenak identifikatzeko, berrikuntza sozialean oinarritutako metodologia bat darabilgu. Baina berrikuntza sozialak asko dauka lehendik ondo egiten zena –moduak berrikusita– egitetik. Bada, eraldaketarako gako horiek ezagutzeko, lehenengo eta behin, entzun egiten dugu. Sakoneko elkarrizketak dira entzute horren oinarrian erabiltzen ditugun tresnak. Elkarrizketa hauek ordu eta erdi inguruko iraupena izaten dute. Urtarrietik gaurdaino, 113 pertsona elkarrizketatu ditugu; jatorri, klase sozial, adin, lan eremu, sexu, genero... ezberdinetakoak. Honetaz gain, zortzi eztabaida talde egin ditugu, eta baita elkarrizketen bidez lortutako informazioa kontrastatzea helburu duten lau saio ere.

Lan honetan dozena bat elkarrizketatzaile gabiltzala –Txatxilipurdikoak, EMUNekoak eta MUkoak–. Elkarrizketen helburua Debagoieneko behar eta erronka nagusiak identifikatzea da. Azken finean, goian aipatutako eraldaketa hori sortzeko, sakatu beharreko tekla egokiak identifikatzea.

Denek dute zer kontatu

Gaur-gaurkoz, eta 113 elkarrizketa egin ostean, esanenezake elkarrizketatuek dituzten kezka, behar eta erronkak kalean nahiko presente daudela. Hau da, ez dugu ezer deskubritu. Baina

KONEKTATUTA GAUDEN GARAI HONETAN, SINESTEN DUGU ENTZUTEAREN INDARREAN



MARKEL ARRAYAGO / GIMK

ordu eta erdi pertsona batekin egotearen poderioz, pertsona horrek gai konplexu baten aurrean daukan jarrera eta ikuspuntua ulertzen saiatu gara. Horrela, mugikortasunaren edo garraio publiko sare baten egoera prisma ezberdinetatik ikusi ahal izan dugu. Kultur aniztasun eta arrazakeriaren gaia talaia ezberdinetatik bizi ahal izan dugu. Entzun ditugu gazteek nagusiagoekiko dituzten kezak, baita zaharagoek gazteagoekiko dituztenak ere. Erretirora iritsi eta bilobak zaintzeaz nazkatuta dauden aitona-amonak –egiari zor, amona gehiago–. Pentsio duinagoen alde etengabe borrokan dihardutenak, inoiz baino

ELKARRIZKETEN HELBURUA DA DEBAGOIENKO ERRONKA NAGUSIAK IDENTIFIKATZEA

biziago sentitzen diren adineko pertsonak. Egunerokoan ingurukoengan –gugan–, etengabeko jarrera arrazistak bizi dituen migrantea. Erlajioa guk ulertzen ez dugun modu batera bizi duen amona. Gure basoek lo-orduak kentzen dizkioten gaztea. Segurtasunik ezak eta drogen kontsumoak gora egin duela urduri eta beldurtuta baieztatzen duen ama. Bere sorterrria Espainian orain dela 50 urte utzi zuen andaluziarra, eta jaioterriari buruz hitz egitean oraindik ere emozioztatzen dena. Euskararen erabileraren jaitsieraz kezkatuta daudenak. Eta horren normalizazioa inposiziotik bizi dutenak. Lehenengo sektorearen

DENON ARTEAN DISEINATU ETA ERAMAN BEHARKO DITUGU AURRERA PROIEKTUAK

etorkizunaz kezkatuta daudenak, edo industriarenagatik, edota herrietako denda txikien itxiera antsietatez bizi dutenak. Eta erosketa guztiak Amazonen egiten dituztenak, herrietako dendetako prezioez kezu. Kontziliatzeko neurri duinengatik lantokian borrokan ari dena –sarri, emakumea–, eta kontrara, kontziliazioaren kontua etxean argitu behar dela dioen arduraduna. Edota hezkuntzaren baitako sarean gatazka –ikastola vs publikoa– min izugarri bizi dutenak. Edo gaur-gaurkoz, *bullying* homofobikoa eskolan jaso duten homosexualen hitzak.

Beraz, guztiz harrizkeko kontu nabarmenik entzun ez arren, hau da, formula magikorik deskubritu ez arren, jendea entzuten gabiltzala –saiatzen, bederen–. Eta konturatu gara pertsona orok daukala kontatzeko zerbait. Eta jendeak badaukala entzuna izateko gogoia, jendea pare pare zabaltzen baita.

Orain, beste bi urtean, behintzat, beste horrenbeste elkarrizketa egitea dagokigu guri, ahalik eta informazio gehien lortu eta berau xehe-xehe aztertzeko. Entzuten jarraitzea dagokigu, eta zuei berrikeretan egiten segitea.

Horren ondoren, elkarrizketetatik irten diren erronkak identifikatu, eta aldaketarako gakoak detektatutakoan, planteatzen diren arazoan neurriko erantzunak bilatzen saiatzea dagokigu. Eta ez da hori ere lan makala izango. Kezka eta behar ezberdinei erantzuteko, denon artean diseinatu eta aurrera eraman beharko ditugu proiektu ezberdinak. Ez daukagu dudarik lortuko dugula. Euskal Herrian oro har, eta gurean bereziki, egiteari beldurrik ez diogu –izan– eta!

Mailukak eta mugikorrak

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Wifia, haririk gabeko telefonoak, antenak, argindar lineak, transformadoreak, eta abar.

Jakin beharko genuke uhinen kutsadura elektromagnetikoak kalte eragiten digula denoi; izan ere, beharbada, batzuek burua hain gogorra edukiko dute, mailukada bat emanda ere ez direla konturatuko, baina haiek ere gaixotu ditzake kutsadura mota honek.

Hain zuzen ere, hona hemen aurten Aragoiko Epategiak esandakoa: Joakin Sanz langile elektrosentsibleak lanean sufritutakoa ez dela gaixotasun arrunta, baizik eta lan istripua.

Hau da, mailukadak hartzeak bezala, eragin zuzena dauka gizon horrek lantokian duen kutsadura mota horren mailak.

Nire aholkua honako hauxe da: kutsadura elektromagnetikoa sortzen duten puntuetatik urrundu; batez ere, logeletan, zentimetro batzuk nahikoa izaten dira kutsadura maila erdira jaisteko.

Non dago etika?

PITER ENCINAS

ARRASATE

Señores diputados la situación es extremadamente grave... Como primer punto del orden del día, actualizaremos nuestros sueldos... –La Polla Records taldearen abesti baten zati bat da hori-. *Uste dut hemen zinegotzi hitza sar litekeela.*

Joan zen legealdiaren hasieran, Maria

Ubarretxenak –Arrasateko alkatea– bere soldata igo zuen –65.000 eurora–, eta legealdi berri honetan gauza berbera egin du, berriro ere bere soldata igo du –orain, 66.467 eurora–, baina, hori gutxi izango balitz bezala, bere zinegotzi liberatuen ordainsaria %20 igotzea erabaki dute. KPI igo dena; *ironia* da.

Alde batetik, politikara sartzen garenok herriaren alde lan egiteko izan behar du, eta ez aberasteko.

Aldi berean, onartezina da izugarritzko soldata edukitzea eta bitartean herriko biztanle askok jateko ez edukitzea.

Herritar askok energia-krisia jasaten dutela ahazten duzu.

Arrasateko langabeziaren tasa %11koa dela?

Zenbat herritar daude ezkutuko ekonomian lan egiten?

Bestalde, herritar askok erabaki horiek ikusi eta gero esaten dute politikariok *kasta* bihurtzen garela; normala.

"Politikan sartu dira hobeto bizitzeko" entzuterakoan, arrazoia eman behar diegu?

Ondo ikusten dut pertsona batek 4.000 euroko soldata izango balu, politikan sartzera bere erosahalmena ez galtzea, baina irtenbide bat topa daiteke: langile baten soldata jarri –1.500 eta 2.000 euro artean– eta falta dena bere alderdi politikoak jar dezala. Izan ere, zergatik irten behar du herriaren dirutik?

Jakin badakit Eudelek arauak eta soldataren topeak jartzen dituela; horrexegatik, legala da, baina, organigrama eta kideen afiliazio politika ikusiz gero, *tranpa hutsa* dela pentsatzen dut,

partidua jokatzen baituelako, baina, epaileak etzekoen aldekoak izanez, hortik nire galdera: non dago etika?

P.D.: EH Bilduko liberazioari buruz, legeak hauxe dio: boto gehien lortzen duen oposizioko alderdi politikoak liberatu bat edukitzeko eskubidea dauka. Beste kontu bat da soldata zenbatekoa izan beharko litzatekeen, baina, horretarako, alkateak ahalmen osoa dauka erabakitzeko.

Errespetua

MIREN AGURTZANE TOLEDO SARALEGI (IZARRE)

ANTZUOLA

Antzuolako Udalari eskatzen diot, nire eta nire familiaren izenean, *errespetu* hitza aztertzeko.

Aldez aurretik, mila esker.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



Arantza Gonzalez, Ikram Bouzalmat, Javier Canibell eta Elena Valverde, migrazioaren gaineko hitzaldian. IMANOL SORIANO

Migrazioa eta harrera sarea hizpide Kulturaten

Ikram Bouzalmat-ek bere esperientziaren berri eman du migratzaile gisa eta CEAR-Euskadiko ordezkariak azaldu dute erakundeak migratzaileak nola kudeatzen dituen. Gaiari buruzko azken datuak eta zenbait adibide aipatu dira hitzaldian

Maialen Regueiro ARRASATE

Debagoieneko Ezker Kultur Guneak antolatuta, migrazioa eta harrera sarea izan ziren hizpide eguzten arratsaldean Kulturaten. Gai hori jorrazteko, gainera, hainbat hizlari izan ziren: Ikram Bouzalmat marokoarra, migratzaile gisa; Javier Canibell eta Elena Valverde, CEAR-Euskadi erakundetik; eta Arantza Gonzalez, Elkarrekin Gipuzkoatik.

CEAR-Euskadi

CEAR-Euskadiko ordezkariak azaldu zuten erakundeak nola kudeatzen dituen migratzaileak. Javier Canibell arlo juridikoaz arduratzen da erakundeak, eta horren berri eman zuen: "2009an onartu zen asiloari dagokion legea, baina oraindik ez da lege horren garapenik egin. Horregatik, erakundeak, zaharkituta dagoen araudian oinarritzen gara". Elena Valverdek, berriz, erakundeak harrerarako zein prozedura jarraitzen duten azal-

du zuen: "Asilo eskaera egiten duten pertsonen harrera egiteko, beraien egoera zein den aztertzen dugu, non gehienetan zailtasun asko aurkitzen ditugun". Horrez gain, Valverdek aipatu zuen CEAR-Euskadik 200 etxebizitza inguru dituela.

Ikram Bouzalmat

Ikram Bouzalmat Arrasaten bizi den gazte marokoarra da eta eguzteneko hitzaldian bere esperientzia pertsonalaren berri eman zuen. Bouzalmatek zera esan zuen: "Migrazioaren gaia, zoritxarrez, arazo gisa aurkezten da gizarteak, baina azpimarratu nahi dut inork ez duela bere herrialdea uzten nahi duelako; askotan, ez da beste aukerarik

URRIAREN 28RA ARTE EGONGO DA IKUSGAI GAI HORRI BURUZKO ERAKUSKETA, ALDAI KALEKO LOKALEAN

egoten. Azken batean, egun batetik bestera guztia utzi eta eza gutzen ez duzun beste toki batera joatea ez da erraza". Horrez gain, Bouzalmat arrasatearrekiko nola sentitu izan den azaldu zuen: "Hainbat herritarrek integratzen ez garela eta beloaren erabilera aurpegiatuta izan didate, eta horrelako iruzkinak nondik natorren gogorarazten didate".

Datuak eta adibideak

Arantza Gonzalezek, berriz, migrazioari dagozkion hainbat datu eta, besteak beste, *Open Arms* eta *Aita Mari* izan zituen hizpide. Horrez gain, egoera honen arrazoien jatorriaz ere mintzatu zen, eta "kapitalismoa eta enpresa multinazionalen interesak" aipatu zituen.

Erakusketa

Urriaren 28ra arte dago ikusgai lau erakundeek gai horri buruz osatu duten erakusketa, Aldai kaleko 9. zenbakian.

Udala, karbonoa gutxitzea helburu duen proiektuaren parte

Interreg Europe programaren SHREC proiektuan arituko da Udala, Europako zazpi erakunderekin batera

M.R. ARRASATE

Energia berriztagarriantza aurrera egitea karbono gutxiagoko eredu energetiko batera igarotzeko proiektua da SHREC, eta Arrasateko Udala bazkide izango da, Europako zazpi erakunderekin batera –Frantziako, Italiako eta Lituaniako erakundeak–. Lau urtean garatuko den proiektu honek bi helburu nagusi ditu: batetik, nazioko eta eskualdeko politikak hobetzea energia-iturri berriztagarrien kuota handitzeko, eta bestetik, energia-iturri berriztagarrien

ekoizpena eta kontsumo sustatzea eta erraztea enpresa eta etxeetan.

Proiektuaren aurrekontua 1.844.165 eurokoa da eta hortik 164.448 euro Arrasateko Udalari dagozkie. Modu horretan, Udalaren esanetan, proiektu honek hainbat ekarpen egingo dizkio herriari: "Hiri-espazioak eta herritarren bizi-kalitatea hobetzea eta herritarrek, eragile sozialak, ekonomikoak eta kulturalak klima-aldaketaren ondorioez jabetzeko informazio-kanpaina bat abian jartzea, besteak beste".

Bederatzi diseinu aukeran herritarren erabakiaren zain

Bederatzi diseinuren artean aukeratu beharko dute arrasatearrek, Gesalibarko jolas parkearen itxura

M.R. ARRASATE

Gesalibarko jolas parkearen diseinua aukeratzeko lehiaketara aurkeztutako bederatzi diseinu daude eta herritarrek urriaren 30era arte izango dute, beraien botoaren bitartez, erabakitzeko aukera.

Botoa BAZen, Gesalibarko auzo alkatetzan eta www.arrasate.eus atarian eman daiteke eta diseinu irabazleak 300 euro jasoko ditu.

Gai honen harira, EH Bilduk etsipena adierazi du: "Jolastokia ikuspegi pedagogiko eta ludiko

aurreratu batetik gaurkotzeko aukera galtzera goaz". Eta honakoa gehitu du: "Lau urte darrazatzen EAJ eta PSEE taldeei parkeak berrizteko prozedura, administratiboak abiarazi aurretik haurrekin lan egiten duten profesionalen eta teknikarien iritzia aintzat har ditzala eskatzen, baina negarren aldiz, ikuspegi erabat urbanistiko eta estetikoak jo dute". Azkenik, alderdi politikoak "lehenetsuna umeen ongizate eta garapenean jarri behar dugu" azpimarratu du.

Askotariko ekintzak antolatu dituzte Gaba Baltzaren bueltan

Gaba Baltza ekimenaren baitan hainbat ekintza antolatu dira, elkarte ezberdinen elkarlanari esker, asteburuan eta hurrengo asteazkenean direnak.

Bihar eta etzi, arratsaldean zehar, erdiguneko gazte txokoa beldur etxe bilakatuko da. Urriaren 29an, martitzenean, 17:00etan hasita, 17 urtetik gorakoei zuzenduta, ziklo menstrualari

buruzko ikastaroa izango da Etxaluzen. Ikastaroan parte hartzeko, aurrez izena ematea komeni da, 685 72 77 43 telefonora deituta edo aniztasuna@txatxilipurdi.eus helbidera mezu bat bidalita. Azkenik, urriaren 31n, eguena, Arimen Biltzarra egingo da gaztetxean. 18:00etan herriko plazan kalejira hasiko da gaztetxeraino, eta antolatzaileek kukumarro edo baserritar jantzita joateko dei egin diete herritarrei, eta baita kandelak eta kalabazak eramateko ere.

Zaldibar, doke jokoan arrasateartutako eremua

Kondaira batek dio doke partida bati esker eskuratu zutela arrasatearrek eremu hori, ordura arteko jabe zen Oñatiko kondearen kalterako. Dokumentu historikoek bestelako azalpena dute horri buruz eta bi bertsioei buruzko ibilbide gidatua egin berri du AZEK

Xabi Gorostidi ARRASATE

Euskaldunen eta apustuen arteko harremana aspalditik dator, antza, eta Arrasateren historian badaude apustu edo jokoekin lotutako kondairak. XV. mendetik gaur egunera arte bizirik mantendu den horietako baten arabera, Zaldibar ingurua doke partida bati esker eskuratu zuten arrasatearrek. Aldez aurretik Pedro Velez de Guevara Oñatiko kondearenak ziren; kondairari jarraiki, doke jokoan trebeago aritzeagatik arrasatear jabetzakoa bihurtu ziren lur horiek.

Baina kondaira askok ez dute sostengu dokumentalik, eta kasu honetan, lursail horiek arrasatear izateko prozesua nolako izan zen jasotzen duten froga historikoak daude.

Azalpen historikoa

XV. mende hasieran Arrasateko hiribilduan oparotasuna zegoen, bertako altzairugintzak eraginda, nagusiki. Ondotxo zekien hori Oñatiko konde Pedro Lopez de Guevarak. Haren lurak Oñatitik Gatzagaineraino heltzen ziren, eta Arrasateko hiribilduko aberastasuna interesatzen zitzaionez, Zaldibar inguruan dorretxe bat jarri zuen. Arrasatek Gaztelako erregeari ordaintzen zizkion zergak, baina Oñatiko kondeak aurkitu zuen bide bat arrasatearrei zergak kobratzeko: "Herriko harresitik irten eta Oñati aldeira joaten ziren merkatariak zergak eta tasak kobratzen zizkieten Zaldibarko dorretxeak soldaduek", azaldu du Arrasate Zientzia Elkarteak Jose Angel Barrutiabengoak.

Egoerarekin haserre, Otxo Lope de Oro izeneko arrasatear batek dorretxeari eraso egitea erabaki zuen. "Lagun talde bat batu eta su eman zioten Zaldibarko dorretxeari, eta han zeudenak akabatu. Armak bero-



1901ean, frontoia egin berritan, Zaldibar eremua jasotzen duen argazkia. AZE

1448KO SUTEA KONPONTZEKO TRATUAK ARRASATEREN ETA OÑATIREN MUGA ZEHATZU ZUEN

bero zituztenez, gauza bera egin zuten segidan kondeak Aretxabaletan zuen Landaeta dorretxearekin".

Kondea mutikotxo bat zen, eta haren amak, Constanza de Ayalak, erabaki zuen nola erantzun. "Constanza oso emakume argia zen, eta ez zuen mendekuaren bidea aukeratu. Horrez orde, erregeari salatu zion gertatutakoa, eta hark korrejidore bat bidali zuen Arrasatera, zigor bat ezartzeko: Arrasateko hiribilduak 5.000 florin ordaintzea eta kaltetutako dorretxeak berreraikitzea". Bitxikeria bezala, 5.000 florin horietatik 3.000 erregearentzat izan ziren.

Behin zigorra ordainduta eta dorretxeak berreraikita, gauzak lehengo egoerara itzuli ziren, Oñatiko kondeak ez baitzion zergak eta tasak kobratzeari utzi.

Arrasateko egoera berezia zen, bi konderen itzalpean bizi baitzen. "Jesukristo Kalbariora doanean bezala zegoen Arrasate: alde batera eta bestera lapurrak zituela, alegia. Batean Oñatiko kondea zegoen eta bestean Aramaiokoa. Hain zen xelebrea egoera, non Arrasatek bi alkate zituen: bata Oñatiko kondeak jarria eta bestea Aramaiokoa jarria. Herrian bi bando zeuden, eta egunero zeuden haien arteko liskarrak".

Liskar giro horrek goia jo zuen 1448ko sutean. "Herriari su eman zioten, eta ia dena suntsituta geratu zen. Gertatutakoa konpontzeko erregeak berriz bidali zuen korrejidore bat, eta 300.000 marabediko zigor ekonomikoa jarri zion Constanza de Ayalari. Baina arrasatearrek ez zuten haren dirua nahi, hura Arrasate inguruetatik botatzea baizik. Beraz, Axula-Zaldibar inguruak zuen izena- eta Kurtzetxiki inguruen balioa kalkulatu zuten, eta 350.000 marabediko zela finkatu. Hala, Arrasatek 50.000 marabedi eman zizkion Ayalari, eta halaxe ezarri ziren orain arte Oñati eta Arrasate banatzen dituzten mugak.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Garagartzako gunean alfonbrak garbitzen



Irakurle batek salatu duenez, batzuek alfonbrak garbitzeko baliatzen dute berez ibilgailuak garbitzeko gunea dena: "Noizko garbiguneko ur-kontsumoa kontrolatzeko sistema bat?".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).

OHARRAK

1961ean jaiotako bazkaria azaroaren 16an

Zumaiako Marina Berri jatetxean bazkalduko dute. Joateko, sartu 75 euro ES64 3035 0001 5000 1117 0488 kontu zenbakian.

Pentsiodunen elkarretaratzea

Astlehenean egingo dute, 12:00etan, Herriko Plazan.

Danborradako arropak batuko dituzte

Nagusien eta txikien arropak batuko dituzte hilaren 28an, 29an, 30ean 31n, SUDCen lokalean, 17:30etik 18:30era.

Arrasateko altzairuari buruzko bisita gidatua

Zapatuan egingo dute. Hitzordua: 11:00etan, Herriko Plazan.

Oskarbi oinetako dendaren kaleratzeak salatu ditu ELAk

Zapata dendak dio salmenten beherakadak ekarri dituela langileen "berrantolaketa" eta bi dendaren itxiera

E.A. ARRASATE

Oskarbi oinetako dendako "zazpi kaleratze" -hiru Arrasateko dendakoak- salatu ditu ELAk. Dioenez, zapata dendako hainbat langilek bilera izan zuten sindikatuko hainbat kiderekin. Batzarraren asmoa zen "enpresa prekarietateari aurre egiteko lehen urratsak antolatzea". Handik hiru egunera Oskarbi zazpi langile kaleratu zituela adierazi du ELAk, eta enpresaren jarrera salatu du.

Oinetako enpresak hamaika denda ditu Gipuzkoan - horie-

tako bat Arrasaten- eta beste bat Bizkaian; online erosketak egiteko zerbitzua ere badu. Guztira, 40 langile ditu.

Oskarbitik adierazi dute enpresa txiki bat direla, "langileen eskubideak beti" bermatzen dituztela eta enpresaren erabakiak ez daukala zerikusirik langileen bilerekin edo haien eskubideekin. Era berean, kontsumo ohituren aldaketek "salmenten beherakada" ekarri dutela eta "neurriak hartu" behar izan dituztela: langileen "berrantolaketa" eta bi dendaren itxiera.

"Herritarrekin harremana indartzea da gure gogoa"

EH Bilduko zinegotzi liberatu Aitor Zubiagak adierazpenak egin ditu, udal jardunean lanean hasi berritan. Udal Gobernuak elkarlanik ez duela nahi dio, eta "herritarren proposamenak eta arazoak Udalera eramateko" lan egingo duela EH Bilduk

Xabi Gorostidi ARRASATE

Urriko osoko bilkuran liberatu ostean, Aitor Zubiagak lehen urratsak egin ditu Arrasateko Udalean eta gaurkotasun politikoa duten hainbat gairi buruzko hausnarketak plazaratu ditu, ohar bidez.

EH Bilduren lana

"Arrasatearren alde lan egiten" zentratuko da Zubiagaren egunerokoa. "Prestutasuna azaldu diogu Udal Gobernuari natura, pentsio, segurtasun edota bestelako gai garrantzitsuetan batera lan egiteko. Beraiek, ordea, ez dute gutaz ezer jakin nahi izan. Uste dugu 4.000 bozka baino gehiago eta zortzi zinegotzi izanda, kontuan hartu beharko gintuzketela, baina elkarlana ez zaie gustatzen, antza. Gure gogoa herritarrekin harremana indartzea da eta haien proposamenak eta arazoak Udalera eramatea, konpondu daitezten. Gure filosofia beti izan da elkarlana eta arrasatearrentzat lan egitea. Argazkietatik haratago dagoen lanean zentratzen gara gu. Gobernuak badaki Arrasate jasangarri, ekonomikoki orekatu eta aurrerakoi baten alde badela, ondoan edukiko gaituela herritarren arazo eta beharrei irtenbideak emateko".



Aitor Zubiaga, udaletxeko osoko bilkura gelara heltzeko eskaileretan. XABI GOROSTIDI

Udalaren egoera

Zubiagak dio espero zuena baino "okerrago" aurkitu duela Udala: "Harritu nauena da gestore onak omen direnak Udala egoera eskasean daukatela ikusteak. Momentu honetan udaltzain plaza asko bete gabe daude eta arazoa asko luzatuko da; pertsonal-bururik ez dago; euskara teknikaririk ere ez; kontu-hartzailetzan pertsonal falta dago... Udal batean halako figuren faltak barne antolaketan eragin oso handia dauka. Komunikabideetako Udalaren irudia eta

errealitatean gertatzen ari dena oso ezberdinak dira".

Lapurretak eta segurtasuna

Gai honen konponbidea "integrala" izan behar dela dio Zubiagak: "Konponbidea lanketa integral batetik etorriko da; udaltzainen lantaldea osatzeaz gain, Udalak lan egin beharko du herriarekin, eragileekin, oposizioarekin...". Udal Gobernuak gaia desbideratzen ahalegindu dela dio: "Udaltzainen egoera prekariora ezkutatu dute eta gaiaren lanketarik ez da egin.

Hauteskunde kanpainan herria poliziaz josi zuten, eta fiskalak eta epaileak konponbideak ekarri behar zituztela agindu; zain gaude oraindik. Pentsan gaia desbideratzen saiatu da alkatea, inongo irtenbiderik eman gabe eta bere promesak ahaztuz".

Lan gaitasuna, "mugatuta"

Alkateak helarazi berri dien instrukzio batek oposizioak udal informazioa eskuratzeko duen gaitasuna "murriztu" egin duela salatu du Zubiagak: "Alkateak idatziz instrukzio zorrotz bat bideratu digu, non gure informazio eskubidea noraino heldu daitekeen berak erabakiko duela jartzen duen. Herritarrek jakin behar dute oposizioak ezin duela bere lana ondo egin Udalaren datuak ezingo dituelako beti modu librean jaso, alkateak horrela erabakitzen badu. Hau da, oposizioak ezin izango du udaletxeko daturik kontrastatu, alkateak halaxe erabakitzen badu. Gauza askotaz komunikabideetatik enteratu gara. Gure lana Udal Gobernuaren gestioaren kontrola da eta informaziorik ezarekin lan hau egiteko eskubidea eta obligazioa mugatu nahi dute. Neurri erabat antidemokratikoa izan da eta ez gaude prest hau onartzeko".

Natura eta mugikortasuna

Arrasate "jasangarri eta osasuntsua" lortzeko "inertziak aldatzea" eta oinezkoiei eta bidegorriek "lehentasuna ematea" proposatzen du Zubiagak: "Arrasatearrak autoaren dependentziaz atertzeko proposamenak egiteko legislatura izan behar da hau. Espazio naturalen kalitatea hobetu behar dugu eta bizikletak eta garraio publikoak garrantzi handia izan behar dute". Natu-

rarekin lotuta dio Udal Gobernuak ez duela plan integralik: "Zuhaitzak bota zituzten, horretarako beharrik ez zegoenean, baina propagandatik kanpo naturarekiko sentsibilitaterik ez dagoenean halakoxeak gertatzea normala da. Klimaren kontrako adierazpenarekin berdin, itxurakeria galanta, baina badakigu gero zein den beraien politika: erraustegia, AHTaren txiki-zioa...".

Kiroldegi berria

Kirol eskaintza herriko auzoetara hedatzea defendatu du: "Auzo guztiei eskaini behar zaie kirola egiteko gune bat, hori auzoak zaintzea ere badelako. Horregatik, Kirol Herria da gure proposamena". Musakolako kiroldegi berriari buruz dio ez dela agintaldi honetan gauzatuko, nahiz eta hautesleei hori "saldu" dien Gobernuak: "Musakolako kiroldegi? Bai, noski, baina ganoraz antolatutako kirol sare baten barruan. Kontu larria zera da, jende askok Gobernu hau botatu duela kiroldegiaren proiektuagatik. Gogoratu ez dutela eman ez kuotek zenbat balioko duten, ez beste inolako datu errealik. Komunikabideetan behin eta berriz azalduz, jendeari saldu zioten egingo ez den kiroldegi bat; ez, behintzat, agintaldi honetan. Zintzoa litzateke herritarrei gai honen inguruan egia esatea, askok uste baitute laster kiroldegi handi eta berri bat edukiko dutela".

"HERRI EKONOMIKOKI OREKATU, AURRERAKOI ETA JASANGARRI BATEN ALDE LAN EGINGO DUGU"

Lehen batzarra Euskaraldirako

Arrasateko euskalgintza batzen duen Geike elkarteak agerraldia egin du 2020ko Euskaraldira begira egingo den lehen batzarra iragartzeko. Urriaren 30ean egingo dute: Kulturaten, 18:30ean. Lehen Euskaraldian 3.000 arrasatearrek hartu zuten parte, eta erantzuna ikusita, Geikek argi du 2020ko Euskaraldian beste urrats bat egin dezakeela Arrasatek.



DANI SANCHEZ

Autobusa, Altsasuko gazteen aldeko manifestaziorako

Arrasateko autobus zerbitzua antolatu dute bihar, zapatua, Iruñeko Justizia Jauregiaren aurrean egingo den manifestaziora joateko.

Lehen autobusa jada beteta dago, eta txartela nahi dutenek Iratin eskuratu dezakete: 10 euro langileek eta 5 euro langabeek. Autobusak 15:00etan irtengo dira Garibaiko geltokitik.

OHARRAK

Lokal inaugurazioa

San Felipe Elkarlaguntzako Elkarteak lokal berria zabalduko du Alfontso X Jakintsua kaleko hirugarren atarian. Inaugurazioa: urriaren 30ean, 19:00etan.

AGAKOren batzarrak

Ordutegia aldatuko dute, eta barikuetan batu ordez zapatu goizetan elkartuko dira: 12:00etan, gaztetxean.

"Buelta emango diogu egoerari, ziur nago"

JULEN ARANBARRI MONDRA TALDEKO KAPITAINA

Sei jardunaldi pasata, Mondra da Ohorezko Erregional Mailako azken sailkatua, lau punturekin. Asko geratzen da, baina Aranbarrik lehenbailehen atera nahi du zulotik

Xabi Gorostidi ARRASATE

Sei partidutan hau da Mondrak jaso duen uzta: garaipen bat, berdinketa bat eta lau porrot. **Lehen sei partiduak jokata, azkenak zarete sailkapenean. Nola dago taldea?**

Ba, taldea ez dago nahiko genukeen tokian eta animoak ez daude oso altu, egia esan. Sei partidutatik bakarira irabaztea lortu dugu. Egoera ez da hain larria, kontuan izanda partidu asko geratzen zaizkigula liga amaierara arte. Zorionez, goiko taldeekiko distantziak ez dira oso handiak une honetan, baina argi dago pauso bat eman behar dugula aurrera. Eta ahalik eta azkarren baldin bada, hobeto.

Touring-en etxean lehen garaipena lortu zenuten, eta egoera bideratzeko unea zela zirudien. Aukera polita zenuten Mutrikuren aurka, etxean, baina ez zen posible izan...

Esperantza hori genuen, baina hiru puntuek alde egin ziguten. Aukerak izan genituen amaieran, baina bi aukerarekin bi gol sartzen badizkizute... zaila da.

Zer du taldeak hobetzeko?

Bai erasoan eta bai defentsan hobetzeko gauzak ditugu. Baina

gauza konkretuen gainera, uste dut jokalariorik ez gabiltzala gure mailarik onena ematen ari. Ez esfortzatzen ez garelako, kolektiboki bolada ez delako ona bai zik. Hor egon daiteke gauzak aldatzeko gakoa. Uste dut lortuko dugula egoerari buelta ematea; ziur nago baietz.

Esperantzarako arrazoiak ere izango dituzue...

Taldea ondo entrenatzen ari da, gogotsu. Aste bitartean gauzak ondo ditugu, eta orain hori aseturuetan errepikatzea falta zaigu. Zorte puntu hori ere beharrezkoa izaten da aldeko emaitzak izateko, eta orain arte ez dugu zorte handirik izan.

Fitxaketaren bat egiteko beharririk ikusten duzu?

Nik uste dut ezetz. Talde ona daukagu. Iaztik hona ez da aldatuta handirik izan, eta talentua duten gazteak ere sartu dira. Lanean jarraitu behar dugu, eta partiduetan, akaso, ideiak garbiago izan.

Zein mezu helaraziko nahiko zenuke?

Lasai egoteko, baina argi ere bai. Sei jardunaldi pasa dira, baina zenbat eta lehenago zulotik alendu, denontzat hobeto.



Julen Aranbarri, martitzean, Monterron parkean. XABI GOROSTIDI

Ford Mugarri, garaipen zapoaren bila, domekan

Azken jardunaldian Amenabar taldearen kantuan galdu ostean, garaipen zapoera ezpainetara ekartzen ahaleginduko dira domekan. Etxean jokatuko dute, 11:30ean, Iturripen, Urola Alai Hartz Klinika taldearen aurka. Arrasatearrek bi porrot eta garaipen bat batu dituzte, eta bi puntura berdinduta daude beste hiru taldeekin.

MU, jarraian hirugarren garaipena lortzera, Iturripen

Bitik bi partidu irabazita, bikain hasi du denboraldia MUK. Bolada onari jarraipena emateko asmoz, Filipenses taldearen bisita jasoko dute domekan, 18:30ean, Iturripen. Une honetan, MU zazpigarren da sailkapenean, beste lau taldeekin berdinduta. Horietako bat da Filipenses, eta garaipena lortuz gero, postuak igoko dituzte sailkapenean.

Nik Aukeratzen Dut

GUZTIAREN

BEZA*

AURREZTEA

Urriak

26

Larunbata

ETXEKO HORNIDURA

PARAFARMAZIA

ELEKTRONIKA

ELIKADURA

EHUN-GAIAK

Aurrezki gehiago bazkide izateagatik

406-tik gorako erosketa eginez gero EROSKI center eta EROSKI city Supermerkatuetan eta 906-tik gorako EROSKI Hipermerkatuetan, Euskadin, Nafarroan, Kantabriari, Ertzean eta Aragoian.

*Kutxa ordaintzen EROSKI club kartela erabiliz, egindako erosketaren BEZari dagokien zenbatekoa sartuta ditzugu txartelarekin loturako EROSKI club kontuan EROSKI club kontuan sar daitezkeen gehienezko zenbatekoak: 250 euro. Promozioa EROSKI Hipermerkatu eta Supermerkatuetan, eta EROSKI online supermerkatuan izango da baliakoa. Promozioan ez dira baina hartuko: testu-liburuak, esperientzia-paketeak, telebisionen kargak, E-pay kartelak (aurreordaintza txartelak), enbeldatu digitala, berriztatze-luzapenak eta fidelizazio-promozioen bidet (puntu bidetxoak edo porroak) eskuratu daitezkeen produktuak. Kontuak gainerako baldintzak zuei ohiko saloian edo supermerkatuaren erosketen webgunean.

EROSKI

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,

Tel.: 943 71 10 30



Fruitu arraroak emanaldia ilustratzeko erabili duten irudia. FRUITU ARRAROAK

Goi mailako bi artista: errezitaldi musikatu bat

'Fruitu arraroak' emanaldia eskainiko dute Harkaitz Cano idazleak eta Maite Larburu musikariak Kulturateko areto nagusian gaur, egubakoitza, 19:30ean; poesia eta musika uztartuko dituen saio "jolastia" izango da, idazlearen esanetan; dohainik da

Eneko Azurmendi ARRASATE

Aspaldiko lagunak dira Maite Larburu eta Harkaitz Cano. "Gero, atzerrira joan zen bizitzera, baina ez dugu harremana galdu. Bere azken diskorako ere pare bat letra egin nizkion. Aspaldiko zor bat kitatzeko modu bat da proiektu hau", dio Cano.

Ameriketako Estatu Batuetan dauka jatorria emanaldi honek. "Billie Holiday abeslariak arrazakeriaren aurkako abesti bat egin zuen, *Strange fruit* izenekoa. Abesti hau, berez, ez zen berea. Abel Meeropol eskola irakasle judu batena da letra eta musika, baina berak gura zuen Billie Holiday izan zedila ereserki hori abestuko zuena, eta ez beste inor. Garai hartan, New Yorkeko klub batean kantatzen zuen Holidayk, eta Abel Meeropol astero joaten zen hura ikustera, baina inoiz ez zen ausartzen proposamena egitera. Halako batean, ausartu egin zen eta partitura eman zion. Badirudi Holidayk hasieran ez ziola ha-

rrera beroa egin, edo ez zuela ondo ulertu fruitu arraro horiek zer ziren. Hain zuzen, garai hartan hegoaldean zintzilikatzen zituzten afroamerikarrak ziren. Letra hunkigarria eta gogorra da. Hasieran ondo ez ulertu arren, gerora kantua bere egin zuen, eta kontzertu guztiak kantu horrekin amaitzen zituen".

Baztertutakoak berreskuratzu

Hori aintzat hartuta, "fruitu arraro" gehiagoren bila hasi ziren. "Gure beste proiektuetan sartu ez ditugun eta esperimental samarrak diren kontuak lotzen joan ginen, eta berreskuratu egin ditugu. Hain zuzen ere, arraroak diren fruitu horiek jasotzeko ariketa bat egin dugu".

**BILBOKO ARRIAGAN
ETA BARAKALDON BI
EMANALDI EGIN
DITUZTE; HIRUGARREN
SAIOA IZANGO DA HAU**

Emanaldi jolastia

Piezarik gehienetan bien arteko lotura bat egon dadin saiatu direla dio idazleak. "Badaude pieza batzuk non Maite nire mundura erakarri dudana eta testuren bat irakurrarazten diodan. Erdi bana ere irakurtzen dugu testu bat. Orotarik poemak ditugu, ez nireak bakarrik. Maitetik bere kantu pare bat abesten ditu, eta badaude beste kantu batzuk espresuki emanaldi honetarako sortu dituenak, nire letrekin", gaineratu du.

Emanaldi "jolastia" dela azpimarratu du. "Publikoari ere eskatzen zaio batzuetan partehartze zehatz bat. Horrez gain, saiatu gara poemak normalean irakurtzen ez diren bezala irakurtzen. Adibidez, poema bat lehenbizi behetik gora irakurtzen dugu eta gero goitik behera, eta hor ustekabeko efektuak edo ustekabekoak sortzen dira".

Aurreko bi emanaldietan "oso harrera ona" izan dute, eta gaurko ere "gogotsu" daudela diote.



Bi gizonetako dira emanaldiaren protagonistak. UN POYO ROJO

Dantza, sexualitatea eta kirola bat eginik domekan Amaian

Un Poyo Rojo konpainiak izen bereko ikuskizuna egingo du Amaia antzokian etzi, 19:30ean; sarrera 10 euro da

E.A. ARRASATE

Publiko guztiei zuzendutako emanaldia izango da, nagusientzat bereziki, baina umeek eta gazteek ere disfrutatzen modukoa. "Antzezlan moduan iragarri dugu, baina ez dago garbi antzezlan bat den. Antzerki fisikoa deitzen diote batzuek. Gimnasio bateko aldagela batean gertatzen da istorioa. Bi gizonen arteko istorio bat da. Batzuek homosexualitate harreman bat ikusten dute; beste batzuek, ez. Antzezleek ez dute garbi esaten", azaldu du Karmelo Alberdik, Arrasateko Udaleko kultura teknikariak.

Gorputz lengoaiaren oinarritutako obra da, testurik gabea. Hala ere, umoreak indar handia hartzen du. "Probokazio bat da, gure buruari barre egiteko gonbita. *Un poyo rojo* akrobaziaren eta barregarritasunaren arteko nahasketa bat da", diote konpainiako kideek.

Orokorrean, mantendu egiten dute ikuskizun bera emanaldi guztietan. Hala ere, bukaerarako sorpresatxo bat uzten dute. Hori dela eta, domekan Amaia antzokira hurbiltzeko gonbita egin die Alberdik arrasatearrei. "Publikoak gustura geratuko da, seguru nago", gaineratu du.

Egonkortutako proiektua

2008an sortutako proiektua da hau, eta oraindik ere biran ari dira. "Arrakasta handia izan dute alde guztietan, European eta Amerikan bereziki, eta kritika oso ona jaso izan du. Donostian ikusten egon nintzen, eta asko disfrutatu nuen. Asteburu honetan Logroñon lotuta zuten emanaldi bat, eta aprobeztatu egin dugu Arrasatera ekartzeko", dio Alberdik.

Argentinarrak dira izatez, baina Parisen finkatuta daude, eta hortik mugitzen dira.

Artgazki elkartearen argazki lehiaketa abian da dagoeneko

Udazkena Euskal Herrian lehiaketaren bosgarren edizioa Aspanogi Gipuzkoako Haur Minbizidunen Gurasoen Elkartearen aldekoa izango da. Basoetako paisaiak, ibaiak, itsasoak zein hiri eta landa ingurukoak aurkeztu ahal izango dira, gaiari erantzunez. Argazkirik onenak herriko hainbat tabernatan egongo dira ikusgai, eta ondoren,

Kulturateko erakusketa aretoan. Ostean, lanak salgai jarriko dira, Aspanogirendako dirua batzeko.

Argazkiak bidaltzeko epea azaroaren 20an bukatuko da, 22:00etan, eta azaroaren 24an jakinaraziko dituzte saridunak.

Irabazleak garaikurra eta 300 euro eskuratuko ditu. Bigarren sailkatuak, garaikurra eta 200 euro. Hirugarrenak, garaikurra eta 100 euro. Publikoaren saria, azkenik, Columbus Outdoor enpresak emandako mendiko materiala izango da.

OÑATI_ARRASATE HERRI LASTERKETA EUSKARAZ EGIN BIDE


2019-10-27 // 11:00etan // Foruen Enparantzatik

Izen-ematea: www.herrikrosa.eus eta Loramendi Kirolak denda


ANTOLATZAILEA:



LAGUNTZAILEAK:



BABESLEAK:





Kalabazak, Gaba Baltzeko protagonista. TOPAGUNEA

Gaba Baltza hilaren 31n, Aramaion ere bai aurten

Kanpoko jaiak garai bateko bertako tradizioen lekua hartzen ari diren honetan, Topagunearen ekimenari jarraitu eta Domu Santu egun bezperarako egitaraua prestatu dute, elkarlanean, guraso elkarteak, Txirritolak, eskolak eta dantza taldeak

Julen Iriondo ARAMAIO

Halloween ospatzea gero eta zabalduago dago, eta, horren aurrean, bertako tradizioak indartzeko ekimena martxan du Euskaltzaleen Topaguneak; AE-Betatik datorren ospakizuna bertako jaiengatik ordezkatzea da kontua, hortaz, are arrazoi gehiagoz Domu Santu egun bezperak bertakoak diren hainbat erritual izan dituenan, hemen ere, urteetan.

"Gurean ere badira kontaktuzunak, kalabazak edo arbiak hustu, aurpegi itxura eman, kandela txiki bat sartu eta bide bazterretan argizatuta jartzen zirenekoak; gaua, beldurra, gozokiak, gauz lagunekin ateratzea, mozorroak... Gaztetxoentzat erakargarritasun handia duten elementuak bateratzen dituzte jai hauek", diote Topagunetik.

Beraz, garai batekoak gaur egunera egokitu eta balio jakinak bultzatu nahi dituen festa proposamena da Gaba Baltza: "Bi-

zipenak aldatu egin dira eta, honekin batera, jaiak eta tradizioak. Hauek iraungo badute, gaurkotasunera egokitzen direlako izango da; eta horrela ari da zabaltzen Gau Beltza Euskal Herrian. Proposatutako ospakizun eredu garrantzia berezia hartu dute egiteko moduak eta landu nahi diren balioek: eskara, komunitatea, gazteen protagonismoa, naturarekiko harremana, berdintasuna, genero rola apurtzea eta tokian tokiko ohitura eta aukerei egokitzea; horiek dira Euskaltzaleen Topagunetik landu nahi diren balio eta ezaugarrietako batzuk".

Aramaion, Txirritolak eta guraso elkarteak heldu zioten, aurrena, Topaguneak proposa-

MOZORRO TAILERRA, KALEAK KALABAZAZ APAINTEA, IPUIN KONTAKETA ETA DANTZA IZANGO DIRA

tutako bideari, eta haiei eskola eta Lagun Artean dantza taldea batu zitzaizkien, hilaren 31rako egitaraua prestatzeko, Gaba Baltza lehenengoz ospatzeko.

Aramaioko egitaraua

17:00etan hasita, mozorro tailerra egingo dute kultura etxean; arropa zaharrak, izarak eta abarrekoak eraman beharko dira etxetik horretarako *-Gaubeltza.eus* webgunea eskura dago ideiak hartzeko-. Ondoren, kalea apainduko dute etxetik eramandako kalabazekin; Aramaioko baserri batetik 140 kalabaza jaso dituzte neska-mutikoen, eta etxean egingo dute haiek festarako egokitze egin beharrekoa.

18:30ean, egunarekin lotutako ipuin kontaketa saioa egingo du Aitor Vinagret gasteiztarrak, kultura etxean. Handik plazara kalejira egingo dute 19:15ean, eta dantza saioa egingo du bertan Lagun Artean taldeak. Bukatzeko, *edabe magikoa* banatuko dute.

Azoka eta Jubilatuen Eguna, urteko egun politetako bat bihar

46 postu eta hamalau etxetako animaliak izango dira Nardeaga kalean, eta ehundik gora erretiratu bazkaltzen

J.I. ARAMAIO

Azokan postua jarriko dutenen artean, 24 izango dira herrikoak bertakoak, eta 22 kanpokoak; ohi bezala, artisau lanak, bitxiak, ondoak, gazta, eta abar izango dira postuotan, baserriko barazkiekin batera. Ganadua herrikoak izango da dena: poneyak, astoak, behorrak eta behiak; oiloak ere ekarriko dituzte aurten. 11:00etatik 14:30era izango da azoka.

12:00etan, meza izango da elizan, Bizente Goikoetxea abesbatzak lagunduta, eta Papargorri eskolaniaren txanda izango da meza ostean; 13:00etan, berriz, Lagun Artean dantza taldeak erakustaldia egingo du.

Triki-kalejira taldeak bere izenari kasu egin eta bazterrek girotuko ditu goiz osoan, eta hamaiketakoaren ostean -salda eta ogitartekoak izango dira elkartean- berriz ere gosea



Bitxiei begira, azokan. OIHANA ELORTZA

eginda, ehundik gora erretiratu elkartuko dira bazkaltzeko.

Ohiko opari zozketa egingo dute han. Gizon eta emakume zaharrenek -Matilde Errasti eta Pablo Gardoki, biak 97 urtekoak- bezperan jasoko dituzte Udalaren oroigarriak.

Ruper Ordorikak kontzertua eskainiko du abenduaren 8an

Horbeialdeko Kuadrillak antolatutako emanaldia izango da, Aramaioko Udalarekin batera, eta musikari onatiarrak bakar-kak jardungo du kultura etxeko aretoan. 19:00etan hasiko da Euskararen Egunaren testuinguruan antolatutako kontzertua. Sarreraren gaineko informazioa aurrerago jakinaraziko du antolakuntzak.



Ruper Ordorika. GOIENAN

2020ko Euskaraldian ere parte hartuko du Aramaioko herriak

Aramaio dagoeneko baieztatu du 2020ko Euskaraldian parte hartuko duela; izan ere, udalerri iena ematea dagokien garaian, horixe bera egin du Aramaio. Udalerrien ostean, entitateek eta norbanakoek izena emateko ordua izango da. Euskaraldiaren bigarren edizioan askotariko erakundeetan jarriko dute fokua, bereziki.

OHARRAK

C1-erako prestaketa

Taldea sortzen bada, C1 gaitasun-maila -EGaren parekoa- lortzeko azterketa prestatzeko ikastaroa egingo dute. Izena, udaletxean.

Azaroaren 25a

Indarkeria Matxistaren Kontrako Eguna antolatuzko bilera izango da eguaztenean, hilak 30, 18:00etan, kultura etxean.



Galartaren lanen beste erakusketa bat, Arrasaten. IMANOL SORIANO

Julio Galartaren lanen erakusketa Sastiñan

Pintore arrasatearren lagunen elkarteak Aramaio gaitzat duten koadroen katalogazioa egiten jardun du azkenaldian. Aramaioarrek utzitako 30 koadroekin egingo dute orain erakusketa, eta azaroaren 3ra bitartean egongo da ikusgai

J.I. ARAMAIO

Julio Galarta Pintorearen Lagunak Elkartearen ekimenez eta Aramaioko Udalarekin batera, Arrasatekoaren laguntzarekin, antolatu dute erakusketa: *Aramaio, Julio Galartaren eskutik*; izan ere, batuko dituen gauza bat izango dute erakusketan egongo diren koadro guztiek, Aramaioko zerbait irudikatuko dutela.

Arrasatek eman duen pintore oparo eta onenen artean dago Galarta (1917-2011). Arrasatekoak ez ezik, beste hainbat tokitako paisaiak eta bestelakoak ere irudikatu zituen bere koadroetan, eta horietako askotarako aitzakia topatu zuen Aramaion, oso gustuko baitzituen bertako bazterrak: "Arrasate alde batera utzita, gehien pintatu zuen herria da Aramaio", dio elkarteko kide Alvaro Arregik.

Pintorearen lagunen elkartearen arabera, bere bizitza osoan 3.000 koadro inguru margotuko zituen Galartak, nahiz eta ia

1.600 diren, azken urteetako lanaren ondorioz, katalogatuta dituztenak –630 berak eman zizkion elkarteari hil aurretik; gainerakoak, jabe partikularren laguntzaz katalogatu dituzte–.

Aurrez Arrasaten egin zuten bezala, aurtengo uztailean Aramaion egin zuten deialdia, etxean Galartaren koadroen bat zutenek elkarteari jakinaraz ziezaiten; 40 inguru izan dira ordutik jasotako jakinarazpenak, eta horietatik 30 –espazioagatik– izango dira Sastiñako erakusketan ikusgai egongo diren koadroak –jabeek utzita; lehendik zituzten pare bat izan ezik–. Hala egin dute, elkartearen esku dauden koadroak gero ere ikustea posible izango delako, zailagoa,

ERAKUSKETA OSTEAN ERE NAHI LUKETE GALARTAREN KOADRO GEHIAGOREN BERRI JASO KATALOGATZEKO

ordea, partikularren etxeetan daudenekin beste erakusketa bat egitea. Ibarra zein auzoak agertuko dira koadro horietan, "ia auzo guztiak".

Inaugurazioa, gaur

Erakusketa gaur, barikua, inauguratuko dute, 19:00etan –Aramaio eta Arrasateko udaletako ordezkariak eta elkartekoak izango dira ekitaldian–, eta azaroaren 3ra bitartean egongo da gero irekita, 18:00etatik 20:00etara astegunetan eta 12:00etatik 14:00etara zapatu eta domeketan.

Erakusketa gaurtik aurrera izango den arren, Galartaren ahalik eta lanik gehienak katalogatze aldera, elkarteak gustura hartuko luke hemendik aurrera ere pintore arrasatearren koadroen berri. Etxean artelanen bat dutenei eskatzen diete galartaelkartea@gmail.com helbide elektronikoaren bitartez jar daitezela eurekin harremanetan.



Xabat Illarregi txapelduna. IBAI ZABALA

Kopla Txapelketaren bigarren edizioa, Xabat Illarregirentzat

Asier Galartza muxikarrarekin egin zuen Leitzakoak buruz burukoa, eta merezimenduz lortu zuen txapela


J.I. ARAMAIO

Kalean egindako finalerdietan zortzi bertsolari sailkatu ziren Iturrieta sagardotegiko finale-rako: buruz burukora iritsi ziren biek batera, Aratz Igartzabal, Aroa Arrizubieta, Oihane Perea, Paule Loizaga, Malen Amenabar eta Oihana Arana –eskoriatarra–. Mainer Arregi oñatiarra eta Jokin Labaien arrasatearra, iazko bi onenak, kanpoan geratu ziren, eta baita Aramaioko ordezkari guztiak ere.

Iturrietan ehun lagunetik gora elkartu ziren, afaldu eta kopla txapelketaren finalarekin goza-

tzeko; giro bikaina izan zen sagardotegian: "Jendeak oso pozik amaitu zuen", zioen Manex Agirrek. Eta txapeldunari buruz: "Saio elegantea egin zuen. Ari-keta denetan ondoen asmatu zuena izan zen: bakarka, ofizioetan, umorez, koplak ondo josiz, erantzunez; publikoarengana erraz ailegatu zen, eta merezita irabazi zuen". Publikoaren epaiarekin –hark erabaki zuen–, beraz, bat zetorren Agirre.

Kaleko saioak aurtun hotzago joan direla-eta hurrengo aldirako hori aztertzeotan geratu dira bertso eskolakoak.



Oihana Arana, kantuan. IBAI ZABALA

Oihana Arana, bailarako onena

Oihana Arana eskoriatarra izan zen bailarako bertsolari onena. Bera izan zen finalerako sailkatu zen bakarra. "Ondo ibili zen, kolpe galanta duen neska da, umorea badu, pronto handia, eta erantzun barik ez zuen saio bat ere utzi", zioen Manex Agirrek.

Zurrumurruen aurkako eragileak sortzeko saioak

'Zurrumurruak, egia-erdiak eta migrazioa' izena duen ikastaroa egingo dute ZAS! sarearen eskutik urriaren 29an eta azaroaren 5ean; hogeitazko taldea osatzea da asmoa eta aurreiritzen, estereotipoen eta komunikazioaren gainean jardungo dute

Mirari Altube ARETXABALETAKO

Gipuzkoako zurrumurruen aurkako kanpainarekin bat egin du Udalak, eta aurten programa horretan parte hartuko duen Gipuzkoako sei udalerritako bat da. Zurrumurruen Aurkako Sareko (ZAS!) bi kide gerturatuko dira saio bana eskaintzera, eta helburua da xenofobiaren prebentziorako eragileak trebatzea.

Komunikazio estrategiak

Aretxabaletako ikastaroak bi saio izango ditu: urriaren 29an, martitzena, Xabier Aierdi soziologoa etorriko da. Kulturen, identitateen, aurreiritzen, estereotipoen eta zurrumurruen gainean egingo du berba hark.

Azaroaren 5ean, ostera, Raquel Romero izango da gidaria eta zurrumurruak kudeatzeko baliagarri diren komunikazio eta emozio estrategiak azalduko ditu. Bi saioak Arkupen izango dira, 17:00etatik 19:00etara.

Etorrinekin lan egiten duten elkarteetako eta erakundeetako ordezkariak gonbidatu dituzte bereziki saio horietara, baina edonork parte hartu ahal izango du: "Kanpotik etorritakoekin hartu-eman zuzena duten hainbat elkarte ditugu herrian; besteak beste, Gu Haziara Gara, Hiruatx, Caritas eta Auzoko. Hortaz, ikastaro proposa da", dio Karmele Uribarririk, Gizarte Zerbitzuetako batzordeburuak. Asmoa da hogeitazko taldearekin osatutako taldea eratzea. Eta gaineratu du: "Kultur aniztasuna gaur egun bizi dugun errealtate bat da. Saio hauetan, aurreiritziak eta estereotipoak apurtzeko estrategiak landuko dituzte, gizarte sentsibilizatzeko eta, bide batez, arrazakeria eta xenofobia prebenitzeko".

Parte hartzeko, aurrez eman behar da izena Udaleko Gizarte Zerbitzuetan -943 71 18 62 edo ongizate@aretxabaleta.eus-; urriaren 25a da azken eguna.



Hainbat emakume, Gernika plazako eserleku batean. MIRARI ALTUBE

"Zurrumurruen kontra egin behar da bazterkeria iturri ez izateko"

XABIER AIERDI ZURRUMURRUEN AURKAKO SAREKO KIDEA

EHuko irakasle eta soziologoa ikastaroaren pistak eman ditu.

Zeintzuk dira zabalduenak?

Hiru zurrumuru edo egia-erdiak bi migrazioari lotuak dira. Ikuspegik aurkitu duenaren bidez, immigranteak gizarte laguntzei esker bizi direla, lana kentzen dutela edo delinkuentzia areagotzen dutela dira zabalduenak.

Edozelan be, mundu guztiko gizarte hartzaile guztiek migrazioarekiko sinesten dituen berberak dira horiek.

Garrantzitsua da prestatzea?

Bai, baina lasaitasun handiz eta jakinda egia zientifikoak nekez ahultzen dituela sinesten. Horregatik lan geldoa eta zirimiraren antzekoa izan behar du. Oso beharrezkoa da zurrumurruen aurka joatea bazterkeria eta diskriminazio iturri izan ez daitezen. Ez beti, baina sarri estereotipoak tratu



LARRAITZ ZEBERIO

desberdintasuna legitimatzeko abiapuntu izaten dira.

Zein da biderik eraginkorrena?

Zurrumurruen aurka aritzea xenofobia txikitzeko oinarritzko urratsa da. Zurrumurruen aurkako estrategiak antiarrazakeriak baino intentsitate eta diskurtso leunagoa eskatzen du, baina batek bestea elikatzea ekarriko du. Premiazko lana da zurrumurruen aurkako sektoreak saretzea ere.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Autobus zerbitzu hoberearen eskean



Autobus zerbitzuarekin "gogaituta" dagoen aretxabaletar batek dio ordutegi eskasa izateaz gain atzerapen handiarekin ibiltzen direla autobusak. Dagokionak kontuari heltzeko ere eskatu du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Familiei egindako inkestaren emaitzak aurkeztuko ditu UDAK

Aretxabaleta Kirol Elkarteak eta San Juan de Dios ospitaleak elkarrekin abian jarritako U@DA proiektuaren baitan, substantzien kontsumo ohituren gaineko galdetegiak osatu zituzten iaz maiatzean familiek; eta orain, emaitzak aurkeztuko dituzte jendaurrean. Bilerak izango dira: urriaren 29an, Aretxabaletan -Arkupen, 18:00etan-; eta 30ean, Eskoriatzan -Ibarraundin, 18:00etan-. Bide batez, 2019-2020 denboraldiko urratsen berri emango du kirol elkarteak.

Bileretara joateko ez dago izeirik eman beharrik, baina aurreikuspenak egiteko aurrez jakinaraztea eskertuko dutela adierazi dute UDAko kideek.

Hiri Antolamendurako Plan Orokorriari helduko dio Udalak

Hiri Antolamendurako Plan Orokorriari (HAPO) ekin gura dio udalbatzak agintaldi honetan. Horrek, hain zuzen, zehaztuko ditu herriaren etorkizuneko erabilera -bizilekuak, ekipamendua...-, eraikitzeko guneak eta jarduera ekonomikoak, besteak beste; hau da, herriaren garapena eta hirigintza antolamendua.

Arkitekto bat kontratatuko du Udalak hori idazteko, izapidetzeko eta behin betiko onarpena lortzeko egin beharrekoetarako, eta lanpostu deialdia argitaratu du horretarako. Eskerak aurkezteko epea urriaren 31 arte egongo da zabalik, udaletxean; argibide gehiago lortzeko, jo webgunera: Aretxabaleta.eus.

OHARRAK

Odol ateratzea

Astelehenean (16:45-20:00) odola emateko aukera izango da Durana kalean.

Erorikoak prebenitzea

Adinekoen erorikoak prebenitzeko saioa egingo dute Ibarra kiroldegian hilaren 30ean (10:30). Izena emateko: osasun etxea (943 71 19 59) eta Gizarte Zerbitzuak (943 71 18 62); azken eguna astelehena da.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia I - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAKO

Zerga eta tasa gehienak % 0,5 garestituko dituzte

Osoko bilkuran onartu zituen udalbatzak 2020rako igoerak, baita EH Bilduk aurkeztutako emendakin bat ere: birgaitze energetikoa egiten denerako obra zergetan %80ko hobaria izatea, bereziki, A edo B kalifikazioak lortzeko

Mirari Altube ARETXABAETA

Udalbatzak onartu du 2020an %0,5 igotzea tasa eta zerga gehienak; besteak beste, ondasun higiezinaren gainekoa, ibilgailuenak eta obra txikien gainekoak. Salbuespen bi daude: zaborra eta ura. Hondakinen tasa %5 igoko dute zerbitzu horrek sortutako kostua estaltzen joateko, eta uraren tasari dagokionez, %2 garestituko da Ur Kontsorzioak agindutakoari kasu eginez.

Eguaztenez egindako osoko bilkuran onartu zituzten EAJren botoekin, EH Bildu ostera abstenitu egin zen. "Ados geunden ordenantzen proposamenarekin, hobetzekoak egon arren, baina gure emendakinak lantzerakoan ez dugu inolako komunikaziorik izan, ezer ez, eta horrela ezin dugu baiezkorik eman", adierazi zuen Ion Albizu bozeramaileak.

Emendakin bi aurkeztu zituen EH Bilduk: batetik, birgaitze energetikoa egiten denerako obra zergetan %80ko hobaria, bereziki, A edo B kalifikazioak lortzeko; eta bestetik, eguzki plakak teiltatuetan jartzeko hobaria eskatu zuen ondasun higiezinaren zergaren bitartez -1.500 euro arteko laguntza edo inbertsioaren erdia-. Bigarren horri ezetza eman zioten Udal gobernu kideek: "Egun badaude



Loramendi kaleko hainbat etxe eta kiroldegia. MIRARI ALTUBE

hobari batzuk, oraingoan handitzea eskatzen zen, eta ez dugu beharrezko ikusi. Beste dirulaguntza batzuk ere badaude", zioen alkateak.

Mankomunitateko ordezkariak Debagoieneko Mankomunitateko batzordeetan izango diren ordezkariak ere izendatu zituzten: Pertsonal, Ogasun eta Ingurumen batzordeetara Unai Elkoro joango da; Garapen Agentziara eta Turismora, Ainhoa Cabero; eta Kirol batzordera, Koldo Zubillaga.

EH Bildu ez zen bat etorri alderdiek Mankomunitatean duten ordezkariak banaketarekin, eta aurka bozkatu zuen. "Ordezkaritza orekatuagoa eta anitzagoa gurako genuke", zioen Albizuk, eta Elkorok erantzun zuen: "Mankomunitatearen kontua da herrien ordezkariak proportzionaltasuna ondo dagoen edo ez aztertzea, baina azken aldaketak eurek egindakoak dira".

Bestalde, azaroaren 10ean hautalesketuetan egon beharko duten herritarrek ere aukeratu zituzten osoko bilkuran.

Antzerki Hilabeteko azken lanen emanaldiak izango dira egunotan

Intujai Teatroak 'Ama-Alu-Lur' lana eskainiko du bihar eta Kukumix konpainia nafarrak 'Escenicas' domekan

M.A. ARETXABAETA

Antzerki Hilabetea bukaerara iristear da, baina oraindik hiru konpainia gerturatuko dira.

Intujai Teatro taldeak *Ama-Alu-Lur (sorgin baten ametsak)* antzezlan eskainiko du bihar, zapatua (19:00). 2019ko Poltsikoko Antzerki Sorkuntza Saria jaso du, hain zuzen ere, Intujaik, eta bi espeleologo-arkeologoren gorabeherak ekarriko dituzte oholtzara. Domekan, ostera, Kukumix talde amateur nafarrak esketxekin osatutako *Escenicas* antzezlan umoretsua eskainiko du (19:00).

Gaztetxoek, ostera, Julio Verneren *20.000 legoa itsaspeko bidaiari* antzezlan izango dute Txalo Produzkoaren eskutik egunean (11:00).

"Pozik" izandako harrerarekin

"Benetan harrera ona izan dute antzezlanek, bereziki, domeka-



Ama-Alu-Lur laneko une bat. INTUJAI

tagoek, nahiz eta horiek talde amateurrenak izan; azken domekan, esaterako, 80 lagun elkartu ziren", adierazi du Ainhoa Cabero Kultura zinegotziak, eta gaineratu du ikastetxeetako neska-mutikoen ere gustura ikusi dituztela eurei eskainitako lanak.


Gaba Baltzari begira hainbat prestaketa egingo dituzte

Urriaren 31ko Gaba Baltzak gero eta arrakasta handiagoa du neska-mutikoen artean, eta aurten ere hainbat ekintza antolatatu ditu Loramendi elkarteak.

Eguaztenez, urriaren 30ean, mozorroak gertatzeko lantxoak egingo dituzte Zainduz lokalean (17:00-19:00). Norberak eroan beharko du izara eta taldeka egingo dute lan -ez dago adin

mugarik-. Bukatutakoan, mozorro eta kalabaza lehiaketak egingo dituzte Durana kalean (19:00-19:30). Sariak jasoko dituztela onenek iragarri dute antolatzaileek.

Urriaren 31n, ostera, gozoki eskean irtengo dira (18:00-19:00); mozorrotuta eta egun horretarako bereziki sortutako koplak abestuta joango dira gaztetxoak dendarik denda. Kalejira egingo dute gero Durana kalean (19:15-19:30) eta ekitaldi nagusiari ekin- go diote han.



Odontologia estetikoa
Endodontzia
Inplantologia

Ortodontzia
PADI zerbitzua
Hortz protesiak

Asteheneretik ostegunera: 08:30-20:00
Ostiralean: 08:30-16:00

Durana kalea 22 • Aretxabaeta • Tel.: 943 79 93 55
www.duranahortzklinika.eus

"Potentziala dagoenean atera egin behar dugu"

Iban Urreta aretxabaletarra da pintura eskolak emateko Aretxabaletako Kultura Sailak kontratatu berri duen irakaslea. Haurrei, gazteei, eta helduei hasi da irakasten, eta diseinu eta eskulan teknika ugari eskaintzeko gogoz agertu da

Imanol Beloki ARETXABALETA

Zenbait urtez Ainhoa Cabero -Kultura zinegotzia- aritu da pintura eskolak ematen Arkupen, baina irakasle berria kontratatu du Aretxabaletako Kultura Sailak pintura eskolak emateko. Hain zuzen ere, Iban Urreta 25 urteko gazte aretxabaletarrak hartu dio erreleboa, eta hilaren hasiera ezkererako gogotsu ari da dakiena irakasten. Hasi berri, pozik agertu da etapa berriarekin, eta ikastarora doazenei irakasteko gogoz agertu da.

Arte Plastikoetako eta Diseinuko Teknikaria Ilustrazioan goi mailako heziketa zikloa eginda, marrazketan ere sakondu izan du, zenbait grafiti eta mural margotutako artista baita.

Potentziala ateratzeko helburua
Ematen dituen saioetan, diseinu eta eskulan teknika ugari eskaintzen ditu, eta adierazi duenez, pintura eta marrazketa gustuko dutenei zukua atera behar zaie, barruan duten potentzial guztia atera dezaten: "Izen-ematea ireki genuen aste-betez, eta hiru talde osatu ditugu: haurrak, gazteak eta helduak. Askotariko diziplinak daude, eta eskatzen didatenaren arabera moldatzen ditut saioak. Hel-



Iban Urreta, pintura eskolako irakaslea saio batean. IMANOL BELOKI

duen kasuan, hasitako lanak egitera etortzen dira, proiektu berriak hasten dituzte... libreago ari dira. Haurrekin, berriz, sormena bultzatze aldera, beraien potentziala ateratzen saiatzen naiz, batez ere, marrazketa bidez; arkatzak, Manley, Plastidekor... erabiltzen ditugu. Gazteekin, berriz, akuarela eta akrilikoekin hasteko asmoa daukat lehenbailehen".

Izena emateko

Udaleko Kultura Sailak antolatzen dituen ume, gazte zein hel-

duei zuzendutako pintura ikastaroetan parte hartzeko epeak zabalik jarraitzen du. Hala, izena Arkupen eman behar da, 17:00etatik 19:00etara bitartean. Hala ere, Arkupeko bigarren solairuan izaten dira pintura eskolak; astegunetan, arratsaldeetan, 17:00etatik 20:00etara bitartean, eta, Urretak adierazi duenez, interesa edo informazioa nahi duen edozein bertara joan daiteke nahi izanez gero. Informazio gehiago nahi duenak 943 08 10 01 telefono zenbakira deitu dezake.


Ibilgailu klasikoek topaketa izango da zapatuan plazan

Goiena Classic Club-ek antolatuta, 25 urtetik gora dituzten autoak izango dira ikusgai Aretxabaletan

I.B. ARETXABALETA

Aretxabaletako Udalak proposatuta, eta Goiena Classic Club-ek antolatuta, ibilgailu klasikoek topaketa izango da zapatuan Herriko Plazan. 25 urtetik gora dituzten ibilgailuak gertu-gertutik ikusteko aukera izango dute bertaratzen direnek, eta auto klasikoek maitaleek disfrutatzen aukera izango dute horiek ikusiaz. Edozein galdera edo zalantza dutenek, gainera, jabeekin hitz egiteko aukera ere izango dute.

Egunari hasiera emateko, 09:00etan batuko dira plazan auto klasikoekin datozen partaideak, eta 11:00etan, bira bat eman ondoren, Herriko Plazan elkartuko dira, berriz. 12:00etan, partaideentzat mokadutxoak izango da, eta 13:00etan, opari zozketa egin ostean, 14:00etan emango diote amaiera ekitaldiari.



Auto klasikoari kapota igota. I.B.

Interesa pizten duen egitasmoa


Ibilgailu klasikoek beti piztu izan dute interesa, eta 2016an antolatu zen lehenengo aldiz. Urte hartan 50 ibilgailu izan ziren eta edizio honetan ere auto berezi eta bitxiak ikusteko aukera izango da.

Maite Francoren ipuin kontaketa izango da liburutegian zapatuan

Zapatuan, 11:30ean hasita, Maite Franco ipuin kontalari eza-gunaren eskutik otsoen gaineko ipuin dibertigarriak entzuteko aukera izango dute herriko neska-mutikoen. Liburutegian izango da ipuin kontaketa, eta zorte benetan txarra duten otsoen gorabeherak izango dituzten ardatz *Zorte txarreko otsoak* ipuin-sortak.

Artgazki taldearen zuri-beltzeko argazkiak ikusgai

Urriaren 4a ezkererako ikusgai dago Arrasateko Artgazki taldeko kideen zuri-beltzeko argazkien erakusketa Arkupen. 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara bitartean ikusi daitezke astegunetan; zapatuetan, 11:00etatik 13:00etara; eta domeka eta jaiegunetan, berriz, itxita egongo da. Hala, hilaren 31ra arte izango da erakusketa zabalik.



Iturgintza, gasa eta berogailuak
Zelaikoa Baserria, 20 • Apotzaga auzoa
20540 Eskoriatza - Gipuzkoa
943 71 52 51 / 605 71 66 92

**Bainuontziaren
ordez dutxa
jarriko dizugu
EGUN BATEAN!**

**Galdarak
aldatzen
ditugu**

Komunen eta sukaldeen zaharberritze-lanak • Iturgintza-lanak • Energia berriztagarriak



Eskoriatzako udal ordezkariak urriko ohiko osoko bilkuran. IMANOL BELOKI

Igoera txikia izango dute tasek, orokorrean

Urriko ohiko osoko bilkuran 2020. urtera begirako Ordenantza Fiskalak izan zituzten hizpide udal ordezkariak. Hori horrela, batez beste euro bat baino gutxiago igoko dira tasak. EH Bilduren abstentzioarekin onartu zuten Udal Gobernuaren proposamena

Imanol Beloki ESKORIATZA

Martitzeneko ohiko osoko bilkuran tratatutako gai guztietatik azpimarragarriena 2020. urtera begirako Ordenantza Fiskalen hasierako onarpena izan zuen hizpide udalbatzak. Udal Gobernuak proposatuta, batez beste euro bat baino gutxiago igoko dira tasak datorren urtean. EAJ-ren eta Elizateen aldeko botorekin -7 boto- eta EH Bilduren abstentzioaz -4 boto-, onartua izan zen zerga eta tasen proposamena.

Nabarmentzeko igoerak

Nabarmentzeko igoerak honako arlo hauetan izango dira: ur hornikuntza zerbitzuagatik tasa %1,2 igoko da; kiroldegia KPIa beste igoko da, %0,5; eta zaborrari dagokionez, %5,13 igoko da. Enpresei ezarritako zergak ere KPLaren igoera izango dute, "euren jardunean laguntzeko", Josu Ezkurdia Hirigintza eta Mugikortasun batzordeburuaren esanetan. "Aldaketa handienak honako hauek dira: ur kontsumoaren tasa, ki-

roldegiko tasa eta zabor bilketaren tasa. Guztira, euro bat inguru izango da hileko; zehazki, 70 zentimo. Igoera oso txikia da, eta ezinbestekoa", adierazi zuen Ezkurdiak.

EH Bilduren proposamena

EH Bilduren proposamenetik zenbait onartu zituen Udal Gobernuak: etxebizitzetan hobekuntza energetikoa lortzeko obren baimenari hobaria jartzea, egubakoitzetako azokako postuei %30 inguruko tarifa beherakada aplikatzea bertako merkataritza bultzatzeko; eta bertako ekoizleei hobariak ematea bertan saltzeko. Hala ere, ondasun higiezinaren gaineko zergaren (IBI) errekarua dela-eta abstenitu egin ziren EH

**OROKORREAN,
ORDENANTZA FISKALEN
BATEZ BESTEKO HILEKO
IGOERA EURO BAT
BAINO GUTXIAGOKOA DA**

Bildukoak. Hau adierazi zuen EH Bilduko Ander Errartek: "Eskoriatzako etxebizitza hutsei IBIAren errekarua ezartzea proposatzen dugu. Herriko gazteek emantzipatzeko zailtasun handiak dituzte, etxeen alokairuen prezioak 600-800 euro bitartean daude, eta eskaintza urria da. Horrekin batera, etxe gutxi batzuk izan arren, horiek merkaturatzea eraginkorra izango litzateke...". Honen aurrean, jeltzaleek pasa den agintaldian kendu egin zutela errekarua adierazi zuten: "Ez zen eraginkorra izan. Oso etxebizitza gutxi irten ziren merkatura, bigarren etxebizitza horri erabilpena ematen diotelako", erantzun zion Ezkurdiak, datorren urtera begira proposamen adostu baten ideia mahai gainean jarrita.

Kataluniari elkartasuna

Kataluniako *Procès*-aren aurkako epaiari buruzko adierazpen instituzionala ere adostu zuten, eta hiru alderdien artean irakurri zuten testua.



Marimotots, Pirritx eta Porrotx pailazoak. KATXIPORRETA

'Bizi dantza' ikuskizunerako sarrerak salgai jarri dituzte

Azaroaren 9an estreinatuko dute lan berria Pirritx, Porrotx eta Marimotosek Eskoriatzako kiroldegian

I.B. ESKORIATZA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan *Bizi dantza* ikuskizunaren estreinaldia azaroaren 9an izango da, Manuel Muñoz kiroldegian, eta martitzena ez-kero salgai daude sarrerak, sei eurotan, kiroldegian bertan, eta online, *Tickets.kutxabank.es* webgunean.

Adin guztietakoek sarrera beharko dute 70 minutuko saioaz gozatzeko, eta oraingoan ere dantza eta musikaz betetako ikuskizuna eskainiko dute Katxiporretako pailazo ezagunak. Ohiturari jarraituz, pertsonaia

berriekin izango dira oholta gainean, eta musikarekin, dantzekin eta umorearekin ondo pasatzeko aukera izango dute bertaratzen direnek.

Dantzaren garrantzia

Gizakia hitzaren jabe izan aurretik dantzaren zela argudiatuta, honako mezu hau helaraziko dute oholta gainean Pirritx, Porrotx eta Marimototsek: "Zangoak luzatuz, gerria mugituz, hegoak astinduz eta ur azpian ere dantzatzeko gara gu. Zatoz gurekin dantzara, atera zure barruko animalia plazara!".

Haur masaje ikastaroa izango da azaroan Luis Ezeizan

Urtero moduan, haur masaje ikastaroa antolatu dute Luis Ezeiza Herri Eskolakoek. Azaroaren 4an, 7an, 11n eta 14an izango dira saioak eskolako Haur Hezkuntzako eraikinean, 17:30ean.

Haurraren garapen neuronalerako estimulurik onena kontaktua dela argudiatuz, herri eskolatik herritarrak animatu nahi dituzte masaje ikastaroan parte hartzera, gurasoek seme-alaben seinaleak hobeto sumatzeko eta lotura afektiboa sustatzeko. Hala, interesdunek 943 71 49 38 telefono zenbakira deitu dezakete. Gomendatzen den haurren adina, berriz, hilabete batetik sei hilabete artekoa da.

Zapatuan Iruñera joateko autobusa antolatu dute

Altsasuko gazteen auzia salatzeko *Duintasunaren martxa* izango da zapatuan. Altsasuko Gurasoak eta Altsasuko Aske plataformek antolatuta, Altsasutik Iruñera martxa egingo da bizikletan. Ondoren, 17:00etan, elkarretaratzea izango da Nafarroako Justizia Jauregiaren aurrean, *Hau ez da justizia* lelopean, eta bailarako zenbait herritatik autobusak jarriko dituzte bertara joateko.

Eskoriatzatik 15:00etan irten go da autobusa, erdiguneko geltokitik, eta bertara joan nahi duenak izena eman beharko du Inkernun edo Goxo-Txiki tabernan. Itzulera elkarretaratzea amaitzean izango da.



Maiatzean Fernando Eskoriatza plazan egindako bigarren eskuko azoka. IMANOL SORIANO

Bigarren eskuko azoka musikaz lagunduta dator

Gaur, 18:00etatik 20:30era bitartean, bigarren eskuko azoka izango da Fernando Eskoriatza plazan. Horrekin batera, Rockalean taldea izango da musikaz girotzen, eta VHL sindromearen ikerketari laguntzeko postu solidarioa jarriko dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Gaur, 18:00etatik aurrera, bigarren eskuko azoka izango da Fernando Eskoriatza plazan. Aurrekoetan bezala, denetarik saldu eta erosi ahal izango da azokan; betiere, egoera onean baldin badago eta bigarren eskuko baldin bada: liburuak, diskoak, arropa, altzariak, jostailuak, kirol materiala... ez dago mugarik, helburua berbera da, eta irteera ematea bere garaian erosi eta orain erabiltzen ez diren gauza horiei guztiei.

Hala, egoera onean dauden materialak saldu nahi dituztenek postua jarri ahal izango dute bertan. Horretarako, Udalak mahaia jarriko ditu eskuragai. Interesa dutenek mahaia erreserba dezakete kultura etxera deituz, 943 71 46 88 telefono zenbakira, edo mezua idatziz kultura@eskoriatza.eus helbidera. Kontuan izanda gaur arratsaldean dela azoka, postua jarri ez duenak materialak eraman ahal

izango ditu postu solidarioan jartzeko.

VHL sindromeari laguntzeko

Maiatzean egindako bigarren azokan moduan, postu solidarioa jarriko dute, eta hor batuko den dirua Sendabide elkartearentzat izango da -VHL sindromearen ikerketari laguntzeko elkarrekin-. Modu horretan, gaixotasun arraro hori ezagutzera emango dute, alde batetik, eta, bestetik, ikerketa proiektuak sustatzeko helburuarekin egingo dute diru-bilketa.

Euskal Herriko Von Hippel Lindau sindromearen inguruan eragiteko 2018an sortutako elkarrekin da Sendabide, gaixotasunaren eraginak jaso dituztenek,

ROCKALEAN MUSIKA TALDEA BIGARREN ESKUKO AZOKA GIROTZEN IZANGO DA, 18:30EAN HASITA

familiartekoei eta lagunek eratu. VHL sindromea ezaugarri genetikoek sortzen dute, eta VHL izeneko geneak duen mutazioaren ondorioz gorputzeko hainbat ataletan tumoreak hazten dira.

Rockalean taldea girotzen

Azoka hasi eta ordu eta erdira, Rockalean taldea arituko da 20:30ak arte musikaz girotzen. Bost musikaririk osatutako talde ibiltaria da, eskarmentu handikoa, eta historiako rock eta pop talde handien bertsioak egiten dituzte.

Turkiako artisau-lanak ikusgai

Plazan egongo den azokaz eta musikaz gain, Urrestilla tabernan, Josune Murgoitio *Viaje a Turquía. Mujeres en Marmaria, Estambul eta Diyarbakir* liburuaren egilea izango da Turkiako zenbait bitxirekin. Lepokoak, belarritakoak, eraztunak... probatzeko aukera izango dute bertaraten direnek.

Egitarau zabala Gaba Beltzean, eta aurretik tailerrak bi egunetan

Gozoki-eskea, ipuin kontaketa, Bidebarrietatik ibilbidea eta beste zenbait ekintza izango dira plazan eta gaztelekuan

I.B. ESKORIATZA

Ohiturari jarraituz, herriko gaztetxoak mozorrotu egingo dira Gaba Beltz egunean, gozoki-eskean joateko, eta aurretik tailerrak izango dituzte jantziak prestatzeko eta egunera begira Fernando Eskoriatza plaza apaintzeko.

Jantziak egiteko tailerra

Urriaren 29an eta 30ean, kultura etxean batuko dira, 17:00etatik 19:00etara bitartean, Gaba Beltzean nola jantzi daitekeen erakutsi eta mozorrotzeko buruko tapakia prestatzeko. Haurrentzat zuzendutako ekintzan, Tortolis ludotekako dinamizatzaileak izango dira laguntzen, eta nahi duten gurasoek ere atea irekita izango dituzte. Antolatzaileek adierazi dutenez, komenigarria da etxetik arropa zaharra eramatea. Jantziez gain, kalabazak hustuko dituzte Gaba Beltz egunean plaza jantzeko.

Urriaren 31n, Gaba Beltza

17:15ean, Huhezi unibertsitateko aparkalekutik hasita, elkarrekin eta komertzioetan Fernando Eskoriatza plazarainoko gozoki-eskea egingo da.

18:00etan, berriz, 3 eta 7 urte bitarteko haurrei zuzendutako ipuin kontaketa izango da Udal Bibliotekan. Bertan, Ines Bengoa ipuin kontalaria arituko da haurrei ipuinak kontatzen.

Arimen ibilbidea

8 urtetik gorakoentzat, aldiz, 18:00etan plazan elkartuta, Bidebarrietan ibilbidea egingo dute. Dorleta Kortazar ipuin kontalaria ibilbidean zehar pertsonaia batzuen kontakizunak egingo ditu eta, horrez gainera, sorpresa asko izango dituzte haurrek.

Eguraldi txarra egiten badu, Ibarraundi museoa ipuin beldurgarriak kontatuko ditu Dorleta Kortazarrek.

Bestelako hitzorduak

19:30etan, pertsonaia beldurgarri batzuk izango dira plazan haurren atzetik erratzarekin: *Arima harrapatzaileak plazan*. 20:00etan, plazako ekitaldiak amaitzeko, sorgin edabea banatuko dute haurren artean: *Sorgin edabea*. Azkenik, 12 urtetik gorakoentzat, 22:00etatik 22:30era, jolas beldurgarriak izango dira gaztelekuan.

65 lagun batuko dira Egokienan, bertso-afariaz gozatzeko

Eskoriatzako Egokiena elkartearen bertso-afaria izango da gaur, egubakoitza, 21:00etan hasita. Bertan, maila handiko bertsolariak batuko dira: hain zuzen ere, Haizea Arana, Oihana Arana, Onintza Enbeita eta Unai Iturriaga bertsolariak izango dira bertsoetan eta gai-jartzailea, berriz, Xabier Arenaza izango da.

Bertara joateko txartelak da-goenek erretiratu dituzte Goxo-Txiki eta Inkernu tabernetatik, eta, guztira, 65 lagun batuko direla adierazi dute antolatzaileek. Aurretik, baina, motorrak berotzen hasteko asmoz, 19:30ean, triki-poteoa egingo dute herriko tabernetan zehar.

'Ikasgaia' antzerkia izango da domekan, 19:00etan, Zaldibarren

Taupada antzerki taldearen eskutik, *Ikasgaia* antzerkia izango da Zaldibar antzokian, domeka honetan. Emanaldia 19:00etan izango da, eta sarrerak alde aurretik erosi beharko dira kiroldegian, lau eurotan. Helduentzat zuzendutako antzerkia euskaraz da, eta oholta gainean Sara Iriondo eta Jon Olivares izango dira.

Batxilergoa ikasten duen gazte batek eskola partikularrak jasotzen ditu irakasle nagusi baten etxean. Gaztea hasieran motibatu sentitzen da, baina, azkenean, bere indar guztia galtzen du. Irakaslea, aldiz, hasieran lotsati eta urduri azaltzen bazen ere, gero eta agresiboago azalduko da.

Zuloetan barrena arituko dira pilotuak 4x4 trialean

Eskomotor taldeak antolatutako Eskoriatzako hamabigarren 4x4 trial erakustaldian, 25 gidarik hartuko dute parte. Aurten, errepikatu egingo dute lekua; izan ere, iazko toki berean izango da proba. Hain zuzen ere, Torrebaso poligonoan, 15:00etan hasita

Imanol Beloki ESKORIATZA

Zapatu honetan, hamabigarren 4x4 trial erakustaldia izango da Torrebaso poligonoan. Hau da, Esteibar baserriaren eta argi-transformadorearen arteko lurzatian. Aurten, bigarrenegingo dute leku horretan, eta, izenematea beteta –25 pilotu–, gaur arratsaldean eta bihar goizean atonduko dute eremua.

Eskomotor taldeak antolatuta, eta Eskoriatzako Udalak babes-tuta, hoguei lagun inguru arituko dira aurretiko prestakizun lanetan eta egunean bertan laguntzen. Hala, probaz gozatu nahi dutenek hiru euro ordaindu beharko dute sarrera, eta eremuaren barruan musika eta txosna izango da.

Abantailak eta desabantailak

"Beste lekurik ez dugunez, Torrebasoko lursailean egingo dugu aurtengo edizioa. Leku txikia izan arren, bere abantailak ditu; esaterako: leku zoragarria da, herritik gertu dago eta ikusleak autoetatik gertu egon daitezke erakustaldiaz gozaten... Hala ere, autoak mugitzeko leku txikia dago, eta, horregatik, parte-hartzaile kopuru muga ezarri behar izan dugu. Beraz, pazientzia eskatzen diegu ikusleei. Honekin batera, eguraldiak ere



Iaz, Torrebaso poligonoan egindako 4x4 trial erakustaldia. IMANOL SORIANO

asko baldintzatzen du; ea ona egiten duen...", azaldu du Ibon Aranburuzabalak, Eskomotor taldeko kideak.

Galiziatik parte hartzera

Errepidean ibili daitezkeenez eta hibridoek edo prototipoek parte hartuko dute hamabigarren edizio honetan, eta pilotuak, bailarakoak zein Bizkaitik eta Nafarroatik datozenak izango dira gehienak. Hala ere, kanpotik ere izango dute bisitaria: "Euskal Herritik kanpoko zenbait lagunak beti egiten diegu gonbi-

dapena, eta aurten, Galiziatik etorriko da lagun bat parte hartzera. Proba ikustera etorri izan da zenbait ediziotan, baina lehenengo aldiz izango da parte hartzen Eskoriatzan", adierazi du Aranburuzabalak.

Eskerrak laguntzailei

Antolakuntzako kideek eskerrak eman gura izan dizkiete prestaketa lanetan eta erakustaldian laguntzen aritzen dien guztiei, babesleei, eta baita Eskoriatzako Udalari, urtero-urtero emandako laguntzagatik.



Kepa Atutxa mendi-etxeen arduradun berria Juanito Bengoarenekin. IMANOL BELOKI

Hamabost egun barru zabalik izango dira mendi-etxeak

Gaztainuzketan jatetxe eta tabernarik egongo ez den arren, esperientzia berri baten aldeko apustua egingo dute

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Zeanuriko Randa Farhat-ek eta Kepa Atutxak hamabost egun barru irekiko dituzte Gaztainuzketako mendi-etxeak. Ez dute taberna eta jatetxea mantenduko, hasiera batean, eta, mendi-etxeetan hobekuntza batzuk egiteaz batera, esperientzia berri bat eskainiko dute.

"Naturaren esperientzia zuzena bilatzen duten bezeroei zuzenduta, basoak terapia moduan erabiltzeko proiektu bat jarriko dugu martxan. Terapia hau jatorriz Japoniakoa da, *Shinrin Yoku* izenekoa, eta guk euskaraz *Basoaz*

blai izendatu dugu. Hiriko kutsaduratik eta laneko tentsiotik urrunduz, lasaitasuna eta natura batzen dituen", adierazi du Kepa Atutxak.

Bezeroen eskaeraren arabera

Jatetxerik egongo ez den arren, aurrera begira, bezeroen eskaerari erantzunez, otordu bereziak prestatu ditzaketela adierazi du Atutxak: "Naturarekin harremana oinarri, menu begetariano batzuk adostu ditzakegu, baina hori ikusteko dago. Hasiera baten zerbitzua eskaintzen hasi, eta gero etorriko dira berrikuntzak".



GATZ MUSEOA

Oñatiarrek Gatzaga bisitatu dute

Pasa den astean, Oñatiko Txantxiku Ikastolako ikasleak Gatzagan izan ziren bisitan. Museoko arduradunek eskaintzen duten ikasturteko lehenengo bisita izan zen Hiruerreketara, eta oñatiarrek mendi buelta eginaz Deba ibaiaren sorlekua ikusteko aukera izan zuten. Horren ostean, berriz, Gatz Museoa izan ziren gatz ekoizpenaren gaineko azalpenak entzuten.



JOANES BAZTERRIKA
PARTE-HARTZAILEA

"Beste edizio batzuetan moduan, Nissan Patrol GR-ari garrotea emateko asmoz joango naiz Eskoriatzara, eta, nola ez, ederto pasatzera".



IÑAKI ZUAZUBISKAR
PARTE-HARTZAILEA

"Eskoriatzako proban aritu izan naiz laguntzen, baina pilotu bezala lehen aldiz izango da. Helburua, betiko moduan, ondo pasatzera izango da".



MIKEL FERNANDEZ DE ARROIABE
PARTE-HARTZAILEA

"Antolakuntza lanetan aritu naizen arren, parte hartuko dut. Beti bezala, ondo pasatzera izango da asmoa, eta dena ondo irtetea".



2018-2019 ikasturteko programazioaren aurkezpena, 2018ko urrian, kartzela zaharrean. IMANOL SORIANO

'Txapa' ematen jarraituko dute

1980ko hamarkadako irrati libreen loraldian jaiotako Txapa irratiak 35 urte bete ditu, eta ospakizunek bihar hasi eta azarora arte iraungo dute; hamabost saiorekin abiatuko dute denboraldia, ideia berriei ateak "erabat" zabalik: "Uhinak astintzen jarraituko dugu"

Jokin Bereziartua BERGARA

Lehen egoitza Artekaleko ESK sindikatuarena izan zen, alde aurretik asteburu batzuetan saio batzuk Seminarioko arkupeetatik egin bazituzten ere. 1984an hasi zuelako ibilbidea, euskal irrati libre gehienek bezala, Bergarako Txapa irratiak. 1989an, Udalarekin akordioa egin ostean, Zabalotegiko dorretxearen azpiko lokaletik hasi ziren emititzen. Bertan egon ziren kartzela zaharra ireki eta beharrezko obrak egin bitartean, 2005era arte. 2006tik gaur egunera arte kartzela zaharretik dihardute "uhinak astintzen".

Txapako historiaren mugarriak

Gaur egungo txapakideen arabera, "osasuntsu" dago irratiak: "Aurten hamabost irratsaioekin abiatuko dugu ikasturtea, horietatik bi berriak. Autokritikoak

gara eta gustatuko litzaziguke jende gehiago erakartzea, inkonformistak ere bagarelako, baina pozik gaude. Jendea badugu irratsaioak ekoizten, jarraitzeko gogotsu daudenak, oraingoz", adierazi dute.

Urteotan Txapa irratiaren izan diren mugarriak gogoratu dituzte txapakideek, betiere, lehen urteetako hainbat kontu lausotuta geratu direla aitortuta: "Hasieratik aritu denik ez dugu lantaldean, eta, horregatik, Txaparen historiako pasarte batzuk galdu egin dira. Baina badakigu lehen fase batean Hala Bedi, Tas-

ESK SINDIKATUAREN ARTEKALEKO LOKALA IZAN ZEN TXAPA IRRATIAREN LEHEN EGOITZA, 1984AN

Tas eta Eguzki irratiak jendea ezagutzen zuten bergarar batzuek erabaki zutela irrati libre bat sortzea. Aparatua Gasteiztik ekarri zuten, Hala Bedikoena".

Txapa irratiak, baina, kartzela zaharrean egonkorta zen: "Teknologia berriek asko erraztu zuten funtzionamendua. Ordenagailuek eta Internetek ahalbidetu zuten, esaterako, 24 orduko programazioa izatea; Zabalotegin irratiak pizten zen jendea joaten zenean". Azken mugarri garrantzitsuenetako bat izan zen Arrosa sarean sartzea: "Arrosa oso garrantzitsua da gurea moduko irrati libre txiki batentzat. Elkarlana eta elkartrukea oinarri, gauza asko egin daitezkeela frogatu dugu".

Urteurrenaren 'txupinazoa' bihar
Urteurrenako ekitaldi esanguratsuenak azaroan izango badira



25. urteurrenako festaren ospakizuna, 2009ko azaroaren 21ean. TXAPA IRRATIA

Duela hamar urte ere, "sasoi betean"

25. urteurrenako festan, Txapa-poteoa, programazioaren aurkezpena eta baba-jana izan zituzten. Urteurrenara "sasoi betean" heldu ziren, erraztasun teknikoak lagun: "Garai berriak izan arren, garrasi egiteko eta gure komunikabidea izateko beharrak bere horretan jarraitzen du".

ere, ospakizunen *txupinazoa* antolatu dute biharko, urriak 26, arratsalde-gau musikatu eginda.

Arratsaldeko zortzietan, Botibol taldearen kontzertua izango da, musu truk. Frantziako talde hau disko berriarekin etorriko da, *La Fièvre Golby* izenekoa; Vincent Bestaven artistaren hirugarren lan luzea da. Ondoren, 23:00etatik aurrera eta bost euroren truke, Pelax eta Joseba Irazoki izango dira kartzela zaharreko agertoki nagusira igoko direnak. Donostiako Pelax taldea gidatzen duen Unai Pelayo musikariak disko berria kaleratu du; donostiarrek A, B, D eta E aldeak barnebiltzen dituen disko bikoitz berezia aurkeztuko dute. Gaua borobiltzeko, Joseba Irazoki artista polifazetikoa bere musikari lagun hurkoenekin batera igoko da oholtzara. Azken diskoa kaleratu berri du Irazokik, Bidehuts zigiluarekin: *Zu al zara?*.

Dynamokoen keinu polita Txapari

Euskal Herriko zinema aretorik txikienak ere bat egingo du Txaparen 35. urteurrenarekin. Izan ere, Dynamo zineklubeko kideek kartzela zaharreko zortzigarren ziegan egokitu zuten

35 URTEOTAN TXAPATIK PASATU DIRENAK GONBIDATU DITUZTE AZAROAREN 23KO BAZKARIRAKO

aretoan bereziak izango dira azaroko emanaldiak: "Dynamoko lagunek omenaldi txiki bat egin nahi izan digute, eta azaroko eguaztenetan irratiarekin lotutako filmak ikusteko aukera izango da 21:00etan hasita", diote. *Radio encubierto*, *LT22 Radio La Colifata*, *Radio Favela* eta *Rebellion en las ondas* dira aukeraturako pelikulak.

Hiru hitzordu nagusi azaroan

Txaparen urteko mugarrietakoan artean dago programazio berriaren aurkezpena; azaroaren 10ean izango da, eta gonbidatu berezi bat izango dute: "Aitor Escobar arrasatearra izango da bere flamenkoa eta artea erakusten".

Azaroaren 22an, Arrosa Sareko irratiak elkarlanean ekoizten duten *Zebraidea* magazina kartzela zaharrean egingo da. 16:00etan hasita, bi orduz, irratsaioa zuzenean ikusteko aukera izango dute nahi dutenek, sarrera irekia izango delako.

Urteurrenako ekitaldi kutuna azaroaren 23rako utzi dute. 35 urteotan Txapan ibilitako lagunekin bazkaria egingo dute herriko elkarte batean. Izena eman nahi duenak hiru aukera ditu: kartzela zaharrera jo, 943 76 46 telefono zenbakira deitu edo txapa35urte@gmail.com helbide elektronikora idatzi.

Bazkariak harago, irratiak ateak "erabat zabalik" dituztela gogoratu dute txapakideek: "Animatu zure irratsaioa egitera, uhinak astintzen jarraituko dugu eta".

Taula periodikoaren urtea izanik, wolframari keinu berezia jardunaldietarako

Urriaren 28an hasi eta azaroaren 10era arte izango dira aurten zientzia eta berrikuntza jardunaldiak; 2019a taula periodikoaren urtea denez, wolframak protagonismo berezia izango du askotariko erakusketa, hitzaldi, lehiaketa, ikastaro eta ikuskizunen artean

Jokin Bereziartua BERGARA

Astelehenean hasi eta azaroaren 10era arte, zientziak, teknologiak eta berrikuntzak protagonismo berezia izango dute Bergaran, badatoz-eta Zientzia eta Berrikuntza jardunaldiak. Erakusketak, hitzaldiak, lehiaketak, ikastaroak eta ikuskizunak izango dira. Egitarauaren gaineko informazio guztia dago *Ztbergara.eus* webgunean, baina Udalak aditzera eman du ekintzetan izena emateko Laboratoriumera deitu beharra dagoela: 943 76 90 03.

Jardunaldion garrantziaz jabetzeko, Udalarekin elkarlanean aritu diren eragile kopurua ikusteak besterik ez dago. Aurten, 25 eragile izan dira: "Eskertu nahi nituzke parte hartu duten eragileak eta jardunaldiotan halako interesa jartzen duten herritarrak. Adituendako bai, baina edozein herritarrendako moduan planteatzen delako egitaraua, betiere zientzia, teknologia eta berrikuntza herritar guztiei hurbiltzeko asmoz", esan zuen eguazten iluntzeko agerraldian Sustapen Ekonomikorrako eta Berrikuntzarako zinegotzi Ainhoa Letek.

2019a, taula periodikoaren urtea

Programako ekintzak urriaren 28tik azaroaren 10era bitartean gauzatuko badira ere, Laboratoriumeko arduradun Rosa Errazkinek nabarmendu du 2019a Taula Periodikoaren lotutako urtea denez, urriaren 1erako

EKINTZETAN IZENA EMAN NAHI DUENAK LABORATORIUM MUSEORA JO BEHAR DU: 943 76 90 03

Passion for Wolframium ekitaldia antolatu zutela. Bertan izan ziren Dudley Hersbach Nobel sariduna eta Maria Vallet ikerlaria. "Luxuzko adituak, eta oso gertukoak izan ziren. Oso gertuko aritu ziren ikasleekin eta herritarrekin", dio Errazkinek.

Wolframaren erabilerekin berbetan

Bergaran isolatu zen wolframaren bueltan ekitaldi berezi batzuk antolatu dituzte. Esaterako, azaroaren 6tik martxora erakusketa "polita eta emankorra" izango dute Laboratoriumen.

Baina, horrez gain, Ainhoa Lete zinegotziaren arabera, badago Bergararekin lotura oso estua duen beste ekitaldi bat: "Wolframaren erabilerekin bueltan ezjakintasuna dagoenez, elementu kimiko horrekin lan egiten duen Bergarako TTT, Metagra eta Gureak enpresen elkarlanaren lekuko izango gara. Wolframarekin lan egiten dutenez, elementu horrek industria munduan izan ditzakeen aplikazioen gaineko hitzaldi bat emango dute". Gainera, aurten go pieza gonbidatua hiru enpresa horiek ekoiztutakoa izango da; urriaren 31n egongo da ikusgai tresna ebakitzaile edo *kontantea* izenez ezaguna dena.

ZTB moduan, bosgarren edizioa

Enplegu eta garapenerako teknikari Marije Unamunok jardunaldi hauek "adar asko" dituela ekarri du gogora: "Adin, zaletasun eta maila guztietarako ekintzak daude. Espero dugu aurten ere jendeak asko gozatzea". Besteak beste, Unamunok honako saio hauek azpimarratu ditu: Silvia Ayerrek gidatuko duen *Kontatu gabeko emakumeak artearen historian* hitzaldia –lau saio eskainiko ditu Ayerrek eta

joateko izena eman behar da–, aurten egun bakarrera mugatuko den bideo jokoan Wolfram Encounterra eta umeengan arrakasta izan ohi duen *Dinosaurioetatik hegaztiara* erakusketa.

Antolatzaileen arabera, ekimen berritzaileen "laborategi-probaleku edota topagune" izan nahi duen egitasmoa da. Jardunaldiok ZTB izena hartu zutenetik bost urte bete dira aurten, baina lehenago hainbat urtez antolatu izan ziren IKT Astearen jarraipen moduan uler daitezke.



Jardunaldien berri emateko agerraldia, Laboratoriumen atarian. MAIALEN SANTOS



Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, ondoko hau erabaki da behin-behineko izaeraz:

Ondorengo ordenantza fiskalak aldatzea:

1. Ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duena.
2. Ekonomia jardueren gaineko zerga arautzen duena.
3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duena.
4. Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duena.
5. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duena.
6. Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituena.
7. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden tasak arautzen dituena.
8. Zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatik ezarrita dauden prezio publikoak arautzen dituena.

Erabakia udalbatza osoak 2019ko urriaren 21eko bileran hartu zuen. Erabaki hori behin betiko bihurtuta, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean eta 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.

11/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritik, behin-behineko erabaki hau 30 lanegun jarriko da ikusgai jendaurrean udaldebako iragarki taulan, interesatuek espedientea aztertu eta egoki deritzoten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Erakustaldia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez jakinaraziko zaio jendeari, eta iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da epea kontatzen. Informazio honen arauzko epea erreklamaziorik gabe igaro ondoren, hartutako akordioak eta adierazitako agiriak behin betirako onartuak izango dira akordio berririk hartu beharrik izan gabe.

Bergara, 2019ko urriak 21
ALKATEA



EH Bilduko Gorka Artola EAJko Elena Leteri erantzuten, ordenantza fiskalen gaineko eztabaidan. JOKIN BEREZIARTUA

Ados jarri dira 2020ko ordenantza fiskaletarako

2018ko urritik 2019ko urrira arteko KPIaren arabera igoera orokorra onartu dute 2020ko udal zerga eta tasetarako; berritasun nagusia da azken urteetako joera hautsi eta EH Bilduk zein EAJk babestutako ordenantzak direla. PSE-EE abstenitu egin zen

Jokin Bereziartua BERGARA

2020ko udal zergek, tasek eta prezio publikoek 2018ko urritik 2019ko urrira arteko KPIaren arabera igoera orokorra izango dute. Hori onartu zuen udalbatzak, behin-behineko izaeraz, asteleheneko ezohiko osoko bilkuran. Helegiteak aurkezteko epea irekita dago, eta epe hori

gainditu eta ordenantza fiskalak behin betiko izaeraz onartzen direnerako Udal Gobernuak jakingo du zehazki zenbatekoa izango den KPIaren igoera.

Ogasun zinegotzi Aitor Arantzabalek Gobernuaren proposamenaren berri ematerakoan gogora ekarri zuen udal aurrekontuko sarreraren erdia orde-

nantza fiskaletatik heltzen dela: "Sarreraren %50 inguru dira zerga eta tasa hauek, eta ezinbestekoak dira udal zerbitzu eta proiektuak aurrera ateratzeko. Ordenantza fiskalen izaera progresiboa indartzeko asmatan hobariak indartu ditugu diru sarrera xumeenak dituzten familia eta norbanakoentzat; eta

datozen urteetan udal fiskalitatean bide hori lantzen jarraitzeko asmoa dugu". Irisgarritasuna bermatzeko obrak aurrera eramateko, energia berriztagarriak ezartzeko eta euskara ikasteko hobariak onartu dira, besteak beste. Esaterako, irisgarritasun baldintza guztiak betetzen dituzten komunitateei %90eko hobaria aplikatuko zaie; energia berriztagarriak aprobetxatzeko sistemak ezartzen dituzten etxebizitzentzat %50eko hobaria.

EAJ: "Gure ordenantzak dira"

Zergok eta tasok, gainera, bi talde nagusien oniritzia dute. Albiste delako EH Bildu eta EAJ ados jartzea ordenantza fiskalak zehazterakoan. Gorka Artola alkatearen ustez, Gobernu honen "jarrera irekiaren" seinale da adostasunera heldu izana: "Proposamen zabalak egin genituen duela lau aste, eta eman dugu aukera horiek lantzeko eta ados jartzeko. Horren emaitza da gaurko [asteleheneko] osoko bilkuran ikusi duguna".

EAJk alde bozkatu zuen, diotenez, iaz EAJk proposatutako ordenantzaren oso antzerakoak direlako: "Ordenantza kontinuitak dira, iaz guk proposatutakoen oso antzekoak. Horregatik esan dezakegu EAJren ordenantzak direla, eta horregatik eman dugu aldeko bozka. Hori bai, argi geratu da EH Bilduk oso modu ezberdinean jokatzeko duela Gobernuan edo oposizioan dagoe-

nean. Azken urteetan egin izan dituzten hainbat eskaera ahaztu egin dituztela dirudi".

PSE-EE: "Hobetu zitezkeen"

Alderdi sozialista, berriz, abstenitu egin zen. "Kontinuistak badira ere, ordenantzok hobetu zitezkeen, eta horregatik abstenitu gara. Bestalde, asko harritu gaitu EH Bildu oposizioan zegoenean ordenantzak eta beste hainbat gauza aldatzea behin eta berriz eskatu ostean, orain Gobernuan daudenean halakorik ez eskatzea. Konturatu dira agintean egoteak ez duela zerikusirik oposiziotik egin daitezkeen aldarrikapen sutsuekin; erabakiak hartzen hasi beharko dute lehenbailehen", uste du PSE-EEko Alberto Alonsok.

40 minutura heldu ez zen bilkura

Ezohiko deialdian deitutako bilkuran onartu ziren ordenantza fiskalak, Mankomunitaterako izendapen batzuekin batera. Aipagarria da bilkura oso motza izan zela, ez zen-eta 40 minutura heldu; iaz beste hainbat gai jorrratu baziren ere, lau ordu pasatxo iraun zuen 2019ko zergak eta tasak onartzeko bilkurak.

40 MINUTURA EZ DA HELDU ORDENANTZAK ONARTZEKO BILKURA AURTEN; LAU ORDUTIK GORA IRAUN ZUEN IAZ

GORA ETA BEHERA



Edukiontzi handiagoak autokarabanentzat

Azken zenbakian argitaratutako kexan, herritar batek salatu zuen Labegarietako autokarabanen guneko edukiontziak txiki geratzen zirela sarritan. Bada, beste herritar batek txalotu egin nahi du jarri dituztela errefusa eta plastikoa batzeko edukiontzi handiagoak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



GOIENA

Bizikleta martxa Vasco Navarroaren ibilbidetik, artelanak bisitatzeko

Bihar, urriak 26, bizikleta martxa berezi bat irtengo da San Martin plazatik (10:00). Nomadak-El trenico proiektuaren barruan, Vasco Navarro trenak egiten zuen ibilbidean zehar mundu osoko artistek egindako lanak ikusteko eta artisten azalpenak bertatik bertara entzuteko balioko du bizikleta martxak; Bergaran hasi eta Eskoriatzan bukatuko dute txangoa. Hain zuzen, ertzain-etxe azpiko pasabidea eta Gabiriako tunela margotuko dituzte Bergaran; Irantzu Lekue euskal artista garaikidea ertzain-etxearen azpian ari da lanean eta Esteban Loeschbor artista granadarrak Gabiriako tunelaren sarrera itxuraldatuko du.

OHARRAK

Heriotzaren gaineko errituak ezagutzeko aukera

Herio anderea: una noble señora izeneko bisita gidatuak egingo dituzte Angiozarren, bihar eta etzi (11:00). XVIII. eta XIX. mendeetako euskal ohiturak izango dituzte berbagai. Zapatukoa euskaraz izango da eta domekakoa gaztelaniaz. Doakoa da, baina izena eman beharra dago aurrez, Laboratoriumen: 943 76 90 03.

Asfaltatze lanak Herrilagunak kalean

Gaur, urriak 25, Ibargarai 4 eta 14 bitartean zirkulazioa moztuta egongo da Herrilagunak kalean –Migel Altuna zenaren parean–, asfaltatze lanak direla eta. Zirkulazioa 08:00etan moztuko da eta lanak bukatu arte egongo da itxita. Ibargarai 7 eta 9. atarteetan eta Katabiako geltokietan ez da autobus zerbitzurik egongo, eta Torrekuako geltokia izango da alternatiba. Bolura joateko Artekaletik bideratuko da zirkulazioa, lanek iraun bitartean.

1937an eta 1951n jaiotako ospakizuna

1937koan jaiotakoek azaroaren 9an Sirimiri jatetxean bazkalduko dute. Izena emateko jatetxetik pasatu beharra dago azaroaren 5a baino lehen, eta 20 euroko txartela eskuratu. 1951n jaiotakoek, berriz, azaroaren 9an Zumelaga jatetxean bazkalduko dute; parte hartzeko, jatetxera deitu behar da urriaren 29a baino lehen.



Eskubaloiko mutilen lehen taldea, Eibarren aurkako partiduan, aurreko astean. BERGARA ESKUBALOI

"Polita litzateke berriz ere igoera fasera iristea"

Bi partidu jokatu ditu denboraldi berrian Lehen Territorial Mailako mutilen eskubaloit taldeak. Bat galdu eta bestea berdinduta, "oinarri sendoekin" lanean aritzeko "oso gogotsu" agertu dira, baita, iaz egin bezala, igoera fasean lehiazteko ere

Jone Olabarria BERGARA

Urriaren 5ean ekin zion denboraldiari Bergarako eskubaloiko Lehen Territorial Mailako taldeak. Orditik hona, bi partidu jokatu dituzte eta, emaitzak espero baino "okerragoak" izan diren arren, aurtengo oinarria "sendoagotuago" dagoela adierazi du Alatz Etxebarriarteun kapitainak: "Lehenengo partidua nahiko ondo hasi genuen, defentsaren lana ona izan zen, baina azken zatian ez genuen jakin jokoa mantentzen. Bigarren partiduan, aldiz, ez ginen hain fin aritu. Dena den, aurreko denboraldiarekin alderatuz gero, taldea sendoago dago; iaz, kontzeptu batzuk barneratzea falta zen. Oraingo oinarria hobea da".

Taldeari dagokionez, aldaketa gutxi izan dituztela azaldu du kapitainak, eta aitortu duenez, liga "gogorra" izatea espero dute: "Partiduro puntuak ateratzen saiatu behar dugu. Ez gara inor baino gehiago, ezta gutxiago ere. Soberan dakigu gauzak ondo

egiten ez baditugu edozein talderen aurka galtzeko arriskua dugula".

lazkoa errepikatzea helburu

Denboraldi batek gorabehera ugari izan ditzakeela gogorazi du Etxebarriarteunek; horren adibide da iaz taldeak egindako ibilbidea: "Lehenengo partidua galduz hasi ginen, ez ginen oso fin ibili eta ez genuen puntu askorik ateratzea lortu. Nahiko beheko postuetan ibili ginen lehen bueltan. Gero, baina, lan handiarekin eta gauzak ondo eginda, igoera fasera heldu ginen".

Hain zuzen, hemendik aurrerako helburuez galdetuta berriz ere lehen postuetara iritsi eta igoera fasean lehiazteko "polita" izango litzatekeela aitortu du taldeko kapitainak.

Asteburuan Ordiziaren aurka

Bihar, zapatua, Ordiziaren aurka jokatuko dute, Labegaraietan, arratsaldeko lauretan. "Partidu guztietan egiten dugun moduan,

dena ematera joango gara, taktikoki gure kontzeptuak argi ditugu eta nahiko berdintsu mantentzen ditugu beti. Denboraldi-aurrean Ordiziaren aurka jokatuko eta irabazi egin genuen, baina ezin gara fidatu. Intentsitatea markatu eta akatsik ez egitea izango da partiduen gakoak, betiere, taldearen konfiantza osoa jarrita".



BERGARA KE

Entrenatzaileak, formakuntzan

Aurreko asteko zapatuan, hilak 19, goizean, Bergara kirol elkarteko futbol saileko entrenatzaileentzako aurtengo denboraldiaren lehen formakuntza saioa egin zuten Agorrosinen. Klubetik azaldu dutenez, "oso goiz aberasgarria izan zen", eta eskerrak eman nahi izan dizkiete bertan parte hartu zuten guztiei.

Bizikleta festa egingo du bihar arratsaldean Lokatzak Ibargarain

Txirrindularitza sustatzeko helburuarekin, bizikleta gainean jarduteko aukera izango dute neska-mutikoen zapatuan. Izan ere, Lokatzak antolatuta, Bizikleta Festa egingo dute bihar, zapatua, 17:00etan hasita, Ibargarai kalean.

Jaialdia 2006 eta 2017 urte bitartean jaiotako neska-mutikoei zuzenduta dago, eta parte hartu nahi duten gazteek bizikleta edo mini-motoa eraman beharko dutela jakinarazi dute Lokatzatik, eta baita kaskoa ere. Txirrindularitzaz gozatzen ekintza ezberdinekin batera, Bergarako hainbat txirrindulari profesional ere bertan izango dira arratsaldean zehar.

Lesionatuta itzuli da Fernando Cobos lasterkaria Belgikatik

Beasainen jaio baina hainbat urtez Bergaran bizi izaten daraman Fernando Cobos txakurkros lasterkaria Belgikan lehiatu zen joan den asteburuan. Europako txapelketaren barruan beteranoetako Master 3 modalitatean aritu zen Cobos.

Hasiera batean finkatutako helburua lehen bosten artean amaitzea bazen ere, ezin izan zuen nahia bete. Izan ere, zuntz haustura izan zuen lasterketan ari zela eta, ondorioz, proba utzi behar izan zuen. Denboraldi berria hasteko gutxi falta den honetan, Belgikan gertatutakoarekin "oso penatuta" bueltatu da Cobos: "Ea errehabilitazioa nola daramadan".

Proiektuak - Koltxoiak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak - Eskailerak
 Leihoak - Tarimak
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com

Enpresa Enregistrada V002/025

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Organo Erromantikoaren XX. Zikloaren baitan aurreko astean egindako kontzertua. GOIENA

Ikasleak protagonista organoarekin hitzorduan

Biharko kontzertuarekin emango zaio amaiera Organo Erromantikoaren XX. Zikloari Bergaran. Nazioarteko organo-joleen ostean, ikasleen txanda izango da biharkoa Santa Marinan, 19:00etan; bi bergarar ere izango dira: Elena Laka eta Leo Juaristi

Jone Olabarria BERGARA

Hogeigarren aldiz egiten aritu dira hilabete honetan Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloa. Bergarako, Azpeitiko eta Azkoitiko udalek Fray Joseph de Echevarria Organoaren Adiskideen Elkartearekin elkarlanean antolatzen duten ekimena da honako hau. Aurten, urriaren 5ean hasi zuten kontzertu sasoa eta bihar, zapatua, emango diote amaiera Santa Marina parrokan.

Hain zuzen ere, bihar, urriaren 26ean, 19:00etan, organo ikasleen kontzertuaz gozatzeko aukera izango da, tartean bi bergarar direla: Leo Juaristi eta Elena Laka. Biek ala biek zortzi urte inguru daramatzate Bergarako Organo Eskolan ikasle; ia hasieratik. Lakak pieza "nahiko garaikidea" joko du, O. Messiaen konpositore frantsesak 1932. urtean sortutako *L'apparition de l'église éternelle*. Juaristik, aldiz, pieza "erromantikoagoa" interpreta-

tuko du, Louise Vierneren *Bi-garren sinfonia* izenekoa.

Instrumentu "exijentea"

Lakak adierazi duenez "etxean jotzea beti da pozgarria". Zapatuko kontzertua prestatzen "ordu asko" eman dituztela aitortu du eta gogorarazi du organoa instrumentu "oso exigentea" dela: "Bi eskuak eta bi hankak behar dituzu instrumentua jotzeko eta hiru pentagrama batera irakurri behar dituzu".

Pieza bereziak entzungai

Nazioarteko organista handiekin alderatuta "haien anaia txikiak" direla adierazi du Lakak, baina, hain zuzen, "horiek dira jende gehien erakartzen duten hitzor-

"PIEZA BEREZIAK EGONGO DIRA ENTZUNGAI, GUTXITAN JOTZEN DIRENAK, ETA OSO ZORROTZAK"

duak, baita abesbatzekin batera egiten diren emanaldiak". Biharko kontzertuaz galdetuta, "gogotsu" agertu dira: "Oso programa interesgarria izan du aurten Nazioarteko Organo Zikloak. Ikasle on artean ere, nire ikaskide Leo Juaristik pieza bereziki zorrotza joko du, eta, zalantza barik, entzutea merezi duena. Oso arraroa da, aukera gutxi egoten dira halako obrez gozatzeko".

Herritarren gustukoa

Programa "betea eta denon gustukoa izango dena" antolatu nahi izan zuten Bergarako Udalak, Azkoitiko Udalak eta Azpeitiko Udalak elkarlanean. Hala adierazi zuten zikloaren aurkezpen saioan antolatzaileek: "Organoa balioan jartzeaz gain, belaunaldi berriei ere gerturatu nahi diegu instrumentua". Helburu horrekin, hain zuzen, ekartzen dituzte nazioarteko organo-jole handiak kontzertuak egitera".

Egubakoitzak Berreskuratzen ekimena gaur itzuliko da

Kultura hitzordu bat proposatzea du helburu, eta, hain zuzen, gaur bi kontzertuekin bueltatuko da

Jone Olabarria BERGARA

Egubakoitzetan kultura hitzordu bat proposatzea helburu duen Egubakoitzak Berreskuratzen kolektiboaren kontzertuak itzuliko dira gaurtik aurrera Bergarara. Hala, gaur, urriak 25, 22:30ean, Bergarako kartzela zaharrean MICE eta Iker Martinez eta Zaldi Herrenak arituko dira taula gainean.

Eskaintza zabala

MICE eta Iker Martinezen ardua izango da Egubakoitzak Berreskuratzen ekimenari hasiera ematea.

MICE Miren Narbaiza eibarraren proiektua da. Urte luzez hainbat proiektutan ibili eta gero, bakarkako bideari ekin dio. Oraingo honetan, bikote moduan aurkeztuko du disko berria, Joseba B. Lenoirrekin batera.



Martinez kontzertuan. BONBERENEA

Iker Martinez de Zuazo oñatiarra ere, Latzen, Amonal eta Potemkin taldeetan gitarra jo ondoren, kartzela zaharrean arituko da. 2016an bere konposizioak egiten hasi, eta 2017an disko bat atera zuen, *Itzalen mundua* izenekoa.

Beira taldearen kontzertua gaur gauean Bule tabernan

Goiena komunitatea

Jardun / BERGARA

Oiartzunen sorturiko Beira musika taldeak kontzertua eskainiko du gaur gauean, egubakoitza, hilak 25, 23:00etan hasita.

Jon Martin bertsolariak eta Igor Arruabarrena gitarristak –Hobira taldeko kide ohia– osatzen dute Beira. 2006an konposatu zuten lehen kantua, baina 2013. urtera arte ez zioten tal-

de itxurarik eman elkarlanari. *Dena ez denean ezer* estreinako lan luzean Martinek sortutako bertsoak musikatutuzten, baina ez dira bertso tipikoak; horietako asko zortzi silabakoak dira, eta errima ezberdinak daude bertso bakoitzean.

Lehen lanaren ostean, 2016an *Margotu berria* argitaratu zuten, tonu intimoko doinuak gehienak. Urtebete geroago, 2017an, *Braillean* lana argitaratu zuten. Hala, taldearen lanetan batutako doinu guztiak entzungai izango dira gaur gauean, 23:00etan hasita, Bule tabernako taula gainean.

'Contra la democracia' antzezlan domekan Seminarixoa

Seminarixoak *Contra la democracia* antzezlan hartuko du domekan, hilak 26, arratsaldeko zortzietan. Teatro Noctambulo taldearen eskutik terrora eta komedia nahasten dituen lan honetaz gozatzeko aukera egongo da.

Contra la democracia zazpi lan txikiz osatuta dago; hain zuzen, *Grand Gignol* laneko

piezak. *Trilogía de la indignación*-en parte da Esteve Solerren *Contra la democracia*, hamazazpi hizkuntzatara itzuli eta herrialde hainbatean eszenaratu-tako obra.

Oraindik ere ba al dago inor herritarrok geure gizartea gobernatzen dugula uste duenik? Galdera horri erantzuna ematen saiatuko da antzezlan Seminarixoan, betiere komedia eta ironia nahastuz. Antzezlanerako sarrerek 8 euroko prezioa izango dute.

GOIENA TELEBISTA

UDAZKENEKO PROGRAMAZIOA

HALA BAZAN EGUENETAN
21:30EAN ETA 23:30EAN

Sesai berriko programazioaren nobedadeetako bat. Arrasate Telebistaren 90eko hamarkadako artxibotik materiala berreskuratuta, asteroko saioa egingo du Goiena telebistak, gaika antolatuta. Askotarikoak izango dira saioen jorretuko direnak: musika, kirola, jaiak, bertsoaritzak...

HASTEKO, MUSIKA
Musika izango da urriaren 31ko lehen saioko gaia. Arrasate Telebistaren artxiboak ondare oparoa du gordeta musika kontuei dagokienez, hainbat kasutan musikari eta talde ezagunak herrian edo inguruetan emandako kontzertuak osorik ere jaso baitzituen: Hertzainak taldearena, Imanol Lartzabelena eta atzerriko talde garrantzitsuenak, esate baterako.

GIPUZKOAKO BERTSOLARI TXAPELKETA 2019
EGUAZTENETAN ETA EGUBAKOITZETAN
21:00ETAN ETA 23:00ETAN

ALBISTEAK
ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
14:30/16:15/17:00/17:45

ELKARRIZKETTAP
EGUAZTENETAN ETA EGUBAKOITZETAN
21:30EAN ETA 23:30EAN

HARMAILATIK
ASTELEHENETAN
21:30EAN ETA 23:30EAN

HARIRA
ELKARRIZKETA (HAMABOSTEAN BEHIN)
MARTITZENETAN 21:30EAN
EZTABAIDA (HAMABOSTEAN BEHIN)
MARTITZENETAN 21:00ETAN

HEMEN DEBAGOIENA
ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
18:00/20:00/22:00

HUHEZINEMA
EGUENETAN
21:30EAN ETA 23:30EAN

OSOKO BILKURAK
ARRASATE, OÑATI ETA BERGARA
ZAPATUETAN: 19:00ETAN
DOMEKETAN: 12:00ETAN ETA 22:00ETAN

DEBAGOIENA ESKUALDE BATUA
AZAROK 7. EGUENA
21:00ETAN ETA 23:00ETAN

goiena
Zu hemen zaude.



Begoña Olabarrieta, astelehenean eskainitako tailer praktikoan. GOIENA

'Sentsazioekin' jokatzeari iragarkien trikimailua

Salmenta estrategiak eta kontsumitzaileek dituzten betebeharrak eta eskubideak zeintzuk diren azaldu ditu Kontsumobidek asteon. Publizitateak ez duela gezurrik esaten dio elkarteak; aitzitik, diote metaforez baliatzen direla produktuak saltzeko

Maidar Arregi ANTZUOLA

Publizitatez inguratutako gizar-tean bizi gara. Hala, eguneroko jardunean edonon eta edonoiz askotariko iragarkiak jasotzen ditu herritarrak. Baina publizitate enpresak trikimailuez baliatzen dira produktuak saltzeko. Hain justu ere, asteon, Landaxoeko elkarteak antolatuta eta Kontsumobide elkarteak Begoña Olabarrietak gidatuta, trikimailu horiek identifikatzeko tailer praktikoa jaso dute erretiratuek.

"Trikimailu asko daude, baina publizitateak ez du gezurrik esaten; metafora bisualak erabiltzen ditu. Hau da, iragarleek irudia, kolorea eta musika erabiltzen dituzte sentsazioak sortzeko. Izan ere, sentsazioak dira kanpainen ardatz eta iragarkia ikusten ari denari sentsazioak eragitea da gakoa. Modu horretan, kontsumitzaileak produktu zehatz baten aldeko hautua egingo du; horixe dute helburu", azaldu du Kontsumobide elkarteak Begoña Olabarrietak.

"Garbigarri bat saltzeko, adibidez, loreak, zelaiak... irudikatzen dituzte iragarkian".

Sentsazioak eta emozioak

Saltoki handiek eta supermerkatuek ere kontsumitzaileen sentsazioekin jokatzeko dute. "Horrelako enpresek dirua gasatzen dute ikerketa soziologiko eta psikologikoetan. Badakite

kontsumitzaileek eskuinera jotzeko joera dutela supermerkatuaren sarreran. Hala, eskuinean jartzen dituzte beharrezkoak ez diren produktuak: liburuxkak, pilak, loreak... Eskuinaldera joango gara, eta gero, ezkerreko joko dugu beharrezkoa duguna erosteko; zenbat eta denbora gehiago eman, orduan eta gehiago erosiko dugu", gaineratu du.

Eskubideak eta betebeharrak

Kontsumitzaileek argi izan behar dute zein eskubide dituzten; baina baita ere zein betebeharrak dituzten. "Zerbait erosterakoan, gure eskubidea da tiketa jasotzea; beti, tiketa eskatu eta gorde egin behar dugula argi izan behar dugu".

Kontsumobidek dio erosi aurretik pentsatu egin behar dela. Pentsatzea dela, alegia, aholkurik hoberena. "Kontsumitzaile kritikoak eta arrazionalak izan behar dugu. Egin aurretik pentsatu egin behar dugu, eta dena zalantzan jarri", argitu du.

Bigarren tailer praktikoa

Urriaren 28an, astelehena, aldiz, *Banku zerbitzua* izeneko tailerra eskainiko du Kontsumobidek, 17:00etan, Olaranen. "Adibideak jarriko ditugu. Fakturen irakurketa nola egin eta gure eskubideak zeintzuk diren azalduko dugu tailerrean".



Txinan inauguratu duten lantegia. ERREKA PLASTICS

Erreka Plastics kooperatibak lantegia zabaldu du Txinan

Lantegi berriari esker, Txinako automozio merkatuari aurre egitea du helburu enpresa antzuolarrak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Zuhai (Canton) hirian zabaldu du Erreka Plastics kooperatibak produkzio planta berria. Hiru lantegi ditu Antzuolakoaz gain, Queretaron (Mexiko), Zhuhain (Txina) eta Olomuc-en (Txekiar Errepublikan).

Lantoki berriarekin Txinako automozio merkatuari aurre egingo dio. Izan ere, Txinako merkatua da automozioan munduko handiena, eta, modu horretan, sektorearen garapena gertutik biziko dute. Horretarako, makina eta produkzio sistema berriak jarri dituzte inau-

guratu berri duten eraikinean. Gainera, kudeaketa sistema aurreratua izango du.

Erreferente

Lantegi berriaren inaugurazioarekin Errekak aurrerapausoa eman du bere sektorean. Bereiziki, automozioaren arloan injeziozko plastikozko piezen fabrikazioan erreferente bilakatzeko. Era berean, mundu mailan bere bezeroen beharrak egoki hornitzeko aukera eskaintzen die lantegi berriak, Europako eta Amerikako kalitate maila berbera ziurtatuz.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Oinezkoendako bidea, marraztuta

Herritar batek Eztalara eta hilerrira joateko bidea oso txukun geratu dela txalotu gura izan du. Oinezkoendako bidea ondo markatuta eta seinaleztatua dagoela dio.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

"Datorren denboraldia, ia ziur, azkena izango da"

UNAI LARREA DH JAITSIERETAKO 'RIDER'-A

Euskadiko Openeko 23 urtez azpiko txapelkun postua lortu du aurtengo denboraldian antzuolarrak; Igantzi, Antzuola eta Galdakaoko lasterketei esker sailkatu da lehenengo

Jone Olabarria ANTZUOLA

Aurtengoa gorabeheraz beteriko denboraldia izan da Unai Larrea (Antzuola, 1999) *rider* gaztearentzat. Esperientzia zabala du DH modalitateko jaitsieretan, baina horrek ez zuen saihestu iaz iraillean Ortuellan erori eta eskumuturreko eskafoidea haustea. Errekuperatzeko denbora bat hartu ostean, baina, indarberri-tuta itzuli da lasterketetara eta Euskadiko Openeko lehenengo postua lortu du, 23 urtez azpiko modalitatean.

Aurten, emaitza politik ekarri dituzu etxera...

Bai; nahiz eta lehenengo bi karreretan ez nintzen guztiz ondo ibili, proba moduan hartu nituen, bizikleta gainean nola sentitzen nintzen frogatzeko. Lehenengo lasterketan, Igantzín, hirugarren egin nuen; Antzuolan erori egin nintzen eta, ondorioz, gutxi puntuatzen ibili nintzen. Azkeneko lasterketarako, baina, gehiago prestatu nintzen eta openeko lehen postua eskuratu nuen, puntu bakarrek aldearekin.

Nola sentitzen zinen frogatu nahi zenuela diozu; kosta egin zaizu bizikletara bueltatzea?

Duela urtebete, erorikoa izan nuen entrenatzen nenbileria; nahiko larria izan zen, eta helikopteroz ebakuatu behar izan ninduten. Susto bat baino ez zen izan, zorionez. Handik gutxira, lasterketa batean erori eta eskumuturreko eskafoidea apurtu nuen. Bi susto horien ostean, pixka bat kostatu zitzaidan berri ere bizikletan konfiantza berreskuratzea.

Denboraldiko zein unetan zaude orain?

Une honetan bukatu berri dugu denboraldia. Hamabost bat karreratan lehiatu naiz aurten, Espainiako leku ezberdinetan, baita Euskal Herrian ere. Azaroaren 9an beste lasterketa bat dugu, baina ez nago ziur bertan



Unai Larrea, txapelketako irudietan. ALEJANDRO TABAREZ

"HELIKOPTEROZ EBAKUATU OSTEAN, KOSTATU ZITZ AidAN BERRIZ KONFIANTZA HARTZEA"

lehiatuko naizen edo ez. Hala bada, horrekin guztiz itxiko dugu denboraldia, maiatzera arte.

Maiatza heldu bitartean, baina, lanean jarraituko duzu?

Zalantza ugari ditut; seguruenik, laster utzi beharko ditut lasterketak. Ez nago ziur. Datorren urteko denboraldian parte hartzea espero dut, baina hemendik pare bat denboralditara utzi egin beharko dut. Lesio ugari eta larriak pairatzeko arriskua du kirol honek eta behin lanean hasita ez dakit biak uztartu ahalko ditudan; ezin dut arrisku

horrekin bizi une oro, edozein lesio txikik laneko baja luzea ekar dezake. Dena den, ez dut guztiz utziko, afizio modura ere jarraitzea espero dut.

Ordu asko ematen dituzu lasterketak prestatzen?

Gorla inguruan entrenatzen gara, Antzuola edo Bergara inguruan. Entrenatzeko, baina, beti auto baten beharra dugu, gora igozteko, materiala eramateko.... Jaitsiera ezberdinak egiten ditugu, lau edo bost, leku ezberdinetatik. Beti, baina, jendearekin joaten gara, inoiz ez bakarrik. Eroriz gero edo zerbait pasatuz gero, norbait izateko bertan.

Hortaz, baliabide bereziak behar dira?

Baliabide ugari eskatzen ditu; bai material aldetik, baita pertsona aldetik. Zorionez, babesle den Oiartzun Bike-k uzten dizkigu guri materialak askotan.



IBAI ZABALA

Giro ederra haur dantzariarentzat

Egun osoan zehar euria egin zuen arren, Antzuolako Haur Dantzarien Egunak giro alaia jarri zuen domekan herrian. Bai eguerdiko eta baita arratsaldeko saio nagusiak eskolako patioan egin zituzten eta 340 haur dantzarik baino gehiagok parte hartu zuten. Oinarin dantza taldeko kideak "eskertuta" agertu ziren bertaratu ziren guztiekin.

Oscar Candedo antzuolarra, Santa Marinako organoan

Organo Erromantikoaren Zikloaren barnean, kontzertua eskaini zuen zapatuan Candedok Bergaran

J.O. ANTZUOLA

Oscar Candedo organo jole antzuolarrak Organo Erromantikoaren Nazioarteko Zikloaren barruan emandako kontzertuan, Joseph Gabriel Rheinberger konpositore alemaniarraren lanak izan ziren nagusi, eta, horrez gainera, Guridiren *Ave Maria* ere jo zuen hark. Hain zuzen ere, organo jolearekin batera Easo Gazte abesbatza ere izan zen kontzertuan; horiek, gainera, aldarera jaitsi ziren azkeneko bi abestiak egin ahal izateko.

Artzain Onaren katedraleko organo jole titularra da Candedo, baita Katalunian organo irakasle, eta honela mintzatu zen zikloari buruz: "Horrelako ekimenen garrantzia azpimarratu nahiko nuke, oso ondo dago bertako jendeak organoa ezagutu eta gozatzeko aukera izan dezan". Hala ere, Santa Marinako organoak "akats" batzuk dituela aitortu zuen, eta komenigarria litzatekeela ondare hori guztia "apur bat zaintzea", eta mantendu ahal izateko "bertara dirulaguntza bideratzea".

OHARRAK

Erregional Preferenteko taldea bihar Eztalan

Erregional Preferente Mailako Antzuolako futbol taldeak Getariako taldea hartuko du Eztala zelaian zapatuan. Getariarrak azkenak dira sailkapenean, 16. postuan, eta antzuolarrak 14. daude sailkatuta, 4 punturekin.

Hika lantzeko saioa: Hika Emakumeengana

Azaroaren 16rako eta 23rako -zapatuak-, hika lantzeko saioak antolatuko dituzte: 'zelan erabili hika emakumeengana zuzentzerakoan'. Saioak Orlanen egingo dituzte, 11:00etatik 13:00etara. Izena eman daiteke urriaren 31ra arte, liburutegian, 943 76 60 65 telefono zenbakian edo liburutegia@antzuola.com helbidera mezua bidalita.

Iritzi kontrajarriak bi udal zergaren inguruan

Udal tasa gehienek %0,7 egingo dute gora 2020an. Hondakinen gaineko zergak, berriz, %3. Igoera handiegia dela uste du oposizioak. Etxebizitza hutsei aplikatzen zaien %75eko errekar-guarekin ere ez dago adostasunik udalbatzan

Larraitx Zeberio Lekuona ELGETA

Kontsumo Prezioen Indizeari (KPI) dagokion igoera izango dute udal tasa eta ordenantza fiskal gehienek 2020an. Martitzeneko ezohiko osoko bilkuran hartu zuen erabakia udalbatzak. Salbuespenak ere izango dira, eta horien artean dago hondakinen gaineko zergari aplikatuko zaion %3ko igoera. Iraitx Lazkano alkateak azaldu zuen Mankomunitateko kontu-hartzailearen txostena jaso duela Udalak eta bertan azken lau urteetan Udalarri aplikatutako igoeren berri jasotzen dela. Esan zuen %3ko igoera gastuaren estaltze mailak antzera jarraitzeko hartutako neurria dela.

Udalak hobariak aplikatzen jarraituko duela ere gaineratu zuen alkateak, eta berriak egongo direla. "Orain arte, hobari zabalena %50era heltzen zen eta aurrerantzean, %70era heltzeko aukera egongo da". Hezkuntza,



Elgetako udalbatza, martitzeneko egindako osoko bilkuran. ANER FERNANDEZ

kirol eta halako zerbitzuetan ez da igoerarik aplikatuko, eta bonu berriak ezarriko dira; tartean, urteko bonuak ateratzeko aukera. Eguzki plakak erabiltzeagatik dauden hobarrietan ere berrikuntzak daude.

Oposizioa, kontra

Oposizioak aurkako botoa eman zuen, eta hondakinen gaineko zergaren igoera eta etxebizitza hutsei aplikatzen zaien errekar-gua ipini zituen arrazoi nagusi. "Ados gaude, orokorrean, eta

bereziki kirol zerbitzuetan zenbait hobari berri aplikatzearekin, baina ez dugu %3ko igoera hori ondo ikusten eta etxebizitza hutsei aplikatzen zaien errekar-guarekin ere ez gatzat bat", adierazi zuen EAJko ordezkari Aintzane Oiarbidek. "Ez dugu Mankomunitateko kontu-hartzaileak bidalitako txostenaren berririk (...) eta jakin nahiko genuke zergatik planteatzen duen igoera hori Mankomunitateak". Aurrerantzean informazio guztia bidaltzeko eskaera ere egin zuen.

Etxebizitza hutsen errekar-guari dagokionez esan zuen ikusita dagoela ez duela alokairuetan mugimendurik eragiten, eta arazoa askoz ere sakonagoa dela. "Ez dakigu etxebizitza horiek zergatik dauden hutsik. Gaia sakon aztertu behar da eta, agian, beste instituzio batzuetara jo behar da lege aldaketak eskatzeko. Hortik jotzearen aldekoak gara", esan zuen. Errekargua kentzeko eta alokairua bultzatzeko zer egin daitekeen aztertzea proposatu zuen.

Eztabaida sortu zen udalbatzan. Iraitx Lazkano alkateak erantzun zuen hilabete eta erdi dela udal tasak eta ordenantza fiskalak lantzen ari direla, eta ogasun batzordeetan eman dela informazioa. Denbora horretan Udala Gobernuak ez duela ez informazio eskaerarik ez proposamenik jaso. "Eta berba egiteko prest gaude", esan zuen.

Azaldu zuen Mankomunitatearentzako igo egin direla hondakinen bilketa eta kudeaketa gastuak, eta, aldiz, sarrerak jaitsi. "Beraz, gehiago kostatzen da hondakinak kudeatzea".

Errausketaren aldeko apustua egin izanak gipuzkoar guztien izango duen eragina ekarri zuen orduan gogora EH Bilduko ordezkari Ibai Larrañagak, eta Oiarbidek esan zion ez dela egia atez atekoa merkeagoa denik.

Etxebizitza hutsen errekar-guari dagokionez Lazkanok esan zuen iaz oposizioarekin adostutako kopurua dela indarrean dagoena, eta azpimarratu zuen ez dutela hilabete eta erdian gaiarekin lotutako proposamenik jaso. "Aurreko oposizioa eta gu ez gara berdinak", erantzun zion Oiarbidek. "Guk gure iritzia dugu, eta gure proposamenak egiten ditugu".

Kataluniaren gaineko mozioa

Kataluniako Procès-aren epaia ere izan zuen hizpide Elgetako udalbatzak, martitzeneko. Epaia-aren aurka Gipuzkoako Batzar Nagusietan adostutako mozioa onartu zuten udal ordezkariak aho batez.

INFORMAZIO FALTA SALATU ZUEN OPOSIZIOAK ETA PROPOSAMENIK JASO EZ IZANA ALKATEAK

%75eko lan-jarduna izango du Iraitx Lazkanok Udalean

Uemako lehendakari karguari %25 eskainiko dio, eta Ane Bilbao liberatuko dute dedikazio horretarako

L.Z.L. ELGETA

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak (Uema) urriaren 5ean aukeratu zuen Iraitx Lazkano lehendakari. Hala, Elgetako alkateak bi karguak bateratuko ditu aurrerantzean.

Lazkanok adierazi du gutxi gorabehera %25eko lan-jarduna aurreikusten dela Uemako lehendakari kargurako. Hain zuzen ere, udalbatzak aho batez hartu zuen alkatearen dedikazioa lan-jardun partzialera aldatzeko erabakia martitzeneko egindako osoko bilkuran.

Alkateak proposatu zuen Udaleko jarduna %75era jaitea, horrek eragingo lukeen aldaketa ekonomikoarekin. "Horrekin batera asmoa da alkateordeetako bat %25eko jardunean edukitzea, nire Uemako lehendakariak ezarri ez dezan Udalarri dedikazio gutxiago eskaintzea".

Alkateorde hori Ane Bilbao Larrañaga izango da eta lehenbailehen hasiko da zeregin berrietan, gizarte segurantzarekin lotutako egokitzapen batzuk egin bezain laster.

GORA ETA BEHERA



Autoak espaloi gainetan

Ohikoa da herriko zenbait lekutan autoak espaloi gainetan aparkatuta ikustea. Zebra-bide parean badaude, gainera, asko murrizten dute oinezkoen eta gidarien ikuspena.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

SOS Afrika kanpaina eta hip hop eskaintza proposamena

Urtero bezala, Herri Eskolak bat egin du SOS Afrika bilketa kanpainarekin. Arropak eta zapatak biltzeko ekimena da, eta ikasle bakoitzak poltsa bat jaso du etxera eramateko. Eskolako sarreran jasoko dituzte poltsak urriaren 30ra arte. Maa-lagurasa elkarteak, bestetik, hip hop saioak eskaintzeko aukera aztertzen ari da. Bergarako Camden Town dantza eskolako irakasle batek gidatuko luke ikastaroa, eguaztenetan, 16:15etik 17:15era. Hileko prezioa 25-30 euro artean izango da. Bederatzi ikasle behar dira taldea osatzeko. Interesatuak elgetakogurasoelkarta@gmail.com helbidera idatzi behar dute.

Kontuz atez ateko salmenta eskaintzekin

Iruzur handiak egoten dira, eta gehienak epeka ordaindu beharreko eta hirugarren adineko pertsoneri zuzendutako produktuekin izaten dira. Saltzaileak kontratua berehala sinatzeko presio handia egiten dute, eta opari potoloak eskaintzen dituzte

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Xalbadorpe elkarteak Kontsumobiderekina elkarlanean antolatutako tailerra gidatu zuen eguaztenean Ortzadar enpresako kontsumo hezitzaile Olatz Hilariok. Etxez etxeko salmentekin kontu handia eduki behar dela esan zuen. "Bai tinbrea jotzen digutenean, bai telefono dei bat jasotzen dugunean", ohararazi zuen. "Lehenengo eta behin, argi eduki behar dugu ez gaudela behartuak ez atea zabaltzera, ez telefono deiak hartzera, eta eskaintza entzutea erabakitzen badugu identifikazioa eskatu behar dugula. Noski, ez dugu sekula ez fakturarik, ez bankuko daturik, ez nortasun agiririk erakutsiko".

Salmenta teknika horiekin iruzur ugari egoten dela ohararazi zuen kontsumo hezitzaileak. "Gehienetan, epeka ordaindu beharreko produktuak izaten dira eta horrek bi produktu erostera behartzen gaitu: alde batetik, produktua bera, eta bestetik, hori finantzatzeko maillegua". Askotan hirugarren adineko pertsoneri zuzendutako produktuak izaten direla zehaztu zuen, eta zalantzazko kalitatezkoak. "Koltxoiak, oheak, gaixotasun kronikoetarako gai-luak...". Gas edo argindar ikuskatzeak ere aipatu zituen. Saltzaileak, gainera, kontratua berehala sinatzeko presio handia egiten dute, eta kontsumitzaileak ez ditu kontuak ateratzen. Ez da konturatzen azkenerako dirutza ordainduko duela. "Gauzak ondo pentsatzeko denbora eskatzeko eskubidea du kontsumitzaileak. Idatziz eskatu behar da emandako informazio guztia, eta nork bere kalkulua lasai egiteko tartea hartu behar du".

Uko egiteko eskubidea

Legeak dio kontratu guztiek jaso behar dutela kontsumitzailearen uko egiteko eskubideari buruz-



Herritar bat kontratuak uko egiteko eskubidea jasotzen duen begirutzen. L.Z.L.

KONTSUMITZAILEAK HAMALAU EGUN DITU IRITZIZ ALDATU ETA PRODUKTUA ITZULTZEKO

ko informazioa. Eskubide horren arabera, produktua erosteko erabakia atzera botatzeko aukera du erosleak. "Gure eskubidea da produktua etxera iritsi eta gero iritziz aldatzea. Hamalau eguneko epea dugu horretarako. Enpresa batzuk zailtasunak ipintzen saiatzen dira, baina jakin behar dugu hamalau eguneko epealdi hori ez dela hasten kontratua sinatu genuen egunetik aurrera, baizik eta produktua etxean jaso dugun egunetik aurrera. Sinatu dugun kontratuak ez badu uko egiteko eskubidearen gaineko informaziorik jasotzen, hamalau eguneko epea 365 egunera luzatzen da".

Kontsumo hezitzaileak produktuaren bilgarria ez botatzeko gomendioa ere eman zuen. "Ohiko iruzur teknika izaten da produktua etxera ekartzekoan garraiolariak bilgarria kentzea.

Adibidez, sofa bat erosi badugu, etortzen dira, sofa berriari bilgarria kentzen diote eta, gainera, zaharra eramateko mesedea egiten digute. Bada, bilgarririk ez badugu, saltzaileak argudia dezake ezin dugula uko egiteko eskubidea erabili".

Telefono deiak

Oso ohikoak dira, bestalde, askotariko produktuak saltzeko gaur egun jasotzen diren telefono deiak. "Jakín behar dugu salmentarako deiak egiteko legez ezarritako ordutegia dela astelehenetik barikurako lanegunak, 09:00etatik 21:00etara. Hortik kanpora deitzen badigute, ilegala da, eta halaxe esan behar diegu, gainera". Deiak, bestalde, ez dagoela zertan itzuli esan zuen hezitzaileak. "Batuetan, setatu egiten dira eta, azkenean, deia itzultzen dugu. Ba, ez dugu zertan!", esan zuen.

Opariak ordaindu egiten dira

Doako opariekin ez fidatzeko gomendioa ere eman zuen Olatz Hilariok Elgetan. "Opariak beti ordaintzen dira. Hemen ez du inork ezer deialde ematen", ohararazi zuen.

Sei taldetan banatuta 22 lagunek dihardute mintzalagun Elgetan

Laugarren ikasturtea du Elgetan Berbetan egitasmoak eta zortzi bidelagun eta hamasei bidelari gerturatu dira aurten ekimenera. Bi urteotan lortu da parte-hartzaile kopururik handiena. "Bidelariak beti animatzen ditugu izena ematera. Taldeetan giro oso ona sortzen da eta tar-te atseginak igarotzen ditugu elkarrekin", adierazi du Geaxi Ezpeleta koordinatzaileak. "Horrez gain, euskaldunei ere dei egin nahi diegu herri euskaldunago baten alde nork bere aletxoak jartzera. Talde guztietan baina, batez ere, arratsaldeetako taldeetan parte-hartzailearen bat edo beste gehitzea aberasgarria litzateke guztiz".

PILOTA TXAPELKETA

AZKEN EMAITZAK

Iban Retolaza-Enrike Elkoro / Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar **09-18**
Sergio Bouzas-Jose Mari Zubiaurre / Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarieta **18-16**

Etor Garate-Iker Valle / Diego Cantabrana-Txomin de Vega **08-18**

PARTIDUAK

BARIKUA, URRIAK 25, 19:00ETAN

Ainhoa Zeziaga-Janire Lazkano / Maitena Mañarikua-Uxue Larrea
Zigor Martin-Gorka Bolinaga / Haritz Gallastegi-Oskar Askasibar
Andoni Elorza-Oskar Sarasua / Eneko Ormaetxea-Alain Valle
Beñat Arabaolaza-Jon Irazabal / Txomin de Vega-Diego Cantabrana

Domekan, 'Agur, Etxebeste!'

Asier Altunak eta Telmo Esnalek Donostia Zinemaldian estreinatu zuten batera egindako azken lana, eta oihartzun handia izan du. Euskara hutsean ekoiztutako filma Espaloian ikusteko aukera izango da, domekan, 18:00etan. Sarrerak leihatilan salduko dituzte, 3 eurotan. Etxebestetarren komeriekin barre egiteko aukera izango da, beraz, Elgetan ere.



'AGUR ETXEBESTE!'

Hustu kalabazak, badator eta Arimen Gaua...

Kalabazak husteko tailerrarekin abiatuko dira aurten ere Arimen Gaua prestatzeko lanak, Elgetan. Maala guraso elkarteak eskolako ganbarara deitu ditu herriko neska-mutikoak, kalabazak husten lagun dezaten. Martitzenerako, hilak 29, egin dute hitzordua, 18:00etan.

Urriaren 31n, berriz, Arimen Gaueko ikuskizuna eskainiko dute seigarren mailako ikasleek. Hilerriko parketik abiatuko da aurten ibilbidea, 19:30ean, eta apur bat aldatuta datorrela aurreratu dute. Linternak ez dira soberan egongo eta adi kantoilunetan edozer egon daiteke eta! Gozokiak, urtero moduan, amaieran banatuko dituzte.

OHARRAK

Ipuin saio berezia

Biblioteka Eguna ospatzeko saio berezia gaur, 17:25etik 18:00etara, liburutegian.

Intxortako Lehoiak

Athletic taldeko Elgetako lagunarteko urteko batzar orokorra egingo du bihar, zapatua. Bolatoki tabernan elkartuko dira, 13:00etan.

Memoria tailerra

Zabalik jarraitzen du funtzio kognitiboak lantzeko tailerretarako izen-emateak.

EAJren loteria

Maria Jesus Lete eta Begoña Ardanza dira arduradunak. Eskaerak egiteko azken eguna: azaroak 19.

Oñati dagoeneko sartu da 2020ko Euskaraldian

Edizio honetan entitateak ere parte hartzaile aktiboak izango dira, 'ariguneak' sortzeko eremuak. Abendura bitartean, herriko entitate horiek identifikatzea eta urte amaieran egingo den ospakizuna prestatzea izango da herri batzordearen lana

Goiena komunitatea

Euskaraldiko Herri Batzordea / OÑATI

Datorren urtean, 2020an, egingo da Euskaraldiaren bigarren edizioa, eta Oñatin prest gaude.

Ariguneak

Euskaraldia ariketa sozial bat da, hizkuntza ohiturak aldatu gura dituen eta edizio berri honetan entitateek ere parte-hartzeko aktiboa izango dute. Aurreko ekitaldian herritarren parte hartzea ikaragarria izan zen eta oraingoan, norbanakoen ahalmen hori talde-ahalmen bihurtu gura dugu. Horretarako, entitateek parte hartzeko modu eraginkorra proposatzen dugu: administrazioan, herriko elkarreetan, lantokietan, zerbitzu enpresetan, kirol taldeetan... hamabost egunez euskaraz ariketo diren taldeak, ariguneak aktibatuko ditugu.

Bi motatakoak izan daitezke ariguneak: barne-ariguneak, ohiko funtzionamendurako taldeak dira –sailak, zerbitzuak, asanbladak, lantaldeak...– eta bertako kide guztiek euskara ulertzeaz gain, kideen %80, gutxienez, *ahobizi* edo *belarriprest* modura ariketan parte hartzeko prest dago. Kanpo-ariguneak, berriz, entitatean herritarrekiko harreman espa-



Eguazten iluntzean egin zuten aurkezpena udaletxean. O.E.

zioetan –harreran, barran, telefonoan...– dauden pertsonen herritarrekin osatutako ariguneak dira. Espazio horietan beti egongo da *belarriprest* edo *ahobizi* den kide bat, gutxienez, herritarren hizkuntza aukera bermatzeko.

Gonbidapena

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean, hamabost egunez, ospatuko da Euskaraldiaren bigarren edizioa. Oñati batu zaio dagoeneko Euskaraldiari eta orain, entitateen eta

herritarren txanda da. Entitateek uztaila bitartean egin dezakete bat egitasmo honekin eta herritarrek, irailtik aurrera.

Oñatiko Euskaraldiko Herri Batzordea ere hasi da lanean. Abendura bitartean bi lan nagusi izango ditugu: herriko entitateak identifikatzea eta urte amaieran egingo den ospakizuna antolatzea. Batzordea irekia da eta parte hartu gura duen herritar oro etor daiteke. Hauxe da gure helbidea: onati@euskaraldia.eus. Denok zaudete gonbidatuta.

Espainiako Gorteetan egoteak garrantzia duela dio Iriartek

"Demokrazia handiagoa gura dugunondako jokoan asko dago", esan du legebiltzarkideak Oñatin

Oihana Elortza. OÑATI

Azaroaren 10ean egingo diren Espainiako Gorteetarako hauteskundeak izan zituzten hizpide eguaztenean Maddalen Iriartek eta Mikel Biainek, Oñatiko EH Bilduk antolatutako solasaldian. Iriartek adierazi zuen hauteskunde horietan gauza asko daukela jokoan: "Demokrazia handiagoa gura dugunondako".

Hauteskunde hauei Kataluniako *procès*-aren sententzia gehitu zaiela esan zuen Maddalen Iriarte EH Bilduko legebiltzarkideak: "Sententzia horrek erakutsi du zer-nolako Estatuak dugun aurrean, beti bezalako autoritarioa, zigorra erabiltzen duena. Epaiak, gainera, prezioa jarri dio subiranotasun bidea egin nahi, egin eta egingo dugunoi, eta uste dut orduan eta ikusgarriagoak izan behar dugula eta orduan eta indar han-



Iriarte eta Biain kultura etxean. E.A.

diagoa izan behar dugula Espainiako gorteetan".

Ezkerreko blokea indartsu agertzeak "Espainiako Estatuak lurraldetasunarekin duen arazo sendoa" Europan erakusten launduko duela uste du Maddalen Iriartek.

Zubillagatik Zumarragaraino doa autobus linea

Oñati eta Legazpi arteko bidea egiten duen autobus linea Zumarragaraino joaten da joan den eguaztena ezker. Zumarragako tren geltokian eta Zubillagan ere baditu geltokiak orain. Horretarako, autobus bat gehitu diote zerbitzuari. Oñatiko Udalak uste du aldaketek "mesede" egingo diotela zerbitzuari, autobus geltoki berriak eskai-

nita herritar gehiagok erabili ahal izango dutelako. Gainera, zerbitzuan egindako moldaketek ez dute Oñatiko Udalaren kostua handituko: "Orain, hiru ginatke zerbitzua ordainduko genukeen udalak: Oñatiko Udala, Legazpiko Udala eta Zumarragako Udala".

Urriaren 9an jarri zuen Legazpi eta Oñati arteko autobus linea martxan eta balorazio positiboa egin du Udalak. Adierazi du aurreko astean, adibidez, 32 bidaiarik erabili zutela.

MIKEL ALTUBE

ARKITEKTO TEKNIKOA

GAATEO/COAATG zerb 01273

San Lorentzo, 42 behe
OÑATI

646 948 495

INDUSTRIA BEHARREI EGOKITUTAKO PROIEKTUAK

ETXEBIZITZEN BEHARREI EGOKITUTAKO PROIEKTUAK

OBRA ZUZENDARITZAK

GREMIOEN KOORDINAZIOA

ETXEETAKO ERREFORMA INTEGRALEN DISEÑUA ETA PROIEKTUA

GREMIOEN KOORDINAZIOA



Oñatiko Aita Madina txistulari taldeko txistulariak Herri Egunean. A.M.

Txistularien saioak ere 'matinee'-ak izango dira

Aita Madina txistulari taldeko txistulariek urte luzez domeka arratsaldeetan eskaini dituzten erromeria saioak eguerdian izango dira aurrerantzean. Aste honetako izango da lehenengoa, etzi, domeka, 12:30ean, kontzejupean

Oihana Elortza OÑATI

Udazken eta udaberri bitartean erromeria saioak eskaini izan ditu urteetan Aita Madina txistulari taldeak Foruen plazan domeka arratsaldeetan. Orain, baina, domeka eguerdian, 12:30ean. Azken urteetan gero eta jende gutxiago ikusi dute herriko plazan ordu horretan, eta saio horiei buelta nola eman

pentsatzen hasi ziren. "Jendearen ohiturak aldatu egin dira, batetik, baina, bestetik, txistulariok ere ez gara asko eta taldeak mugatuak ditugu. Gainera, urtean zehar suertatzen zaizkigun konpromisoak gehitu behar zaizkio horri; aurten, esaterako, 40tik gora. Guztiak izan du eragina aldaketan", dio Aitor Madina txistulariak.

Aldaketarekin pozik dago bera, txistua plaza entzuteko ohiturak jarraitu egingo duelako Oñatin, baina ohartarazi du ezingo dutela egutegi finko bat bermatu: "Guk beste konpromiso batzuk ditugulako edo Foruen plazan ekitaldiren bat dagoelako, adibidez, baina hiruzpalau astean behin izango da, domekaz, kontzejupean, eta 12:30ean".

"Urteetako ohitura ez da orain etengo, eta pozik gaude"

AITOR MADINA TXISTULARIA

Lehen danbolinteroak; orain musika bandak edo txistulariak, baina urte asko dira domeketan musika eskaintzen dela Oñatiko Foruen plazan. Formatua edo ordua aldatu arren, Aitor Madina pozik dago ohiturak jarraitu egingo duelako.

Diozu urte askoko ohitura dela domeketan musika egotea Oñatiko plazan. Noiztik dator ohitura hori?

Mendeak, esango nuke. Eta mantendu egin da ohitura hori Oñatin. Esango nuke Gipuzkoako herri bakarrenetakoa dela, bakarra ez bada, txistularien saioak egiten jarraitzen dutena.

Duela 28 urte etorri nintzen ni hona eta orduan ere egiten ziren. Zorionez, ohitura ez da orain etengo. Ezta tokia ere. Formatua eta ordua aldatu dugu. Agian, urte batzuk barru, beste aldaketa batzuk egin beharko dira, aldaketek beste aldaketa batzuk egon arte irauten dute eta. Gu ahaleginduko gara mantentzen.



O.E.

Kontzejupea da tokia?

Bai, hori da txistularion tokia. Batzuetan, tokatu izan zaigu hortik mugitu beharra, beste ekitaldi bat dela-eta bestelako musika bazegoelako plazan, baina gure tokia horixe da, eta izan da historikoki, eta horri eutsi gura diogu. Saiatuko gara emanaldi guztiak kontzejupean egiten.

Nolako piezak joko dituzue?

Erromeria saioak iluntzeetan izan diren saioetan, dantzarako piezak jo izan ditugu gehienetan, umeei zuzendutakoak. Orain, denetarik joko dugu: dantzak, fandangoak, arin-arinak, polkak eta beste pieza mota batzuk ere bai.

Zenbat txistulari zaudete Aita Madina taldean?

Taldean bost gara, ofizialak. Tarteka, egun puntualetan, kanpotik ere etortzen dira eta gurekin batera jo. Musika eskolan ere ari dira gaztetxo batzuk txistua jotzen ikasten, baina zaila da. Ez dago ikasle asko; egun, beste musika tresna batzuk aukeratzeko dituzte musika ikasleek. Gu ahalegintzen gara gurea erakusten, baina ikusiko dugu.

Konpromiso handia eskatzen du txistularia izateak?

Asteburuetan izaten dira ekitaldi asko, bai, eta musika tresnaren bat ikasten ari diren ikasle horiek bestelako konpromisoak ere badituzte; kirol ekitaldiak, esaterako.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

Egun, badaude eta mantentzen dugu taldea, etorkizuna ikusiko da.

Erreka garbi utzi gura dute, zikinak eta landaretza kenduta

Ugarkaldetik Zubillagaraino doan erreka tartea garbitzeko dei egin du Natur Eskolak domeka goizerako. Taldeetan banatuta, tarte horretan dagoen zikina eta landare inbaditzaileak kenduko dituzte; 09:30ean elkartuko dira, Foruen plazan. Zapatuan, berriz, anfibioendako putzua egiten arituko dira goizean, Belatxara inguruan.

OHARRAK

Emakumeendako

Emakumeak ahalduzko ahaleginean, Andraitzek antolatuta tailerra domekan Eltzian, 16:00etan. Zaintza lanetan eta etxeko lanetan dihardutenei zuzenduta.

Maker Eguna

3D inprimagailuak eta ebakitzaila laserra jarri dituzte MUn eta gaur goizean zabalduko dute gunea.

Urtaza

Lentzeria • Mertzzeria • Kortsetegia
KIRRIÑENA

ESKERRIK ASKO

90 urte hauetan gure ondoan izan zareten gutioi.
Urriaren 31n itxiko ditugu ateak.

Aprobetxatu likidazioaren azken txanpa!

Kale barria 14 • Oñati • Tel.: 943 78 01 89



Arrikruz Aloña Mendi ziklo-kros taldea, aurkezpenen. GOIENA

Sei txirrindulari aurten ere ziklo-kros taldean

Arrikruz Aloña Mendi taldeak hiruna lagun izango ditu junior eta kadete mailetan. Taldea ateratzeaz gain, ziklo-kros proba ikusteko aukera izango da Oñatin; hain zuzen, abenduaren 15ean izango da talde oñatiarrak herrian bertan antolatzen duena

Maialen Santos OÑATI

Bederatzigarren urtez, ziklo-kros taldea izango du Oñatiko Aloña Mendi Kirol Elkarteak. Sei txirrindularik osatuko dute taldea: kadete mailan, Aimar Madinak, Xabat Kastañosek eta Markel Zubiak; eta junior mailan, Unai Cuevak, Aimar Erostarbek eta Aritz Torresek ordezkatzeko dute taldea.

Ziklo-krosean ibiltzeaz gain, guztiak aritzen dira errepideko lasterketetan, Aritz Torres taldekideak azaldu duenez: "Asmoa da errepideko lasterketetarako ondo prestatzea. Halere, ahal den heinean, ziklo-kros probetan ere emaitza politak lortu nahi genituzke". Gaineratu duenez, errepidean ez ezik, lokatz artean aritzea ere "gustuko" du.

Aimar Madina txirrindulariak, berriz, iaz "esperientzia ona" bizi izan zuelako animatu dela aitortu du: "Denbora laburreko probak izaten dira, ordu erdi-koak, baina, aldi berean, intentsitate handikoak izaten dira".

Zuzendariei dagokienez, Josu Alberdi, Iker Arkauz eta Julen Arkauz arituko dira laguntzen.

Aloña, talde aitzindari

Kadete eta junior mailetan taldeak izaten aitzindaria da Aloña Mendi. "Ziklo-krosean aritzen diren mutilek laguntza behar izaten dute, eta aurtengo denboraldian ere laguntza hori ematea da gure asmoa", azaldu du taldeko arduradun Ruper Arkauzek. Horrez gain, gaineratu du: "Denboraldi honetarako helburua, beti bezala, txirrindulariek ikastea eta gozatzea da". Arduradunaren esanetan, asmoa ez da lasterketak irabaztea, baina taldea txirrindulari lehiakorrek osatzen dutela nahi.

ABENDUAREN 15EAN IZANGO DA ALOÑA MENDIK ANTOLATUTAKO ZIKLO-KROS PROBA

barmendu du: "Joan den astean, lehen lasterketa izan zen, Urdun, eta junior mailako hiru txirrindulariak lehenengo hamabosten artean sailkatu ziren. Guk ezer eskatu gabe aurrean ibiltzeak zerbait esan gura du".

Oñatin, abenduaren 15ean

Taldea ateratzeaz gain, aurten ere ziklo-kros lasterketa antolatuko du Aloña Mendik. Abenduaren 15ean izango da; aurrekoetan bezala, Urrutxun. "Gazteak kanpora joaten direnez, guk ere etxean lasterketa antolatzea pentsatu genuen". Zirkuituaren muntaiak lan handia eskatzen duela ere adierazi zuen, gazteen erantzuna ikusteak poztu egiten dituen arren. "Bere garaian ibilbidean eskailerak jarri genituenean parte-hartzaile batzuk kekatu egin ziren arren, eguna ikono ere bihurtu dira. Asmoa da zirkuitua ahalik eta berdinen mantentzea: azkarra da, teknikoa, eta ikusteko os polita", azaldu du Arkauzek.

Beasain liderra hiru puntura du Aloña Mendi futbol taldeak

Sailkapenaren bigarren postuan dago talde oñatiarra; puntuei dagokienez, beste bi talderekin berdinduta

M.S. OÑATI

Zazpigarren jardunaldia jokatu du Aloñako futbol saileko Erregional Preferenteko taldeak asteburu honetan. Billabonaren aurka lehiatuko da, Azkoagainen, domekan 16:30ean.

Joan den asteburuan Tolosaren zelaian irabaztetik datoz oñatiarrak, eta lanean gogor jarraitzeko asmoa azaldu du Endika Ruiz taldeko entrenatzaileak: "Puntuak lortzen jarraitu nahi genuke aurrerantzean ere".

Nahiz eta denboraldia ez zen nahi bezala hasi, orain artean taldea "lan ona" egiten aritu dela aitortu du entrenatzaileak: "Lehenengo partidua galdu egin genuen etxean, baina gerora, burua jaso dugu eta hobeto joan zaizkigu gainontzekoak. Bide beretik jarraitu nahi dugu". Hain zuzen, dagoeneko jokatu dituen sei partiduetatik lau irabazi ditu



Futbolariak baloia atzetik. GOIENA

eta bat berdindu. Soraluzeren aurkako norgehiagoka izan da, bestalde, galdutako bakarra. Horrenbestez, sailkapenaren bigarren postuan dago Aloña, hamahiru punturekin –Lagun Onak taldeak eta Ilintxak ere puntu berdinak dituzte–.

Ingou Aloñak etxean jokatu du bigarren partidua, zapatuan

Herriko jaiak eta partidurik gabeko asteburu bat tarteko, norgehiagoka bakarra jokatu du orain artean Ingou Aloña areto futbol taldeak. Joan den asteburuan, urriak 19, ekin zion talde oñatiarrak denboraldiari, eta ezin izan zuen garaipena lortu. Ausa Zaldibiren etxean jokatu zuten estreinako partida, eta 4-3 galdu zuen Aloñak.

Asteburu honetan, Zubikoan jokatu dute bigarren partidua –ligako hirugarren jardunaldia izango da–. Bihar, zapatua, 17:45ean izango da hitzordua, eta sailkapenean gora egiteko baliatuko dute Tolosala taldearen aurkako neurketa. Horrenbestez, estreinaldi bikoitza egingo dute etxean: Zubikoan jokatu dute lehen partidua izango delako ligan eta, bestalde, Aloñako areto futbolak sei urte daramatzalako gizonezkoen senior mailan talderik izan gabe.

Mekalki Aloña Mendik Zubikoan hartuko du Tabirako Baque

Mekalki Aloña Mendi saskibaloitza taldea etxean lehiatuko da bihar, zapatu arratsaldean, 18:00etan hasita. Hirugarren jardunaldiko norgehiagoka izango da –etxean jokatu duen bigarrena– eta Zubikoa kiroldegiak hartuko du partidua, Tabirako Baque talde durangarraren aurka jokatu baitu talde oñatiarrak. Iazko denboraldia bigarren postuan

amaiera eman ostean, mailaz igo eta bigarren maila nazionalan ari da jokatzeko aurten Aloña. Maila aldaketak oñatiarren jokoan eragina izan du, gainera; partiduek, esaterako, erritmo eta intentsitate handiagoa eskatzen dute maila berrian. Orain arte jokatu duen neurketak galdu egin ditu Aloñak: lehen jardunaldian etxean jokatu zuen Hotel Gran Bilbao Berrio-Otxoaren aurka eta bigarrenean, aldiz, Lakua San Prudencio taldea izan zuen aurkari kantxan.

Musikaz haratago, Javier Corcobadoren eskutik

Musikaren, literaturaren eta emozioen lanketa egiteko asmoz, saio linbikoa izango da gaur arratsaldean Udal Liburutegian, Javier Corcobado artistak gidatuta. "Kontzertu akustiko edota performance itxura" izango duen saioa 19:00etan hasiko da

Maialen Regueiro OÑATI

Asteon, Bibliotekaren Egunaren baitan hainbat ekintza egin dira Udal Liburutegian –ikasleen bisita gidatua eta txotxongiloen laborategia, esate baterako– eta horietako bat gaur arratsaldeko saio linbikoa izango da, Javier Corcobado musikariak gidatuko duena. Saioa Udal Liburutegian izango da, 19:00etan hasita.

Musika, literatura eta emozioak

Alemanian jaiotakoa, Madrilen bizitakoa baina gaur egun Erri-goitin (Bizkaia) bizi den artista da Javier Corcobado. Arlo artistikoko hainbat modalitate lantzen ditu, musika, literatura eta poesia, besteak beste, eta horiek izango dira, hain zuzen, gaurko saioan landuko dituenak: "Idatzi ditudan poesia liburuetan oinarritutako saioa izango da, non ikusleak parte hartzera gonbidatuko ditudan". Poesia gaurko saioaren protagonista izango da, beraz, baina baita musika ere: "Jaime Yakaman nire gitarristarekin batera hainbat abesti abestuko ditut, baina egongo da sorpresatxorik".

Ikusleen parte-hartzea

Corcobadok horrelako saio gehiago gidatu ditu dagoeneko; horregatik, garrantzitsutzat



Javier Corcobado musikaria. AINTZANE ARANGUENA

jotzen du ikusleen parte-hartzea: "Musika, poesia eta drogei buruzko saioak eman ditut estatu zein Mexikoko hainbat unibertsitatetan, eta kasu horietan, ikusleak parte hartzeko prest egotea ezinbestekoa izaten da; izan ere, saioa gidatzen dugunok beti eramaten dugu aurrez zerbait prestatuta abiapuntu gisa, baina inprobisaziorako denbora egotea ere ondo dago. Horregatik, aurreratu dezaket gaurko saioa ez dela aspergarria izango eta kontzertu akustiko edota performance itxura har-

tuko duela". Amodiozko kantu melankoliakoak abestuko ditu Corcobadok gaur arratsaldeko saioan; horregatik, "emozioendako tarterik" ere izango dela aipatu du.

'Somos demasiados' lan berria

Somos demasiados izeneko lan berria kaleratuko du Corcobadok azaro hasieran, biniloan eta digitalean. Behin lan berria aurkeztuta, 2020ko otsailean edo martxoan kontzertu birari eman- dio hasiera bere taldearekin batera.

'Bagoaz Argentinara!', bost kontzertu biraren aurrerapena

Argentinara joan aurretik kontzertua eskainiko du Ganbarak San Migel parrokan, domekan, 19:30ean

M.R. OÑATI

Ganbara abesbatzak, 25. urteurrenaren baitan, azaroaren 1etik 10era Argentinan zehar bira egingo du. Aitor Biain Ganbarako zuzendariak bira honen nondik norakoak aipatu ditu: "Hamar eguneko bidaia izango da eta hiru leku ezberdinetan egongo gara: Buenos Airesen, La Platan eta Bahia Blancan, hain zuzen. 35 pertsona inguru joango gara eta bost kontzertu eskainiko ditugu".

Espedizio honetan parte hartu dutenek ekarpen ekonomikoa

egingo dute bidaia ordaintzeko, nahiz eta zati bat babesleen eta erakunde laguntzaileen ekarpenekin ordainduko duten: Oñatiko Udalak, Etxepare Euskal Institutuak eta Laboral Kutxak, besteak beste. Bidaiarako dirua lortzeko poltsak jarri dituzte salgai eta *Bagoaz Argentinara!* kontzertua antolatu dute domekarako. Emanaldia San Migel parrokan izango da, 19:00etan. Sarrerak hamar eurotan eros daitezke Txokolatexan, eta parrokia kanpoaldean domekan bertan.

Oteizaren erakusketa ikusteko azken aukera asteburuan

Oteiza eta Arantzazuko estatua- rria, 1950-1969 erakusketa proiektua ekain amaiera ezkeron egon da ikusgai Gandiaga Topagunean eta dagoeneko iritsi da erakusketako ateak ixteko ordua. Gauzak horrela, domeka, hilaren 27a, izango da Oteizak Arantzazun zertu zuen esku-hartzearen kontakizun kronologikoa ikusteko azken eguna.

Erakusketak, sekuentzia gisa eta garapen kronologikoa oinarri hartuta, proiektuaren klabeak azaltzen ditu, 50 eskultura, Arantzazuko Santutegiko Artxiboko eta Oteiza Museoko Ikerkuntza Zentroko dokumentazio, argazki, prentsa eta ikus-entzunezko ugariz baliatuz.

Frantses indie doinuak entzungai Antixena gaztetxean

Frantses indie doinuak eroango ditu Antixena gaztetxera Botibol taldeak. Modu horretan, *matinee* emanaldien denboraldi berriari hasiera emango zaio domeka honetan, hilaren 27an, 12:30ean hasita.

La Fièvre Golby da Botibol ezizenarekin ezagun den Vincent Bestaven artistaren hirugarren lan luzea eta hainbat gai jorrazten ditu; amodio zein antizipaziozko istorioak, besteak beste. Frantziako musika taldea Euskal Herriko hainbat tokitan ari da lan berria aurkezteko kontzertuak eskaintzen, eta, hain zuzen ere, geldialditako bat eta azkena Oñatin domekan egingo duena izango da.

GOIENA TELEBISTA
UDAZKENEKO PROGRAMAZIO BERRIA

HARMAILATIK
GOIENA TELEBISTA, OÑATI-ARRASATE LASTERKETA
URRIAREN 28AN, ASTELEHENEAN, 21:30EAN ETA 23:30EAN
XABIER URZELAIK ZUZENDUTAKO SAIOA

goiena
Zu hemen zaude.

"Oñati-Arrasate ez da kirol proba hutsa"

ITXARO ARTOLA AED-KO DINAMIZATZAILEA ETA OÑATI-ARRASATEKO ANTOLATZAILEA **ATLETISMOA** Domekan egingo dute euskara sustatzea helburu duen herri lasterketa: "Gurea ez da Behobia-Donostia, baina giro polita egongo da, seguru"

Xabier Urzelai ARRASATE

AEDko lagunek orain arteko Arrasate-Oñati lasterketa norabidez aldatu zuten iaz, eta, izandako esperientziarekin pozik, aurten bigarren edizioa antolatzera animatu dira. Domekan egingo dute lasterketa; hori bai, zenbait aldaketarekin. Hala, bihar, zapatua, amaituko da Internetez izena emateko epea; 14:00ak arte, *Herrikrosa.eus* webgunean.

Iaz egin zenuten zailena, lasterketa lehenengoz antolatzea.

Bai, eta hasieran uste genuena baino zailtasun gehiago ditu! Baimenak eskatu behar dira, aseguruak eta bestelakoak... Lan administratiboa dago atzean, eguneko lanaz gain. Baina bidelagun ederrak izan ditugu, urteetan lasterketa antolatzen ibili diren Antxintxiketan taldeko lagunak, Arrasate Atletiko taldekoak... Izugarri eskertzen dugu euren laguntza.

Aurtengoari, baina, zeuen ukitua eman gura izan diozue.

Hasteko, lasterketa eguna aldatu dugu. Orain arte, zapatu arratsaldean egin izan da, baina, iaz eguraldiarekin sekulako zortea izan bagenuen ere –ateri eutsi zion lasterketan–, sari banaketa ekitaldia argi gutxiarekin egin genuen. Uste dugu domeka



Itxaro Artola, aste barruan, AEDko egoitza ondoan. X.U.

"USTE DUGU DOMEKA EGUERDIAN GIRO POLITA EGONGO DELA ARRASATEKO ERDIKO PLAZAN, HELMUGAN"

goiza momentu aproposagoa dela kirola egiteko, nahiz eta hori oso subjektiboa den; uste dugu domeka eguerdian Arrasateko Herriko Plaza Nagusian giro polita egongo dela helmuga jartzeko.

Euskaraz egin bideleloa jarri diozue lasterketari.

Izan ere, AEDtik antolatzen dugu lasterketa. Batetik, euskarak eta korrika egiteak beti izan dute lotura estua, eta bestetik, lasterketa honekin AEDk historikoki harremana izan du, lehen Oñatiko Laixan euskara elkarrekin antolatzen zuelako eta AEDkoak laguntzaileak ginelako. Baina garbi dugu hau ezin dela kirol proba hutsean geratu. Hala, lasterketan parte hartzera gonbidatzen dugu jendea, baina baita euskaraz bizi izatera ere.



Madalen Etxegaraik sakan min egin zion Amaiur Pikazari. EMAKUME MASTER CUP

Emakume Master Cup-eko Lau eta erdikoa Aramaion domekan

PILOTA Urriaren 27an, 16:00etan hasita, promozio mailako sei kanporaketa jokatuko dituzte

X.U. ARRASATE

Emakume Master Cup Txapelketa Aramaiora iritsiko da domekan. Lau eta erdiko torneo jokatzen hasi berri dira, eta joan den asteburuan Amezketako jardunaldiak erakutsi zuen pilotari kopuruak gora egitearekin batera pilotarien kalitatea ere goraka doala. "Nabari da, urtez urte, pilotarien mailak gora egiten jarraitzen duela, bai pilota mistoarekin, bai pilota goxoarekin, eta giroak ere ez du behera egin, Amezketako Larrunarriko harmailetan ez zen eta jenderik falta izan", adierazi dute antolatzaileek. Eta domekarako beste horrenbeste espero dute, Aramaioko harmailak jendez betetzea, alegia.

Sei partidu

Aramaion Janire Arrizabalaga, Irene Urzelai, Onintza Egaña, Naiara Aldasoro, Gentzane Ald-

dai, Maialen Magunabeitia, Irantzu Etxebeste, Uxue Azkonobietia, Amaia Zarrabeitia, Ana Maria Agilera, Izaro Zinkunegi eta Nerea Sagarna lehiatuko dira lau eta erdiaren barruan.


Madalen Etxegarai, ondo

Bestalde, joan den astean, Amezketan, iaz eskuz binakakoan nabarmendu zen Madalen Etxegarai izan zen nagusitu zen pilotarietako bat. Oñatiko eroso gailendu zitzaion Amurrioko Amaiur Pikazari (18-1).

Hala, kanporaketa horretan, Madalen Etxegarai, Laia Salsamendik, Andrea Capellanek eta Ane Mendiburuk egin zuten aurrera, eta baita Maddi Berrocalek eta Madi Unanuek ere, galdu arren tanto gehien egin zituzten pilotariak izan ziren eta. Pilota goxoekin, Andrea Aldaregiak eta Maria Granadok egin dute aurrera.

Iaz, Mimentza eta Ramos onenak

Iazko lasterketan, gizonetako azkar nabarmendu ziren bizkorrenak, baina Aitor Mimentzak beste maila batean zegoela erakutsi zuen; bizkaitarrak 37.35ean geratu zuen erlojua. Emakumezkoetan, berriz, Marisol Ramos jarri zen lasterketa buruan hasieratik, eta horrela eutsi zion amaierara bitartean. Oñatikoak 47.35eko denbora egin zuen.



Marisol Ramos, iaz, Aloña Mendiko zenbait atletaren babesarekin. I.S.

SASKIBALOIA Atsedean hartu eta gero, MU kantxara bueltan da

Domekan (18:30, Iturripe) jokatuko du Mondragon Unibertsitateak ligako hirugarren jardunaldia. Zuri-moreek Palentziako Manteneo Filipenses taldea izango dute aurrean, jokatutako hiru partiduetatik bakarira irabazi duen taldea. *Arri*-ren mutilek ondo hasi dute liga, jokatutako biak irabazi dituzte, eta itxura ona erakutsi.

ARETO FUTBOLA Etxean jokatuko du Mondratek

Maila nazionalen, Eskoriatzak Elorrioren kontra jokatuko du zapatuan (18:00). Bizkaitarrak bosgarren daude sailkapenean, eta zortzigarren postuan eskoriatzarrak. Euskadiko txapelketan, berriz, Aretxabaletak atsedena izango du eta Mondratek Musakolan hartuko du sailkapenean azken postuan dagoen Goierri taldea (zapatua, 17:30).

Erreakzioaren ondotik dator derbia, domekan

FUTBOLA Liga hasieran martxa hartzea kosta egin bazaie ere, Real Unionen eta Ordiziaren kontra irabazi eta gero Aretxabaletak eta Bergarak konfiantzarekin ekingo diote domekan derbiari (16:30, Ibarra). Mondrak, berriz, Oiartzunen jokatuko du

Xabier Urzelai ARRASATE

Liga hasieran gura baino zalan-tza gehiago izan ondoren, azken asteko emaitza onak hauspotuta iritsiko dira Aretxabaleta eta Bergara domekako hitzordura: "Kontu bat delako taldea lanean ondo dabilela ikustea, eta beste bat da emaitzek lan hori erakustea. Garaipenak iristen ez direnean etortzen dira zalantzak, eta zorionez, taldean aldaketak izan ditugulako-edo apur bat kosta egin bazaigu ere, zuzendu dugu bidea eta konfiantzarekin gaude", dio Mikel Larburuk.

Aretxabaletan entrenatzailea moduan, Bergaran ere Jose Javier Barkero iritsi berria da: "Partidu askotan taldea ondo ikusi dut, baina batzuetan zortek bizkarra eman digulako, edo kontrarioak ere jokatu egiten duelako, kosta egin zaigu emaitza positiboa lortzea". Egoera horri buelta emateko Ordizian lortutako garaipenak bultzada ederra eman dio Bergarari, jakinda bi partidu jarraian jokatu behar dituztela jarraian, eta ondoren Anaitasuna indartsua joango dela Agorrosinera: "Egutegi zaila dugu orain, baina guztien kontra jokatu behar dugu eta horrek ez gaitu horrenbeste arduratzen".

Lehen derbia Larbururendako

Aretxabaleta taldeko entrena-tzailearendako lehen derbia izango da. Barkeroren Bergarak, berriz, Mojategin jokatu zuen ligako bigarren jardunaldian (1-1). Hala, UDAk etxean porrotik jaso ez badu ere, berdinke-ekin puntu garrantzitsuek egin diete ihes. Bergarak, kontrara, etxean baino gehiago, kanpoan erakutsi du aurpegirik onena.

Mondrak, azkenik, sailkapenean atzealdean murgilduta dagoen kontrario zuzenaren zelaian, Oiartzunen, jokatuko du zapatuan (taldeko kapitainari elkarrizketa 13. orrialdean).



Aretxabaletak etxean ez du aurten partidurik galdu. IMANOL SORIANO

Entrenatzaileen iritzia derbira begira



MIKEL LARBURU
UDA-KO ENTRENATZAILEA

"Bergarak partidu serioa egin zuen Ordizian"

"Azken bi asteetako garaipenak konfiantza eman digute. Azken batean, nahiz eta aste barruan taldea lanean ondo dabilela ikusi, asteburuan partidua irabazteak lasaitasuna ematen duelako, zalantzak uxatzen ditu. Azken hiru partiduetan atzetik aurrerako lana egin dugu, norgehiagoka galtzen hasi eta markagailuari buelta emateko kapaz izan gara. Hala, Ordizian irabazi eta gero, Bergara ere konfiantzarekin etorriko da. Partiduan izan nintzen eta serio jokatu zuen Bergarak".



JOSE JAVIER BARKERO
BERGARAKO ENTRENATZAILEA

"Dinamika positiboan dago Aretxabaleta"

"Ordiziaren kontra ikusi genuen partiduak irabazteko kapaz garela, eta konfiantza ematen du horrek. Etxetik kanpora txukun gabiltza, etxean hobetzea da gure erroka. Bestalde, domekan Aretxabaletan jokatzea berezia izango da niretako, bost urte egin ditut-eta bertan. UDAk bereziki etxean jokatzen duenean errespetua ematen du. Badakigu azken 20-30 minutuetan zelan estutzen duten eta norgehiagokako faseak ondo zaindu beharko ditugu".

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONA.

Oiartzun-Mondra
Zapatua. 11:00. Oiartzun.

UDA-Bergara
Domeka. 16:30. Ibarra.

ERREGIONAL PREFERE.

Antzuola-Getariako
Zapatua. 16:30. Estala.

Beasain-UDA
Zapatua. 15:30. Loinaz.

Aloña Mendi-Billabona
Domeka. 16:30. Azkoaga.

Mondra-Zumaiaiko
Zapatua. 16:30. Mojategi.

LEHEN ERREGIONALA

Aloña Mendi-Aretx.
Zapatua. 17:30. Azkoaga.

Elgoibar-Bergara
Zapatua. 12:00. Mintxeta.

OHOREZKO GAZTEAK

Zumaiaiko-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Zumaia.

Bergara-Beasain
Zapatua. 16:00. Agorros.

Urki-Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Unbe.

EMAKUMEZKO OHOREZ.

Leintz Arizm.-Intxaurdi
Domeka. 12:30. Mojategi.

Bergara-Urnieta
Domeka. 17:15. Ipintza.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA
Elorriko-Eskoriatza
Zapatua. 18:00. Elorrio.

EUSKADIKO TXAPELKE.

Mondrate-Goierri
Zapatua. 17:30. Musakol.

Aretxabaleta UDA
(Atsedena).

SENIOR NESKAK

Sanpedrotarra-Eskoria.
Zapatua. 16:00. Pasaia.

ESKUBALOIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Hondarribia-Fagor Ind.
Domeka. 12:00.
Hondarribia.

Gure Auzune-Ford Mug.
Zapatua. 19:30. Gasteiz.

EUSK. TXAP. EMAKUM.

Lauro Elgoibar-Aloña
Gaur. 20:30. Elgoibar.

GIPUZKOAKO SENIOR.

Soraluce BKE-Ordizia
Zapatua. 16:00. Labegara.

SASKIBALOA

EBA

MU-Filipenses
Domeka. 18:30. Iturripe.

EUSKADIKO TXAPELKETA

Ibaizabal-Aikid. Ointxe
Zapatua. 16:00. Galdakao.

Mekalki Alo.-Tabirako
Zapatua. 18:00. Zubikoa.

GIP. SENIORRAK

Bergara Sora.-Larrame.
Zapatua. 18:00. Labegara.

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Arri BKL
Gaur. 20:15. M. Muñoz.

ATLETISMOA

OÑATI-ARRASATE

Domeka. 11:00. Oñatiko plazan.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELKETA

La Unica-ART
Domeka. Zehaztu barik.

FUTBOLA Billabona eta Getariako, Estalara eta Azkoagainera

Erregional Preferentean Antzuolak eta Aloña Mendik etxean jokatuko dute. Hamalagarren postuan dauden antzuolarrek azken sailkatu Getariako hartuko dute bihar Estalan, eta bigarren postuan dagoen Aloña Mendik Billabonaren kontra jokatuko du domekan. Billabonakoak ere aurrealdeko postuetan daude, bosgarren.

AUTOMOBILISMOA 4x4 trialean jardungo dute Eskoriatzan

Bihar, zapatua, Eskoriatzako Torrebasa industrialdean 4x4 trialeko proba egingo dute. Eskomotor taldekoek antolatuko dute hitzordua, eta dagoeneko hamabigarren edizioa da. Guztira, 25 pilotu izango dira ikuskizuna eskaintzen (15:00), eta bertakoekin batera kanpotik ere etorriko dira gidariak. Sarrera 3 euro da.

FUTBOLA Bergarak eta Leintz Arizmendik etxean jokatuko dute

Oraingo asteburuan, emakumezkoen Ohorezko Erregional mailako bi ordezkariak etxean jokatuko dute. Leintz Arizmendik lider dago jada, eta laugarren postuan dagoen Intxaurdiaren bisita izango dute. Bergarako neskek, berriz, jokatutako bost partiduetatik bi irabazi dituzte, eta puntu bakarra duen Urnieta hartuko dute Ipintzan.

ESKUBALOIA Fagor Industrialek eta Ford Mugarrik, kanpoan

Jokatutako bost partiduak irabazita, Gasteizko Corazonistasek liga hasiera honetan erakutsi du aurreko urteetan baino indartsuago dagoela, eta poliki-poliki Basauri badabil, azken urteotan moduan, aurrealdera gerturatzen. Oñatiko eta Arrasateko ordezkariak, berriz, sailkapenaren erdialdean daude. Kanpoan jokatuko dute bihar.



Julen Murgiondo eta Saioa Galarraga, joan zen zapatuan, Seguran, txapelketaren amaieran, sariekin. GOIENA

Berriz dantzaren puntaren puntan

Julen Murgiondok eta Saioa Galarragak irabazi zuten zapatuan Seguran jokaturako Euskal Herriko Dantza Txapelketa. 2009an irabazi zuen azkeneko bergarar bikote batek, Aitzol Enak eta Maite Lazkanok osatutakoak

Eneko Azkarate Laspiur BERGARA
"Ahalik eta ondoen egitera ateraginen, baina ez genuen espero irabaztea. Urte polita egin dugu, baina beste bikoteak ere gogor aritu dira txapelketa prestatzen". Saioa Galarragaren berbak dira

(Bergara, 2000). Julen Murgiondok (Bergara, 2001), berriz, zera: "Laugarren aldia zen parte Seguran hartzen genuela eta ez genuen espero irabaztea. Halere, aitortu du egindako lanarengatik "oso gustura" jaitsi zirela ohol-

tzatik, espero zuten bezala irten zitzaielako. Galarragak gehitu du "akatsik gabeko saioa" izan zela eta fandangoa "ondo borbildu" zutela, eta horrek indarrak eman zizkiela "arin-arina gogoz" hasteko.

Epaimahaiko adituek nabarmendu zuten bergararrek "punta zorrotzak eta dotoreak" dituztela eta oso "goian" egin zutela dantzan. Maite Lazkano irakasleak ere azpimarratu du "oso dantzari onak" direla biak; Murgiondo, "txapelketako mutirik onena". Haren ustez, "oso teknika ona" dute eta "primeran elkar hartzen dute". Julen Murgiondok berak dio "hankekin finak" direla eta, oster, besoak direla haien "puntu ahula".

Ikasketak direla-eta –Galarragak Bilbon ikasten du– nahi baino gutxiagotan elkartzen dira entseatzeko. Horretan Maite Lazkano irakasleak asko lagundu diela dio Galarragak: "Maitengatik ez balitz ez ginateke gauden lekuan egongo, bera izan baitzen hasiera batetik bikotea identifikatu eta sortu zuena. Bestetik, zera azpimarratu du: "Izan dugun bilakaera, hein handi batean, irakasleak erakutsitakoagatik izan da". Moises Azpiazu dantza taldean hasitakoak dira, Maite Lazkanorekin. Murgiondo 6 urterekin hasi zen; Galarraga, 4 urterekin. Elkarrekin, ordea, 2013an hasi ziren, 12 eta 13 urte zituztela.

Dantzan, amei esker

Bien amak dantzariak izandakoak dira; Galarragarena, Izaskun Pardina, amaia Iñakirekin aritu zen txikitari txapelketetan. Murgiondorena, Ane Izagirre, taldeko dantzetan aritutakoa da. Zapatuan Segurako pilotalekuko harmailetan elkarrekin jarraitu zuten txapelketa. Aurkezleek irabazleen izenak esan zituztenean, elkar besarkatu zuten, sutuki. "Amei esker dugu biok dantzarako zaletasuna", dio Murgiondok. Dantzari bikotea saria jasotzera oholtzara igo zeneko unea ere hunkigarria izan zen, batez ere Murgiondok gogora ekarri zuenean azken bi urteetan aitajaun-amandreak galdu dituela. "Polita izan zen une hori", dio. Aitor Ruiz de Eginon artistaren eskultura jaso zuten irabazleek, besteak beste, eta gertukoenei eskaini zieten.

"AHALIK ETA ONDOEN EGITERA ATERAGINEN, BAINA EZ GENUEN TXAPELKETA IRABAZTEA ESPERO"

43 ediziotatik, zortzitan nagusi

Euskal Herriko Dantza Txapelketa Seguran jokaten da 1981a ezker, hango udalak Eusko Jaurlaritzari hala eskatu ostean. Dena den, Seguran 1977an hasi ziren dantza txapelketa antolatzen.

43 edizioetatik, zortzitan nagusitu dira bikote debagoiendarrak; guztiak, bergararrak. Edu Muruamendiarazek eta Amaia Agirrek –ez du zerikusirik Juantxo Urbietarekin bikote osatuta 1984an eta 1986an txapeldun geratu zen Amaia Agirrekin– hiru ediziotan jarraian irabazi zuten eta, honenbestez, sari nagusia –Nestor Basterretxearen eskultura– betirako geratu zen Bergarako udaletxean.

Zapatuko garaipenaren aurretik, azkeneko, duela 10 urte irabazi zuen bergarar bikote batek: Aitzol Enak eta Maite Lazkanok. Azken honek 2001ean ere irabazi zuen, orduan Asier Enarekin batera –Aitzolen anaia–. Moises Azpiazu dantza taldeko irakaslea da Lazkano, baita Murgiondo eta Galarragarena ere.

TXAPELDUN DEBAGOIENDARRAK

- **2019** Julen Murgiondo eta Saioa Galarraga.
- **2009** Aitzol Ena eta Maite Lazkano.
- **2001** Asier Ena eta Maite Lazkano.
- **1995** Edu Muruamendiaraz eta Amaia Agirre.
- **1994** Edu Muruamendiaraz eta Amaia Agirre.
- **1993** Edu Muruamendiaraz eta Amaia Agirre.
- **1986** Juantxo Urbietak eta Amaia Agirre.
- **1984** Juantxo Urbietak eta Amaia Agirre.

Eskola "finagoa eta teknikoa"

Begarako dantza askatu tradizioari segida ematen dio Moises Azpiazu dantza taldeak eta talde horretako harrobitik irtendakoak dira 2019ko Euskal Herriko dantza txapeldunak. Maite Lazkano dantzari ohia da Moises Azpiazu dantza taldeko arduraduna. Guztira, 115 bat ikasle ari dira.

Moises Azpiazu zenaren izena dauka taldeak, haren omenez

Begarako Musika Eskolak antolatzen duen dantza txapelketa bezala. Lazkanoren esanetan, "Azpiazuk sortu zuen Bergaran dantza taldea eta berari esker dago dantza solteko espezializazioa". Aurretik, Jabier Mendizabal *Surra*-rekin eta Maite Barrenarekin ere aritu ziren beste hainbat.

"Debagoiengan taldeko dantzak egiten dira, oro har, eta Bergara

da solteko bikoteak prestatzen dituen bakarra", dio Lazkanok.

Bikote txapeldunaren dantza estiloa Begarako eskolarena dela dio: "Julenen eta Saioaren bereizgarriak dira Begarako eskolak besteengandik bereizten dituenak". Begarako dantza estiloa beste batzuen aldean "finagoa eta teknikoagoa" dela dio Lazkanok. "Horrek bereizten gaituela esango nuke; gaur egun bikoterik ez egon arren, Hernanikoaren antza du".

'Itsu egun batez' leloa, jai giroan aldarrikatuta

Errebeldeak Blind Rock jaialdia egingo du bihar, zapatua, Ibon Casasek gidatzen duen DameTVision elkarteak, Arrasateko Udalaren eta Ibai-Arte merkatarien elkartearekin elkarlanean; askotariko ekitaldien bitartez, itsutasuna bistaratzea dauka helburu

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Hiru ardatz ditu oinarrian Oñatin eta Arrasaten lan eta bizi izan den Ibon Casas ONCEko kupoi saltzaileak: musika, gastronomia eta sentsibilizazioa; helburua, itsutasuna bistaratzea.

